



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 26a

12. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—10-22/CCO-00019. “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**10-22/CCO-00019. “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak fiskalizazio-txosten bat egin du, “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzkoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Adieraztea “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**“Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburuak, irismena eta mugak (4. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).

**IV.** Erantzukizuna (8. or.).

**V.** Sodena, CEN eta Albynen arteko lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmena (9. or.).

V.1. Aztertu den hitzarmena sinatu baino lehenagoko aurrekariak (9. or.).

V.2. Sodena, CEN eta Albynen arteko lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmenaren ezaugarriak (14. or.).

V.3. O-NOZERako sinatutako hitzarmenaren eta ETEei, mikroETEei eta autonomoei dagokienaren arteko alderaketa (15. or.).

V.4. Hitzarmenaren exekuzioa 2020an eta 2021ean (16. or.).

V.5. 2021ean eta 2022an izandako intereseko beste gertaera garrantzitsu batzuk (21. or.).

**VI.** Kontuen Ganberak hitzarmenari buruz egindako azterketa (25. or.).

VI.1. Hitzarmenaren edukiaren, baldintzen eta idazkeraren analisia (25. or.).

VI.2. Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak hitzarmena dela-eta agerian jarritako hutsuneen analisia (25. or.).

VI.3. Hitzarmenaren betearazpenaren eta haren ondorioen analisia (26. or.).

Eranskina. Lankidetzarako eta zubi-laguntza finantzariorako hitzarmena, ETE, mikroETE eta autonomoentzat babes materiala (NBE) erosteko (28. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (36. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (90. or.).

## I. SARRERA

2022ko abuztuaren 25ean, Kontuen Ganberak Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren txosten bat jaso zuen. Gaia hau zen: ETE, mikroETE eta langile autonomoentzat (aurrerantzean, enpresak) norbera babesteko ekipamenduak (aurrerantzean, NBEak) eskuratzea, lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmena eginda Sociedad de Navarra SLU (aurrerantzean, Sodenena), Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren (aurrerantzean, CEN) eta Albyn Medical SL enpresaren (aurrerantzean, Albyn) artean.

Txosten horren ondorioak ikusita, Kontuen Ganberak bere kabuz sartu zuen 2022ko bere fiskalizazio programan 2020ko maiatzean, COVID-19ak eragindako pandemiaren garaian, sinatutako aipatutako hitzarmen horri buruzko txosten bat egitea.

Azterketa lana 2022ko irailetik azarora bitartean egin zuen auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati- boen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritako- ari jarraituz, lan horren emaitzen berri eman zitzaizkien hauei, alegazioak egin zitzaizkien: CPENeko kontseilari ordezkariari; SODENAKo lehendakariari, lehendakari ohiari eta lehenagoko zuzendari kudeatzaileari; Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzearen zuzendari nagusiari; Albyn Medical SL enpresari (orain, Creo Medical); CENeko idazkari nagusiari, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari.

Epea amaituta, alegazioak aurkeztu dituzte Sodenako inbertsioen zuzendariak, CENek, Albyn enpresak eta Sodenako zuzendari kudeatzaile ohiak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu fiskalizatutako kudeaketan parte hartu duten Sodenako langileei eta arduradunei, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikokoei (aurrerantzean, CPEN), Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusikoei, Albyn enpresakoei, CENekoei eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzukoiei (aurrerantzean, O-NOZ), lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUAK, IRISMENA ETA MUGAK

Hona txosten honen helburuak:

- NBEak hornitzeko, 2020ko maiatzean Sodenak, Albynek eta CENek sinatutako hitzarmena aztertzea.
- Hitzarmen horrekin lotuta gertatutakoa aztertzea, 2020ko martxoan alarma egoera deklaratu zenetik txosten hau egin den datara arte.

Gure lanaren denbora-irismena aipatutako aldia izan da, eta lan hori aurrera eramateko informazio hau aztertu dugu:

- Sodenak, O-NOZek eta hiru enpresa laguntzailek egindako hitzarmena.
- Sodenak, CENek eta Albynek egindako hitzarmena, eta horren aurreko zirriborroak.
- Hitzarmenaren sinadurarekin eta betearazpenarekin lotutako dokumentazioa. Hauek ditu, nagusiki: Sodenaren Administrazio Kontseiluaren aktak, CENek bidalitako beharizanen zenbatespena, Albynek egindako eskaerak, Albynek egindako salmentak eta alderdien arteko mezu elektronikoak.
- Sodenak, CPENek eta CENek eskatuta, abokatuen bulegoek egindako txosten juridikoak.
- Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren eranskina. 2022ko uztailean erantsi zion urteko kontuen auditoretzen eta Nafarroako Foru Komunitateko eta erakunde autonomoetako sozietate eta fundazio publikoen legezkotasunari buruz adostutako prozeduren auditoretzen emaitzei buruzko bere txosten-laburpenari (2022ko urtarrilaren 31koa da txostena). Emaitzak 2020ko abenduaren 31koak dira.

Gure lana mugatuta egon da inguruabar hau dela eta: CENek ez digu eman enpresen elkarteei, ETEei, mikroETEei edo langile autonomoei egindako zenbatespen eskaeren euskarri den dokumentazioa, ezta CENek gerora egindako salmenten euskarri diren fakturak ere. Fakturak ganbera honi bidaltzeari dagokionez, CENek adierazi zuen ez zituela bidali datuen babesaren arloko araudia ez urratzeko.

### III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

2020ko martxoan, Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Horren ondorioz, besteak beste, bertan behera utzi zuen behar-beharrezkoa ez zen jarduera ekonomikoa. Garai hartan, ekonomiaren arloko lehentasun absolutua izan zen ekoizpen eta gizarte sarea babestea eta laguntza ematea, baita lehenbailehen berreskuratzea jarduera ekonomikoa.

Testuinguru horretan, NBEen hornidurarik eza izan zen nagusi jardueraren sektore guztietan, osasunarenean barne. Arazo horri aurre egiteko, 2020ko apirilaren hasieran, Nafarroako Gobernuko lehendakariordetzak eta Osasun Departamentuak eskatuta, Sodenak 2,5 milioi euroko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmen bat sinatu zuen, bere Administrazio Kontseiluak baimena eman ondoren, hiru enpresarekin (Albyn izan zen horietako bat) eta O-NOZekin, azken hau NBEz hornitzeko.

Aipatutako hitzarmena sinatu eta egun gutxira, amaitutzat jo zen behar-beharrezkoa ez zen jarduera ekonomikoa eteteko aldia. Egoera horretan, sektore ekonomikoa batzuek NBEen arloan zituzten beharrezkoak berri eman zieten Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuari eta Sodenari. NBEen hornikuntzarako bide seguru eta fidagarria sortzeko, aipatutako departamentuak bultzatuta eta Sodenako Administrazio Kontseiluak baimena eman ondoren, Sodenak lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmen bat sinatu zuen CEN eta Albynekin, enpresak NBEz hornitzeko.

Labur azalduta, hau izan zen hitzarmenean ezarritako mekanismoa: CENek enpresek NBEen arloan hilabeterako zituzten beharren aurreikuspena jasotzen zuen eta Albynek bidali egiten zituen. Albynek hiru hilabeterako aurreikusitako unitateak erosten zituen, hitzarmenean ezarritakoaren arabera, eta Sodenaren finantzaketa jasotzen zuen, testuinguru horretan egindako ordainketa aurreratuei aurre egin ahal izateko. CENek behin betiko eskaera egiten zion Albyni, enpresek eskatuta, eta gero banatu egiten zizkien produktuak enpresei. Albynek CENi bidaltzen zion faktura, zeinak ordaindu egiten baitzuen enpresei kobratu ondoren. Zegokion kopurua kobratu ondoren, Albynek Sodenak aurreratutako finantzaketaren zatia itzultzen zuen, biek partekatutako kontu korrontera.

Hitzarmena sinatu aurreko zirriborroetan ezarri zen O-NOZek soberakinaren arduraren hartuko zuela, halakorik bazegoen, baina, behin betiko hitzarmenean, egoera oso zehaztuta mugatu zen erakunde horrek soberakina eskuratzeko betebeharra.

Txosten honen V.4 epigrafean jasotako datuen arabera, Albynek era askotako 2.136.700 maskara eskuratu zituen, 2.149.752 beharko zirela zioen zenbatespena kontuan hartuta.

Maskaren prezioen beherakadaren aurrean, enpresek ez zituzten eskuratu aurreikusitako NBEak, eta CENek izapidetutako eskaeretan 364.280 maskara baino ez ziren jaso, hau da, Albynek 2020ko apirilaren 22an jasotako beharrezkoen zenbatespena kontuan hartuta eskuratuak baino askoz gutxiago<sup>1</sup>. Hitzarmenean ezarritako prozedurarekin bat, Albynek 25.670 maskara saldu zizkien zuzenean beste erakunde batzuei ere. Salmenta horietatik, Albynek ateratako etekin garbia<sup>2</sup> (hitzarmenean ehuneko 3,5 finkatu zen) 496 eurokoa izan zen, administrazio gastuak eta saldu gabeko NBEak biltegitzako<sup>3</sup> gastuak sartu gabe.

Aurreko prozesuaren ondorioz, 1.745.604 maskarako stock bat dago, 1.786.389 euroko balioa duena, eskurapen-prezioaren arabera. Albynen arabera, merkatuko oraingo prezioa kontuan hartuta, balioa 126.625 eurokoa izanen litzateke. Hitzarmena sinatu duten alderdietako batek ere ez du hartu stock horren arduraren.

<sup>1</sup> Esaldia aldatu egin da Sodenaren eta Albynen alegazioak onetsi baitira.

<sup>2</sup> Albynen marjina kalkulatzeko, kontuan hartu dira CENi saldutako NBEetatik lortutako diru-sarrerak, Albynek kontu korronte partekatura itzulitako zenbatekoak kenduta, baita, egindako erosketak direla eta, Sodenak bere gain hartutako eta finantzatu gabeko gastuak. Zenbateko guztiak BEZa sartu gabe atera dira.

<sup>3</sup> Ez zegoen aurreikusita gastu hori Albynek bere gain hartzea, hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Txosten hau idatzi den datan, stock horretatik, iraungita dauden maskaren balioa 27.600 eurokoa da (eskurapen-kostua), eta gainerakoak 2023ko apiriletik 2024ko otsailera bitartean iraungiko dira.

Arazo horren aurrean, Sodenak, CENek eta CPENek txosten juridikoak eskatu zizkieten abokatu-entzuten zenbait bulegori, eta haien ondorioek ezberdintasun nabariak dituzte. Halaber, maskarak bideratzeko saiakera batzuk egin dira, baina alderdiak ez dira ados jarri. Horri dagokionez, CENek Sodenari eta Albyni eskatu die bertan behera uzteko konfederazio horri edozein erantzukizun eskatzeko asmoak.

2022ko uztailean, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak eranskin bat egin zuen, finantzen auditoretzei eta sozietate publikoen legezketasunari buruz adostutako prozeduren auditoretzei buruzko txosten-laburpenari eransteko. Bertan, zalantza jarri zuen Sodenak enpresak NBEz hornitzeko hitzarmenean izandako jarduna, arrazoi hauengatik batez ere: ez zelako bete Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, ez zitzaizolako aurretiaz baimena eskatu Nafarroako Gobernuari, kontabilizazio txarto egin zelako eta ez zitzaizolako haren berri eman legezketasunari buruzko auditoretza egiteaz arduratutako auditoreari.

Sodenak alegazioak aurkeztu zituen eranskin hori dela eta, baina Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak ez zituen aintzat hartu eta hasierako edukiarekin eutsi zion bere txostenari.

Hona hemen egindako lanetik Ganberak ateratako ondorioak:

- 2020an, COVID-19aren pandemiak eragindako aparteko egoerara egokitu egin behar izan zen zuzenbidea –printzipioen eta arau juridikoen multzoa–, eta salbuetsi egin zen une horretako egoerari aurre egiteko baliagarriak ez ziren arauen aplikazioa. Fiskalizatutako hitzarmenaren jatorria eta zentzua aparteko egoera hori da, baina ez ditu salbuesten hitzarmenaren alderdi sinatzaileak dagokien erantzukizunetik, aurreikusi behar izan zen eta aurreikusi ez zenaren ondorioei dagokienez.

- Hitzarmen konplexua eta atipikoa da, zeinean hiru alderdik esku hartu baitute pandemiaren testuinguruan hornidurarik ez zuten enpresak NBEz hornitzeko asmoz. Alderdien arteko harremanak ez dira independenteak eta estu-estuki lotuta daude, halako moldez non, haietako bat faltaz gero, hitzarmenean ezarritako mekanismoak ez zukeen zentzurik izanen.

Horregatik, ganbera honek uste du hitzarmena ezin dela zatikatu, eragiketa horrek osotasun bat eratzen duelako, zeinean xede bakarra baitzen enpresak NBEz hornitzea COVID-19aren pandemiak eragindako aparteko testuinguruan.

- Ganbera honen ustez, Sodenak aurretiazko baimena eskatu behar izan zion Nafarroako Gobernuari aztertzen ari garen hitzarmena eta O-NOZ NBEz hornitzeko ezarritakoa formalizatzeko.

Horri dagokionez, eta Sodenaren jarduketa dagokion testuinguruan kokatzeko, kontuan hartu behar dira ohar hauek:

a) Ez dugu ebidentziarik esateko Sodenak nahita jardun zuela araudian ezarritakoaren kontra. Halaber, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren eranskina dela-eta Sodenak egindako alegazioei emandako erantzunaren arabera, Sodenak uste zuen maileguak emateko baimena ematen zion Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko Erabakiaren babesa zuela, txosten honen VI.3 epigrafean zehaztutakoarekin bat.

b) Kontuan hartu behar da pandemiak eta alarma egoerak eragindako testuinguruaren apartekotasuna.

c) Hitzarmena gardentasun eta publikotasun osoz formalizatu zen.

- Sodenak eragiketa hau merkataritzako zordunen epigrafean kontabilizatzea ez zen zuzena izan, finantza eragiketa bat baitzen, eta zegokion unean horren berri eman behar izan zitzaion legezketasunari buruz adostutako prozeduren auditoriaz arduratutako auditoreari.

- Gure ustez, hauek dira hitzarmenaren hutsune nagusiak:

a) Hitzarmena betetzeko ezarritako diseinuak eta funtzionamenduak hutsune larri bat dute: enpresek ez zuten konpromiso formalik hartu Albynek bidali zitzaizkion zenbatespenen arabera erositako NBEak eskuratzeko.

b) Hitzarmenaren formulazioan izandako beste hutsune nabarmen bat da ez zela ezer arautu edo ezarri zehazteko zer egin behar zen diseinatutako funtzionamendua alda zezaketen ustekabekorik izanez gero, ez baitzen jarraitu beharreko prozedurarik zehaztu.

c) Hitzarmenean ez zen jaso behar besteko bermerik bertan inplikaturako funts publikoak behar bezala babesteko.

Hitzarmenaren formulazio tekniko eskasaren ondorioz, NBEen prezioek behera egin ondoren, ez da eskaera esanguratsu irmorik izan hitzarmenaren hartzaileen aldetik eta, horrenbestez, stock bat sortu da, zeinaren ardura ez baitu bere gain hartu nahi alderdi sinatzaileetako batek ere ez. Horri dagokionez, interpretazio juridiko bat baino gehiago dago soberako stock-aren eta haren gaineko erantzukizunaren inguruan sortutako arazoa nola konpondu behar den zehazteko.

- Sinatutako hitzarmena betetzeko prozeduraren ez-betetzeak izateari dagokionez, ganbera honek uste du ez-betetze horiek gertatu ziren unearen arabera aztertu behar direla, eta ez gerora sortutako egoeraren arabera. Analisi horrek agerian jarri duenez, jarraitu beharreko fase guztiak zorrotz bete ez badira ere, ez dago jasota alderdiek protestarik egin edo desadostasunik adierazi dutenik haien inguruan.

- Ganbera honek uste du zentzuzkoena dela ulertzea hitzarmena sinatu duten alderdi guztiak hartan izandako hutsuneen erantzunkide direla, haietako bakoitzak lortu nahi zen xedean zuen interesaren arabera. Halaber, uste dugu, hitzarmenean jasotako betebeharrean erantzule izateaz gainera, ezarri ez ziren eta aurreikusi behar izan zituzten egoeren erantzule ere izan behar dutela, alderdi guztiei dagokien fede onaren printzipioa eta arretaz jokatzeko eginbeharra direla bide.

Ez da ahaztu behar hitzarmenaren xedea zela enpresak NBEz hornitzea, eta, beraz, interesik handiena haiek zuten. Hitzarmena sinatu duten alderdiak lortu nahi zen xedea betetzeko behar ziren eragileak ziren.

- Uste dugu ez dela zentzuzkoa alderdi bakoitzak ez onartzea, hitzarmenean jasota ez zegoen egoeraren aurrean, hitzarmenean parte hartzeagatik bakoitzari dagokion erantzukizuna, eta erantzukizun hori gainerakoei egozte. Gainera, hitzarmenean ez dago estipulaziorik ezartzen duenik erantzukizunetik salbuetsita daudela.

Aztertutako garaian zehar, alderdiak oraingo egoera konpontzeko eta dagoen stock-arekin zer egin erabakitzeko akordio bat erdiesten ahalegindu dira. Txosten hau egin den egunean, ez dago jasota akordio hori lortu denik.

Egoera horren aurrean, argi dago ez dagoela konponbide juridiko bakar eztabaidaekin bat, eta gatazka judizializatzea kaltegarria izanzen litzatekeela stock-a iraungi baino lehen bideratzeko. Ez litzateke ulergarria, eta interes orokorraren kontrakoa izanzen litzateke.

Egin dugun lanaren ondorioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Sortutako egoera konpontzeko, akordio bat lortzea alderdien artean. Horretarako, zuzenbidean dauden mekanismoak erabil daitezke, hala nola alderdiek onetsitako bitartekaritza edo arbitrajea.*

- *NBEen soberako stock-ari irtenbidea bilatzea lehenbailehen, iraungitzea eragozteko eta gehiago galtzea ekiditeko.*

- *Sodenak aurrerantzean egiten dituen jarduketetan behar besteko berme jasotzea erabilitako funts publikoak ahalik eta gehien babesten direla ziurtatzeko.*

#### **IV. ERANTZUKIZUNA**

##### **Hitzarmena sinatu dutenen erantzukizuna**

COVID-19ak eragindako pandemian enpresentzat NBEak eskuratzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren ardura sinatzaileei dagokie.

Sinatzaile horiek bermatu behar dute hitzarmenarekin lotuta egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela haren xedearekin, eta beharrezkoak diren mekanismoak ezarri behar dituzte proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen.

##### **Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna**

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako ondorioak adieraztea, pandemian zehar enpresentzat NBEak eskuratzeko sinatutako lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmenari dagokionez.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen oinarritzko fiskalizazio-printzipioei heldurik (ISSAI-ES arauetan daude ezarrita). Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, arrazoizko segurtasun bat lortzeko aztertutako kudeaketa egokia izateari dagokionez. Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako ondorioak oinarritutako dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du atararako ondorioei funtsa emateko.



## **V. SODENA, CEN ETA ALBYNEN ARTEKO LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIO-RAKO HITZARMENA**

### **V.1. AZTERTU DEN HITZARMENA SINATU BAINO LEHENAGOKO AURREKARIAK**

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuen 2020ko urtarrilaren 31n deklaraturako osasun publikoko larrialdi egoera, zeina COVID-19ak eragin baitzuen. Birus horren hedapenak arriskua zekarren herrialdeetako osasun publikorako, eta nazioarteko erantzun koordinatua behar zuen. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Horren ondorioz, besteak beste, bertan behera utzi zuen behar-beharrezkoa ez zen jarduera ekonomikoa.

Egoera berezi horren ondorioz ohiz kanpoko eta presako hainbat neurri hartu ziren osasun publikoko arrazoiengatik. Neurri horiek gastu esanguratsua eragin zieten administrazio publikoei, eta halaxe jarraitzen dute gaur egun ere.

Halaber, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19aren eragin ekonomikoa eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena) zehaztu zuen, egoera horretan, erabateko lehenetsia ekonomikoa zela gizarte- eta ekoizpen-sarea babestea eta laguntzea, egoeraren eragina minimizatzeko eta, behin osasun-alarma amaiturik, jarduera lehenbailehen bere onera ekartzeko lortzeko.

### **Sodenak, O-NOZek eta hiru enpresa laguntzailek NBEak eskuratzeko sinatutako hitzarmena**

- Testuinguru horretan, Gobernuak lehendakariordeak eskatuta eta Osasuneko kontseilariak proposatuta, lantalde bat osatu zen, O-NOZko, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuko, Sodenako eta Merkataritza Ganberako pertsonak osatuta, indarrak eta ezagutzak bartzeko, osasun materialaren Txinako hornitzaileekin kontaktatzeko beharrari erantzuteko.

- Lantaldea 2020ko martxoaren 26an bildu zen, formalki, lehen aldiz. Bilera horretan, hiru enpresa aukeratu ziren (haietako bat Albyn zen) eskaerak egin zituzten eta, orokorrean, eskatutakoa aurretiaz ordaintzeaz, garraioaz eta aduanako izapideez ardura zitezten. Enpresa horiek egin behar zuten erosketen prozesua, osorik, eta, gero, materiala O-NOZi eman. Hornitzaile horiek izaera lehenetsia izatera pasatu ziren, sektoreaz zuten ezagutzagatik eta merkatuan sartzeko zuten ahalmenagatik.

- Gero, Sodenak lankidetzaren eta laguntza finantzarioa planteatu zuen aukeraturako enpresek egin behar zituzten ordainketa aurreratuak finantzatzeko, eta, 2020ko martxoaren 31n, haren Administrazio Kontseiluak bilkura batean baimena eman zion sozietateko zuzendari kudeatzaileari enpresa horiei maileguak edo abalak eman diezazkien NBEak inportatzeko. Hasierako gehieneko muga bi milioi eurokoa izan zen, eta, gero, 0,5 milioi gehitu ziren.

- 2020ko apirilaren 3an, lankidetzarako eta zubi-laguntza finantzarioarako hitzarmen bat sinatu zen O-NOZ, Sodena eta sozietate horren partaidetza duten bi enpresen (haietako bat Albyn zen) artean<sup>4</sup>, erakunde horrek COVID-19ari aurre egiteko eskatutako osasun produktuak eskuratzeko. Gero, hirugarren enpresa bat batu zen.

<sup>4</sup> Hitzarmen hori abokatu aholkularien bulego baten laguntzarekin idatzi zen.

- Jarraian hitzarmen horren ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen ditugu:

Ezaugarria	Azalpena
"Zubi-laguntza finantzarioa" - zenbatekoa	2.000.000; Albyn eta Sodenak partekatutako kontu korrante batean sartu ziren. Gero, 500.000 euro gehiago eman ziren, 2020ko apirilaren 22an, Sodenako Administrazio Kontseiluak baimena eman ondoren.
Enpresa laguntzaileak	Albyn eta Laboratorios Ojer Pharma; 2020ko apirilaren 6an, hitzarmenarekin bat egin zuen Establecimientos Sumisan SA enpresak.
Indarraldia	Indarrean egonen zen O-NOZek produktuak eskuratzea behar zuen bitartean eta erakunde horrek enpresa laguntzaileei produktuak eskuratzearen ondoriozko faktura guztiak ordaindu arte.
Enpresa laguntzaileen merkataritzako marjina	Ez dago.
Jarduketa koordinatua	O-NOZek premien berri eman behar ziren enpresa laguntzaileei, zeinek behar ziren hornitzaileak bilatu behar baitzituzten. O-NOZi lortutako baldintzen berri eman behar zioten (prezioa, emateko epea eta ordaintzeko era), onets zitzan, hala erabakiz gero.
Funtsak baliatzeko eta hornitzaileari ordaintzeko baimena	O-NOZek eskaera formalak egin behar zizkien enpresa laguntzaileei, eta Albyni eman haien berri. Albynek Sodenari jakinarazi behar zion, hornitzaileari ordainketa aurreratua egiteko behar ziren funtsak transferitu zitzan kontu batera <sup>5</sup> . Sodenak baimena eman behar zion Albyni hornitzaileari ordain ziezaion, edo, bestela, enpresa laguntzaileari, hark ordain ziezaion hornitzaileari.
Fakturaren jaulkipena	Produktuak jaso ondoren, enpresa laguntzaileak faktura egiten zuen O-NOZentzat.
SODENARI funtsak itzultzea	Enpresa laguntzaileak gorago aipatutako kontu korrontera itzuliko behar zuen O-NOZek emandako zenbatekoa.
Ordainketarik ez eskatzeko konpromisoa	SODENAK ezin zuen eskatu emandako kopuruak itzultzeko O-NOZek fakturak ordaindu arte.

Hitzarmen horren ondorioz, O-NOZ NBEz hornitu zen 2020ko apiriletik azarora bitartean, 2,5 milioi euroko finantzaketa muga gainditu gabe. Eta enpresek osorik itzuli zioten aurreratutako zenbateko hori Sodenari.

### **Sodena, Albyn eta CENen arteko lankidetzarako eta laguntza finantzarioko hitzarmenarekin lotura zuzena duten aurretiazko jarduketak**

- 2020ko otsailaren 26an, Gobernuaren erabaki bidez, baimena eman zitzaion, orokorrean, Sodenari maileguak emateko urte horretan. Muga hamar milioi euro zen.
- 2020ko apirilaren 1ean, FFP2 maskarak eskuratzeko, enpresa batekin bideratzen ari zen negoziazioaren berri eman zion Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Sodenari. Negoziazio horien helburua zen, behar izanez gero, batez ere enpresak hornitzea, jarduera industrial berreskuratzen zenean. Sodenak Albyni bideratu zion eskaera.
- 2020ko apirilaren 6an, Albynek kontsulta egin zion Sodenari, jakiteko nola finantzatuko zen eskaera hori.
- 2020ko apirilaren 9an, funtsezkoak ez ziren sektoreetako jarduera industrial eteteko aldia amaitu zen, eta, ondorioz, astiro-astiro jarduera egitera itzuli zen.

Egun berean, Sodenak lehenago aipatutako eskaera egin zion Albyni, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilariak eskatuta. FFP2 motako 307.200 maskara eskatu ziren, eta prezioa 836.352 euro izan zen (BEZa barne). Maskara horietatik, printzipioz, 100.000 O-NOZerako ziren, eta gainerako 207.200 maskarak, aipatutako departamenturako.

<sup>5</sup> Kontuaren titularrak Sodena eta Albyn ziren, eta azken hori arduratzen zen kontua kudeatzeaz.

- 2020ko apirilaren 11n, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak gorago deskribatutako maskaren eskaeraren berri eman zien Ekonomia eta Ogasun Departamentuko eta Osasun Departamentuko kontseilariari. Mezu elektronikoko horretan, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilariak adierazi zuen bere departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak jakinarazi ziola maskarak eskuratzen ahal zirela, nahiz eta jarduera hori Ondare Zerbitzuaren eskumena izan, enpresa jarduera sustatzeko baitzen, eta, beraz, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 140. artikulua aplikatzen ahal zen, zeinak aukera ematen baitu kontratazio espedientea larrialdiko bidea baliatuta izapidetzeko.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak egun berean erantzun zion mezu elektronikoko horri, eta adierazi zuen, besteak beste, departamentu horrek ez zuela eskumenik maskarak eskuratzeko, eta Ondare Zerbitzura jo behar zuela gaia kudeatzeko, larrialdia justifikatu ondoren. Halaber, enpresen arteko banaketa argia bermatzeko irizpidea baliatu behar zen eta, hala behar izanez gero, konkurrentzia ere, edozein eskaera egin aurretik.

- 2020ko apirilaren 15ean, Sodenako zuzendari kudeatzaileak Ondare Zerbitzuari eskatu zion Nafarroako Gobernuak maileguak emateko onetsitako baimen orokorra (guztira, 15 milioi) izapidetzeko. Erabaki horren helburua zen, COVID-19aren osasun krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko, Nafarroako Gobernuak abiarazitako politiko ekonomikoak garatzea. Baimen hori Gobernuaren 2020ko maiatzaren 27ko erabakiaren bidez eman zen, geroago zehazten denaren arabera.

- 2020ko apirilaren 22an, Sodenako Administrazio Kontseiluaren bilkurako aktari erantsitako dokumentazioan jasota dagoenaren arabera, enpresa asko jarduerara itzultzeak sortutako testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak kezka adierazi zuen alderdi batzuk zirela eta. Haietako bat zen Nafarroako enpresak NBEak izatea eta maskarez hornitzea. Zehazki, aipatu zen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua zenbait protokolo aztertzen ari zela Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin batera, baita haien ondorioak ere.

Kezka horren aurrean eta Nafarroako sektore ekonomiko askotako ordezkariak premien berri eman ziotenez departamentu horri, aktari erantsitako dokumentazioan aipatzen da apirilaren 14an bilera telematikoa egin zirela, departamentu horrek deituta. Bileretan, departamentuak berak, Sodenak eta aipatutako ordezkariak parte hartu zuten. Bileretako batean, CENeko ordezkariak izan ziren, une hartan horniduraren arloan zegoen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, hornitzeko aukeren berri izateko eta NBEen hornidura bermatzeko aukerak aztertzeko<sup>6</sup>.

Aipatutako aktari erantsitako dokumentazioaren arabera, hauek izan ziren bilera horietako ondorio nagusiak:

a) *“... Agerikoa da ETEek, mikroETEek eta langile autonomoek NBEak behar dituztela eta ez dituztela eskaerak egiteko behar diren kanalak.*

b) *Gomendatzen da eskaera handiak egitea, prezioetan eta emateko epeetan baldintza onenak lortzeko, hornitzeko kanal segurua eta fidagarri baten bidez, eta, horretarako, Sodena, Albyn eta O-NOZen arteko jarduketaren esperientzia izanen litzateke jarraitu beharreko eredia.*

c) *CEN, Sodena eta Albynen artean koordinatu behar da hornitzeko kanal hori abian jartzeko modurik egokiena, O-NOZekin egindako hitzarmenean ezarritakoaren antzeko finantzaketarako hitzarmena bideratuta parte hartzen dutenen artean...”*

Gorago adierazitakoaren ondorioz, Sodenako Administrazio Kontseiluak Albyni bi milioi euroko zubi-kreditu bat ematea onetsi zuen, hornitzaileei ordainketa aurreratua egin ziezazkien, enpresei hornidura bermatzeko.

- Hitzarmena sinatu aurretik, Sodena, Albyn eta CENek erabaki zuten CENek zentralizatuko zuela enpresek behar zituzten NBEei buruzko zenbatespena, horretarako gaitutako postontzi elektronikoko baten bidez, pertsona fisikoa edo juridikoa aipatutako konfederazioko elkarteetako bateko bazkide zen ala ez kontuan hartu gabe.

<sup>6</sup> Esaldia aldatu egin da CENek egindako alegazio bat onetsi ondoren.

Hala, 2020ko apirilaren 22an, CENek hilabeterako premien zenbatespena bidali zien Albyni eta Sodenari, erakundeek adierazitakoa kontuan hartuta. Hauek dira datu zehatzak:

Produktua	Hilabeterako unitateen premien zenbatespena
Maskara kirurgikoak	488.148
FFP2 maskarak	207.949
FFP3 maskarak	20.487
Gela (litroak)	1.690
Termometroak	295

Informazio horri dagokionez, esan behar dugu CENek ez digula eman enpresei eskatutako zenbatespenei buruzko dokumentazioa, eta, beraz, ezin dugu egiaztatu nola egin zen.

Hilabeterako premien zenbatespen horiek enpresenak eta autonomoenak ziren, eta haietako asko hainbat erakunderen bidez bidali ziren; hortaz, ezin da zehaztu zenbat erakunderi zegozkien. Deigarria da zenbatetsitako maskara kirurgikoen ehuneko 69 eta FFP2 maskaren ehuneko 37 enpresa handiak biltzen dituzten bi erakunderen eta Nafarroan adinekoei arretea emateko egoitzen eta zerbitzuen elkarte baten eskaerak izatea. Printzipioz, hartzaile horiek ez ziren sartzen enpresa txiki eta ertainak eta langile autonomoak hornitzeko hasierako helburuarekin, hitzarmenean aukera hori jasota bazegoen ere.

Halaber, esan behar dugu, CENi posta elektronikoz bidalitako eskaera batzuetan, zorrotasun falta hautematen dela zenbatespenetan, eta beste batzuetan, berriz, zuzenean eskaerak aipatzen direla. Bi kasutan ez dago dokumentu euskarririk, eta zenbatespenei buruzko datuak telefonoz izandako elkarrizketen bidez lortu ziren, CENek adierazitakoaren arabera.

- 2020ko apirilaren 23an, bai Sodenak bai CENek prentsan iragarri zuten hitzarmena sinatzeak zirela, eta hitzarmen horretan ezarrita zegoela, soberako stock-ik izanez gero, O-NOZek erosiko zuela.

- 2020ko apirilaren 24an, Sodenak hitzarmenaren zirriborroa<sup>7</sup> bidali zien CENi, Albyni eta O-NOZi. Zirriborro horretan jasota zegoen O-NOZek soberako stock-a eskuratzeko konpromisoa, edozein inguruabar dela eta, hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren, erositako baina enpresek eskuratu gabeko NBErik bazegoen.

- 2020ko apirilaren 30ean, CENek mezu elektronikoko bat bidali zion Albyni, non galdetzen baitzuen ea noiz hartuko ziren eskaerak. Izan ere, NBEak maiatzaren azkenerako edo ekainaren hasierarako ez bazeuden, azken hartzaileek beste bide batzuk bilatu beharko zituzten hornidura bermatzeko. Albynek erantzun zuen aurreikusitako epeak aipatutako tarte horren barruan zeudela.

- 2020ko maiatzaren 6an, O-NOZek Sodenari jakinarazi zion ez zuela hitzarmena sinatu nahi baldintza horietan, egon zitekeen soberako stock-a eskuratzeko betebeharrari lotutako mugak ezartzen zituen eranskin bereizi batekin baizik.

O-NOZek jakinarazi digunaren arabera, hau izan zen irizpide hori aldatzeko argudioa:

*“...2020ko apirilaren 24an hitzarmenaren testua jaso genuen, eta, aztertzean, ikusi genuen bertan ez zirela argi azaltzen enpresen premiak, ez banaka, ez orokorrak, eta ez zegoela zehaztuta, enpresek gehiegizko eskaerak eginez gero, erabiliko zen prozedura (adibidez, NBEak metatzen bazituzten eta gehiago eskatzen ez bazituzten). Ez zen zehazten ere zer konpromiso hartuko zuen CENek, zenbat langileri eragiten ahal zien hitzarmenean ezarritako enpresaren definizioak, zenbatek helduko zioten hitzarmenari, etab.*

*Pandemia garaian ETE, mikroETE eta autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmenean parte hartzeko gure adierazpena argitzeko, nabarmendu nahi dugu, hasieratik (apirilaren 24a), proposamena jaso genuenetik, argi geratu zitzaigula ezin genuela sinatu, eta hala jakinarazi genion SODENARI prozesuan zehar”.*

<sup>7</sup> Zirriborro hori 1. oharrean aipatutako abokatuen bulegoaren aholkularitzarekin idatzi zen ere. Kostua 2.331 euro izan zen (BEZa sartuta). Kopuru horretan O-NOZekin egindako hitzarmena idaztearen kostua dago ere.

- 2020ko maiatzaren 7an, hitzarmenaren azken bertsioa idatzi zen eta maiatzaren 8an sinatu zuten Sodenak, CENek eta Albynek. O-NOZek hitzarmenaren eranskina sinatu zuen maiatzaren 11n. Bertan zehaztu egin zen zer kasutan eskuratu behar zuen soberako stock-a, hitzarmenaren zirriborroetan hasieran aurreikusita ez bezala. Hurrengo apartatuko taulan agertzen dira kasu horiek.

Hasierako zirriborrotik zegoen jasota hitzarmenean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta, Albynek apirilean erositako maskarei buruzko estipulazio bat. Eskuratutako 307.200 maskaretatik 257.200 maskara sartu ziren (guztien ehuneko 84), eta zehaztu zen, data horretatik aurrera, haien tramitazioan, ematean eta fakturazioan, hitzarmenean xedatutakoa aplikatuko zela.

Gainerako 50.000 maskarei dagokienez, 26.920 hitzarmenari laga zitzaizkion, 14.560 Sodenak gorde zituen eta 8.520 Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak (CEIN), Gizarte Segurantzako Laneko Ikuskatzaitzak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) eskuratu zituzten. Laga ez ziren 23.080 maskarek fiskalizatutako hitzarmenean ezarritako prozedura bete zuten (Albynek erosi eta fakturatu zituen eta, gero, enpresa horrek partekatutako kontuan hartu zuen salmentaren zenbatekoa).

## V.2. SODENA, CEN ETA ALBYNEN ARTEKO LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIORAKO HITZARMENAREN EZAUGARRIAK

Sodena, CEN eta Albynen arteko lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmenaren ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

Ezaugarriak	Azalpena
Zubi-laguntza finantzarioa - zenbatekoa	2.000.000; Sodena eta Albynek partekatutako kontu korronte batean sartu ziren (1,5 milioi, 2020ko maiatzaren 13an, eta 500.000 euro, 2020ko ekainaren 22an)
Enpresa laguntzailea	Albyn
Indarraldia	2020ko abenduaren 31ra arte, luzatzeko aukerarekin, alderdiek adostuz gero.
Enpresaren merkataritzako marjina	Eskurapen-kostuaren (hornitzaileari ordaindutako prezioa gehi garraioaren kostuak gehi NBEak inportatzeko izandako beste edozein kostu) gaineko ehuneko 3,5, egiten dituen salmentetan.
Jarduketa koordinatua	CENek enpresen hileko premien zenbatespenak bildu behar zituen. Zenbatespen horiek kontuan hartuta, Albynek, CENek eta Sodenak eskuratu beharrekoa aztertzen zuten. Albynek erosketaren baldintzei buruzko informazio zehatza bidaltzen zien CENi eta Sodenari (prezioa eta ordaintzeko era). Ez da aipatzen entregatzeko eperik.
Funtsak baliatzeko eta hornitzaileari ordaintzeko baimena	Albynek egin nahi zen eskaeraren berri eman ondoren, hornitzailearen ordainketa aurreratua egiteko behar zen zenbatekoa sartzen zuen Sodenak kontu korrontean. Jarraian, Sodenak baimena ematen zion Albyni eskaera ezin zezan eta hornitzaileari zegokion ordainketa egin ziezaion.
Fakturaren jaulkipena	Albynek eskuratutako NBEak iristeko aurreikusitako dataren berri ematen zion CENi, baita prezioarena ere (marjina gehituta). CENek enpresei helarazten zien informazio hori, eskaera formala egin zezaten, eta, hala, bakoitzari zegokion faktura egiteko. Enpresek CENi ordaintzen zioten faktura. Jarraian, Albynek faktura egiten zuen, CENen izenean, eta honek Albyni ordaintzen zion. Albynek ordainketa jaso ondoren, NBEak ematen zitzaizkien enpresei.
SODENari funtsak itzultzea	CENen ordainketa jaso ondoren, Albynek kontu korrontera itzuli behar zuen hornitzaileei ordainketa aurreratua egiteko jasotako zenbatekoa.
Ordainketarik ez eskatzeko konpromisoa	SODENAK ezin zuen eskatu emandako kopuruak itzultzeko CENek fakturak ordaindu arte.
Eranskina	Egon daitekeen soberakina O-NOZek eskuratuko zuen baldintza hauek betez gero: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzarmeneko alderdietako batek berariaz eskatzea.</li> <li>• Enpresek NBEak ez eskuratzea, betiere aparteko arrazoiengatik izanez gero, eta ez uko egite boluntarioengatik.</li> <li>• Enpresek eskuratu gabeko NBEak erabilera sanitariokoak izatea.</li> <li>• NBEen salmenta-prezioa Albynen salneurria izatea.</li> <li>• Eskuratu beharreko NBEen kopurua ez izatea Albynek bere hornitzaileei egindako eskaera bakoitzeko materialaren ehuneko hamarretik gorakoa.</li> </ul>
Beste estipulazio garrantzitsu batzuk <sup>8</sup>	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren aholkularitza izan zuteneguz, alderdi sinatzaileek ez zuten inolako erantzukizunik izanen eskaera horietako NBEen desegokitasunaren ondorioz, eta enpresek eta elkarrekin beti ordaindu beharko zituzten fakturak. Albyni zegokion NBEak eskuratzeko betebeharraren ondorioz, ahalegin guztiak egin behar zituen NBEak merkatuan aukeratu eta aurkitzeko, prezio eskuragarrietan eta emateko zentzuzko epeetan, baina ezin zen jo emaitzari lotutako betebehartzat.

<sup>8</sup> Lerro hau Albynen alegazioa onetsi ondoren sartu da.

### V.3. O-NOZERAKO SINATUTAKO HITZARMENAREN ETA ETEEI, MIKROETEEI ETA AUTONOMOEI DAGOKIENAREN ARTEKO ALDERAKETA

Sinatutako hitzarmenek bat egiten zuten Sodenak laguntza finantzarioa emateko konpromisoari dagokionez. Zubi-kredituen sistemaren bidez gauzatuko zen konpromiso hori, eta zenbatekoa bi milioi eurokoa zen, eta 0,5 milioi euro gehiago O-NOZen kasuan, eskuratutako NBEen ordainketa aurreratua errazteko.

Halaber, hitzarmena formalizatzeko, Sodenak prozedura bera bete zuen. Formalizatu baino lehen, Sodenako Administrazio Kontseiluak onetsi egin zuen, Nafarroako Gobernuari aurretiaz baimenik eskatu gabe.

Bat-etortze horiek izan arren, alde esanguratsuak daude haien artean, bietan jasotako prozedurari dagokionez, batez ere:

O-NOZekin egindako hitzarmenean, erakunde horrek enpresa laguntzaileei egindako eskaerak irmoak ziren eta berariazko baimena behar zuten.

Enpresentzako hitzarmenean, berriz, CEN zen erakunde horiekin komunikatzeko kanala, eta konfederazioak jasotzen zuen hilabeterako zenbatetsitako premiei buruzko informazioa. Informazio hori jaso ondoren, CENek Albyni helarazten zion, hiru hilabeterako eskaerak egin zitzaizkion, hitzarmenean ezarritakoarekin bat. Eskaerak egin aurretik, hitzarmenaren sinatzaileek egin zitezkeen erosketak aztertu behar zituzten, eskaerak eta haien baldintzak zehazteko, Albynek horri buruzko mezu elektronikoak bidali ondoren.

Eskaerak iristeko aurreikusitako datari buruzko informazioa jaso ondoren, CENek enpresei eta langile autonomoei helarazi behar zien, eskaera irmoak egin zitzaizkion.

Azaldu dugunez, bi hitzarmenen arteko alde garrantzitsuena da CENek Albyni NBEak erosteko helarazitako premien zenbatespenak ez zetozeela bat eskaera irmoekin, eta O-NOZekin egindako hitzarmenean, berriz, enpresa laguntzaileek egindako eskuraketak erakunde autonomo horrek egindako eskaera irmoen babesean egin zirela.

Horrez gainera, esan behar dugu, O-NOZi dagokion hitzarmenean, enpresa laguntzaileek ez zutelako inolako marjinarik lortu salmentetan. Enpresei dagokienean, berriz, ehuneko 3,5eko marjina aurreikusi zen Albynentzat. Zehazki, Albynen salneurria honela zehaztu zen: eskurapen-kostua (hau da, hornitzaileari ordaindutako prezioa, garraioaren kostuak eta NBEak inportatzeko egindako beste edozein kostu) gehi adierazitako ehunekoa.

## V.4. HITZARMENAREN EXEKUZIOA 2020AN ETA 2021EAN

**CENen zenbatespenak jaso ondoren Albynek egindako eskaerak eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren eskaera**

Hitzarmenean ezarritako prozedura kontuan hartuta, Albynek egindako sei eskaeren laburpena jaso dugu jarraian. CENek helarazitako premien zenbatespenak eta, Nafarroako Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta, Sodenak egindako eskaera aintzak hartuta egin ziren eskaera horiek. Hau da laburpena:

Azalpena	Proformako fakturaren eguna	Fakturaren data	Proformako ordainketa	Baldintzak	Jasote data	Unitateak	Unitateko prezioa	Kontuan noiz zordundu den	Zordun-ketaren zenbatekoa <sup>9</sup>	Ordainketa aurreratua	Garraio gastuak
		2020/05/06	% 20, eskaera berrestean; % 20, Txinatik		2020/05/06	69.760		2020/05/13	167.270 <sup>10</sup>		0
		2020/05/14	bidali baino lehen; % 40, balidatu ondoren; % 20, destinoan entregatu den datuak		2020/05/11	85.680	2,25	2020/05/26	255.915 <sup>9</sup>	Bai	0
	2020/04/01	2020/06/04	tako faktura eman eta 30 egun pasatu baino lehen		2020/06/05	151.760		2020/06/19	413.167 <sup>9</sup>		0
FFP2 maskarak	2020/05/05	2020/05/05	Bi egun proformako faktura egin zenetik		2020/05/07	29.000	1,98	02/05/13	72.059	Ez	2.133
	2020/05/19	2020/10/01	% 50, eskaera egitean % 50, jasotzean (Frantzia)		2020/12/16 <sup>11</sup>	600.000	1,68	2020/05/22 2020/06/22	504.000 504.000	Bai, % 50	24.155
Maskara kirurgikoa	2020/05/19	2020/06/03 2020/06/15 2020/06/24	Eskura		2020/06/04	336.000	0,43	2020/06/19	174.821		0
					2020/06/15	560.000	0,43	2020/06/23	291.368	Ez	0
					2020/06/25	304.500	0,43	02/07/14	158.431		0
Gela (5 litro)	2020/05/18	2020/05/19	Proformako ordainketa aurreratua		2020/05/19	600	20,97	2020/05/18	15.224	Bai, egun bat	0
Termometroak	2020/05/12	2020/06/19	% 100 aurreratuta		2020/06/20	300	26,995	2020/05/18	8.098	Bai	510

<sup>9</sup> Zenbateko horretan ehuneko 2 leko BEZa dago sartuta kasu guztietan, FFP2 motako 600.000 maskaren eta termometroen eskaeran izan ezlik.

<sup>10</sup> Zenbateko horiek ateratzeko, ez da egin unitateen kopurua bider unitateko prezioa; kontuan hartu behar dira eskaerari orokorrean dagozkion zordunkeak, emate partzialak aintzat hartu gabe. Azalpen ohar hau CENen alegazioa onetsi ondoren sartu da.

<sup>11</sup> Hasiera batean, data horretan iristekoak ziren, baina, hurrengo orrialdeetan azaltzen diren ziurtapenaren arloko arazoen ondorioz, 2021eko apiriletik ekainera bitartean jaso ziren.



Eskabideak egin ziren testuinguruaren eta zeuden arazo logistikoaren ondorioz, hitzarmenak ezarri zuen Albynek egiten zituela enpresek hiru hilabeterako zenbatetsitako premiak asetzeko eskaerak. Jarraian, hiru hilerako jasotako zenbatespenen eta egindako eskaeren laburpena jaso dugu, produktu motaren arabera:

	Hiru hilerako zenbatetsitako unitateen kop. (a)	Albynek eskuratutako unitateen kop. (b)	Aldea (b) – (a)	Diruzko alde Zenbatetsia (eurotan)
Maskara kirurgikoak	1.464.444	1.200.500	-263.944	-113.496
FFP2 maskarak	623.847	936.200	312.353	615.335 <sup>12</sup>
FFP3 maskarak	61.461	0	-61.461	-430.227 <sup>13</sup>
Gela (litroak)	5.070	3.000	-2.070	-8.682
Termometroak	295	300	5	135

Ikus daitekeenez, Albynek enpresek zenbatetsitakoak baino 13.052 maskara gutxiago erosi zituen guztira. Hala ere, aldeak daude maskara motaren arabera. Hala, 263.944 maskara kirurgiko gutxiago eskuratu ziren eta ez zen FFP3 maskararik eskuratu, baina FFP2 motako 312.353 maskara gehiago erosi ziren. Gelari dagokionez, zenbatetsitakoak baino litro gutxiago erosi ziren. Egindako eskaeren eta jasotako zenbatespenen arteko alde horien ondorioz, 63.065 euro gehiago gastatu ziren.

### Eskaeren jasotzea, Albynen kasuan

Eskatutako maskarak hilabeteko epearen barruan iritsi ziren gutxi gorabehera, FFP2 motako 600.000 maskara izan ezik. Kostua milioi bat euro zen, eta asko atzeratu ziren arrazoi hauek direla eta:

- 2020ko maiatzaren 21ean, Albynek mezu elektronikoko bat bidali zion Sodenari, zeinaren bidez eskaeraren zenbatekoaren ehuneko 50 (504.000 euro) aurretiaz ordaintzeko eskatzen baitzion, Frantziako hornitzaileak hala eskatu zuelako. Sodenak maiatzaren 22an sartu zuen zenbateko hori kontu korrontean. Proformako fakturan ezarri zen maskarak 3-4 asteko epean entregatuko zirela Frantzian, ordainketa egiten zenetik zenbatuta. Entrega hori eta gero, eskaeraren gainerako ehuneko 50a ordaindu behar zen.

- 2020ko ekainaren 19ko mezu elektronikoko bat dago, zeinaren bidez Albynek Sodenari jakinarazten baitio zer egiaztapen beharko dituzten maskarek Frantzian, hurrengo astean heltzen zirenean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko Enpresen Erregistroaren eta Industria Segurtasunaren Atalari kontsulta egin ondoren.

- 2020ko ekainaren 22ko, Albynek mezu elektronikoko bat bidali zion Sodenari, zeinaren bidez jakinarazten baitzion ehuneko 50eko bigarren ordainketa (504.000 euro) egin behar zuela. Sodenak egun berean sartu zuen zenbateko hori kontu korrontean. Ez dago inon jasota egun horretan maskarak Frantziara iritsi zirenik.

Gai horri dagokionez, ganbera honek adierazi nahi du fabrikazio data hauek ikusi direla maskara horien zenbaketa fisikoan:

Fabrikazio data	Unitate kopurua
2020/06/03	413.000
2020/08/01	56.000
2020/09/01	127.000
2021/02/02	3.000
Ez dago jasota	1.000

<sup>12</sup> 1,97 euroko batez besteko unitateko prezioa jarri da.

<sup>13</sup> Zazpi euroko batez besteko unitateko prezioa jarri da.

Maskaren ehuneko 31 (187.000) ez zeuden 2020ko ekainean fabrikatuta, eta, beraz, ezinezkoa zen Frantzian egotea jasotzeko zegoen eskaeraren ehuneko 50 ordaindu zenean.

- Maskarak CE markarik<sup>14</sup> gabe jaso zirenez, Frantzian geratu ziren, erabili ahal izateko ziurtagiria jaso zain. Prozesu hori egiteko atzerapen handia zegoen, ziurtagiri hori egiteko eskaera handiaren ondorioz. Gai hori dela eta, Albyn eta Frantziako enpresaren artean 2020ko urriaren 14an izandako mezu elektronikoko batzuk daude, zeinen bidez Albynek eskatzen baitzuen maskaren unitateko prezioa doitzeko, kontuan hartuta haien prezioak behera egin zuela, Frantzian ziurtagiria lortzeko izandako denboran. Frantziako enpresak uko egin zion aukera horri.

- 2020ko abenduaren 4an, Frantziako enpresak Albyni jakinarazi zion maskarak bazutela ziurtagiria. Maskara horiek 2020ko abenduaren 16an iritsi ziren Nafarroara, eta orduan detektatu zuen Albynek kutxa ez zegoela behar bezala etiketatuta. Hori dela eta, Frantziako enpresari itzuli zitzaizkion maskarak.

- Albynek eta Frantziako enpresak garraioaren gastuak norik ordaindu behar zituen negoziatu ondoren, maskarak 2021eko apirilaren 6an abiatu ziren Nafarroatik Frantziarantz.

- Azkenean, 600.000 maskarak 2021eko maiatzaren 12tik ekainaren 11ra bitartean jaso ziren Nafarroan.

- Eskaera horri lotutako gastu gehigarri guztiak Albynek ordaindu zituen; guztira, 24.155 euro.

#### **Enpresen eta autonomoen eskaera irmoak kontuan hartuta, Albynek CENi egindako salmentak eta beste entitate batzuei egindakoak**

Enpresen eta autonomoen eskera irmoak kontuan hartuta, Albynek CENi<sup>15</sup> egindako salmenten eta beste entitate batzuei egindakoen laburpena da hau:

	FFP2 maskara	Maskara kirurgikoa	Gela	Termometroa	Fakturaren zenbatekoa*
CEN	229.680	134.600	599	131	742.164
CEIN	6.520	-	-	-	18.382
FANAMOEL	-	500	-	-	272
Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza	1.000	-	-	-	2.819
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	1.000	-	-	-	2.819
MONKEY BUSINESS	40	50	-	-	135
Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzua	-	2.000	-	-	1.089
Sodena	14.560	-	-	-	41.049
<b>Unitateak, guztira, eskaera irmoak (a)</b>	<b>252.800</b>	<b>137.150</b>	<b>599</b>	<b>131</b>	<b>808.729</b>
Albynek eskuratutako unitateen kop. (b)	936.200	1.200.500	600	300	-
<b>(a) – (b) aldea</b>	<b>-683.400</b>	<b>-1.063.350</b>	<b>-1</b>	<b>-169</b>	<b>-</b>

\* Unitateko zenbateko finko bat ezarri zen NBE mota bakoitzerako, prozedura azkartzeko, betiere kontuan hartuta Albynek lortutako marjina orokorra ezin zela izan hitzarmenean ezarritako ehuneko 3,5etik gorakoa.

Aurreko taula aztertuz gero, ondorioa da saldutako maskaren kopurua beharrezkoak izanen zirela zenbatetsitakoak baino askoz gutxiago izan zirela.

Horri dagokionez, esan behar dugu CENek ez digula eman enpresei egindako salmenten euskarrik, eta, beraz, ezin izan dugu egiaztatu zein enpresari saldu zizkien NBEak, ezta zein baldintzatan saldu zizkien ere. CENek ganbera honi esan zion ezin zuela informazio hori eman datuak babesteko araudia ez urratzeko.

<sup>14</sup> CE marka prozesu bat da zeinaren bidez fabrikatzaileak/inportatzaileak erabiltzaileei eta agintari eskudunei jakinarazten baitie merkatututako ekipamenduak funtsezko betekizunen arloan nahitaez bete beharreko legeria betetzen duela.

<sup>15</sup> Albynek eskularruak ere eman zitzaizkion CENi, eta O-NOZerako ezarritako hitzarmenaren bidez kudeatu ziren.

**NBEen stock-a txosten hau idatzi den datan**

Egindako erosketak eta salmentak kontuan hartuta, egon beharko litzatekeen stock teorikoa eta zenbaketa fisikoan lortutako benetako stock-a islatu ditugu jarraian:

Produktua	Unitate kopurua		Diruzko zenbatekoa (BEZa sartuta, hala dagoki-onean)	
	Stock teorikoa (erosketak – salmentak)	Benetako stock-a (zenbaketa)	Stock teorikoa	Benetako stock-a
FFP2 maskarak	683.400	684.504	1.231.293	1.234.299
Maskara kirurgikoak	1.063.350	1.061.100	553.261	552.090
Termometroak	169	169	4.562	4.562
Gela	1	0	21	0

Aldeak daude stock teorikoaren eta benetakoaren artean, txosten hau idatzi zen egunean justifikaziorik ez zuten maskarek dagokienez. FFP2 maskaren kasuan, 1.104 maskara gehiago daude; bestalde, egon beharko liratekeenak baino 2.250 maskara kirurgiko gutxiago daude. Unitateetan dauden alde horien ondorioz, benetako stock-aren diruzko zenbatekoa teorikoarena baino 1.814 euro gehiagokoa da.

Jarraian, NBEen benetako stock-aren iraungipen data zehaztu dugu:

Produktua	Proformako fakturaren eguna	Unitate kopurua	Zenbatekoa (BEZa sartuta, hala dagoki-onean)	Iraungipen data
FFP2 maskarak	2020/04/01	72.984	198.699	2023ko apirila-maiatza
	2020/05/05	11.520	27.600	2022ko abuztua
	2020/05/19	600.000	1.008.000	Ekaina-2024ko otsaila
Maskara kirurgikoak	2020/05/19	1.061.100	552.090	2023ko apirila-maiatza
Termometroak	2020/05/12	169	4.562	-

Produktuak eskuratu ziren unean zuten prezioen arabera balioetsita, stock-aren balioa 1,79 milioi eurokoa da (BEZa barne). Ikus daitekeenez, FFP2 motako 11.520 maskara 2022an iraungi ziren (balioa: 27.600 euro), eta gainerakoak, 1,7 milioi unitate baino gehiago, 2023an eta 2024an iraungiko dira.

**Hitzarmena gauzatzeko sortutako kontu korronteko banku-mugimenduak**

Albynek eskariak egin aurretik, Sodenak diruzko ekarpena egiten zuen hitzarmena gauzatzeko sortutako kontu korrontean. Hauek izan ziren banku-mugimenduak kontu horretan:

Mugimendu mota	Zenbatekoa (eurotan)	Oharrak
Sodenaren ekarpenak	2.000.000	Bi ekarpen, 1,5 eta 0,5 milioioak <sup>16</sup>
Diru-sarrerak	774.388	CENi (ehuneko 91), Sodenari (ehuneko bost) eta CEINi (ehuneko bi) egindako salmenten ondorioz, batez ere
Gastuak	2.564.354	Eskaeren izapidetzeak eragindako gastuak

Aurreko taulako datuak kontuan hartuta, goian adierazitako mugimenduen saldoa 210.034 euro da.

<sup>16</sup> Sodenak Albyni egindako ekarpenak merkataritzako zor gisa jaso ziren haren kontabilitatean, "Bezeroak, salmenten eta emandako zerbitzuen arabera" epigrafean, baita O-NOZerako NBEak eskuratzeko hitzarmena finantzatzeko egindako ekarpenak ere.

Halaber, hau esan behar dugu Albynek egindako erosketen eta salmenten inguruan: Albynek egindako erosketak Sodenak finantzatu zituen, BEZa sartuta zegoela hala zegokion kasuetan. Albynek CENi NBEak saltzen zizkionean, Sodenari itzultzen zion salmentaren zenbatekoa, BEZa sartuta. Albynek erositako eta saldu gabeko unitateei dagokien BEZa 136.338 euro da, guztira. Kopuru hori kontuan hartu beharko da Sodenaren eta Albynen arteko finantzaketa erregularizatzen denean.

### 2020an izandako intereseko beste gertaera batzuk

- 2020ko maiatzaren 22an, lehendakari berria aukeratu zen CENen, hauteskundeetako zuzendaritza batzorde batean.

- 2020ko maiatzaren 27an, Gobernuak erabaki bat hartu zuen, eta, haren bidez, Sodenari baimena eman zitzaion 2020an maileguak eman zitzaion, gehienez 15 milioi, COVID-19aren osasun krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko. Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko erabakiaren bidez baimendutako hamar milioiko zenbatekoa osatzeko ziren.

- Ziurtapenarekin lotutako arazoak direla eta, 2020ko ekainean saldutako 11.520 maskara erretiratu behar izan ziren, baina hornitzaileak berriak eman zituen.

- 2020ko uztailaren 1ean, mezu elektronikoen baten bidez, Albynek Sodenari eta CENi jakinarazi zion kezkatuta zegoela, egindako aurreikuspenekin alderatuta, eskaera gutxi jasotzen ari zelako. Zegoen stock-agatik ere kezkatuta zegoen. Horrez gainera, adierazi zuen lekuarekin arazoak zituela NBEak gordetzeko, eta jasotzeko zeudenak falta zirela.

- Sodenak ganbera honi emandako oharren arabera, 2020ko uztailaren 2an hitzarmenaren hiru sinatzaileek bilera bat egin zuten, eta CENek adierazi zuen espero zela uda eta gero gora egitea eskaeran kopuruak. Horrez gainera, esan zuen enpresa handiei saltzeko aukera eman zitekeela. Sodenak adierazi zuen maskarak eskainiko zizkiela Nafarroako enpresa handiren bati eta O-NOZI. Albyn arduratu zen stock-a biltegitratzeko lekuak bilatzeaz<sup>17</sup>.

- Sodenako Administrazio Kontseiluaren 2020ko urriaren 27ko bileran, zuzendari kudeatzaileak enpresen eskaeren eta zegoen stock-aren egoeraren berri eman zuen, eta adierazi zuen eskuratutako produktuen merkatuko prezioek behera egin zutela nabarmen, eta, ondorioz, NBEak une horretako prezioetan salduz gero, finantzatutako ehuneko 50eko galdera izanen zela, gutxi gora-behera.

Horrez gainera, jakinarazi zen CENekin hitz egin zela eta konfederazioak argi zuela hitzarmena abenduan amaituko zela eta arazoa konpondu egin behar zela.

Kontseiluaren aktari erantsitako dokumentazioaren arabera, Sodenako zuzendari kudeatzaileak aukera hauek planteatu zituen arazo hori konpontzeko:

a) *Sodenak eta Nafarroako Gobernuak CENi eskatzea aukerak eskaintzeko eta haren elkarteei arazoaren berri emateko, haien bideratu baitzen laguntza eta orain ez baitira ari eskaerak egitea ekarri zuten zenbatespenak betetzen.*

b) *Komunikazioa izatea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren eta O-NOZen artean, azken horrek har dezan soberako stock-a edo beste departamentu batzuek har dezaten.*

c) *Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin harremanetan jartzeko aukera baloratzea eta aztertzea, une horretan Osakidetza egiten ari zen lehiaketa publikoan stock-a eskaintzeko.*

Horri dagokionez, hau dio aktak: "... Bertaratutakoek informazioa jasotzat jo dute eta lehendakariak CENen aurrean egin beharreko izapideen zain geratu dira. Informazio osagarria eskatu da horren inguruan, eta konponbiderik onena bilatzeko..."

- 2020ko azaroaren 26an, CENek mezu elektronikoen bat bidali zion Albyni, zeinean eskatzen baitziren NBEen prezioak berrikusteko, murrizteari begira, eskuratutako materiala saldu ahal

<sup>17</sup> Uztailaren zehar, hainbat izapide egin ziren eta, azkenean, stock-aren zatirik handiena Arazuriko Focke Meler Gluing Solutions enpresan geratu ziren, kosturik gabe, eta gainerakoak, Albynen instalazioetan, nahiz eta hitzarmenaren ez ezarri Albynek bere gain hartuko zituela eskuratutako NBEak biltegitratzeko gastuak.

izateko. Egun berean, Albynek CENi erantzun zion prezioen aldaketa Sodenarekin adostu behar zela, eta eskatu zuen zehazteko enpresak zer preziotan erosiko lituzketen NBEak, eta zenbat eros-teko prest leudekeen. Ez dago jasota erantzunik.

- 2020ko azaroaren eta abenduan, Sodenaren eta O-NOZen artean izandako mezu elektroni-koak daude, maskaren stock-a bideratzeko, baina, azkenean, ez zen halakorik gertatu. O-NOZek adierazi zuen bazuela stock nahiko gutxienez sei hilerako.

- 2020an zehar, nabarmen behera egin zuen maskaren prezioak. Hori dela eta, 2020ko aben-duan, Sodenak milioi bat euroko balio-zuzenketa bat erregistratu zuen, kontabilizatutako merkata-ritzako zorraren narriaduragatik.

Narriadura horren kuantifikazioa Sodenaren Administrazio Kontseiluaren 2020ko urriaren 27ko bileran aurkeztutako txosten teknikitik ondorioztatu zen. Txosten horretan zenbatetsitakoaren ara-bera, merkaturako prezioen beherakada ehuneko 50eko ere zen, Albynek Sodenaren finantzaketa-rekin erositako stock-aren prezioekin alderatuta. Albynek enpresei saldutakoa eta une hartako pre-zioen egoera kontuan hartuta, Sodenak pentsatu zuen zaila izanen zela Albyni emandako finan-tzaketa-aren ehuneko 50 berreskuratzea.

#### V.5. 2021ean ETA 2022an IZANDAKO INTERESEKO BESTE GERTAERA GARRANTZITSU BATZUK

Jarraian, 2021ean eta 2022an izandako beste gertaera garrantzitsu batzuk deskribatzen ditugu:

- Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren urtarrilaren 29ko 4/2021 Foru Dekretuak xe-datu zuen kargutik kentzea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilaria, zeina Sodenako lehendakaria baitzen. Kontseilariak berak eskatu zuen kargutik kentzeko. Depar-tamentu horretako kontseilari berria –Sodenako lehendakaria– Nafarroako Foru Komunitateko le-hendakariaren otsailaren 3ko 5/2021 Foru Dekretuaren bidez izendatu zen.

- 2021eko otsailaren 8an, Sodenarekin egindako hitzarmena idazten lagundu zuen abokatuen bulegoak txosten juridiko bat egin zuen, Sodenak eskatuta, hitzarmenean eta eranskinean esku hartzen zutenek eta onuradun zirenek soberako stock-aren gainean zituzten betebeharrei buruz. Guztira, 1.024 euro fakturatu zituen (BEZa sartuta).

- 2021eko otsailaren 23an, Sodenako Administrazio Kontseilua bildu zen, eta zuzendari kude-atzaileak hitzarmenaren betearazpenak eta haren interpretazioaren inguruan CENekin izandako desadostasunek eragindako arazoa gogoratu zuen. Aukera batzuk eztabaidatu ziren, hala nola prezioak jaitea salmenta errazteko. Kontseiluko lehendakariak erantzun zuen beste txosten juri-diko bat eskatu behar zela, otsailaren 8koaz gainera.

- Sodenak aholkularitza juridikoa eta txosten bat eskatu zion abokatuen beste bulego bati. 2021eko apirilaren 13an eman zuen, eta kostua 18.129 euro izan zen (BEZa barne).

- 2021eko apirilaren 15ean, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak ko-munikatu bat argitaratu zuen. Bertan, ohartarazi zuen maskaren sorta batzuetan grafenoa zegoela, eta eskatu zuen ez erabiltzeko, erabiltzaileen osasunerako arretarik handiena izateko printzipioa aintzat hartuta. Gertaera horrek stockean zeuden maskara kirurgiko guztiei eta FFP2 maskara gehienei eragin zien, eta, beraz, ezin ziren saldu.

- 2021eko apirilaren 13ko txosten juridikoaren ondorioak kontuan hartuta, urte bereko apirila-ren 20an, Sodenak eta Albynek gutun bateratu bat bidali zioten CENi, posta elektronikoz, non adie-razi baitzioten biek bete zituztela hitzarmenean ezarritako betebeharrak, CENek ez zituela esku-ratu NBEetako asko eta, ondorioz, 1,8 milioi euroko balioa zuen stock-a zegoela. Biek eskatu zioten CENi ahalik eta eperik laburrenean betetzeko zegozkion betebeharrak, eta NBEen stock-a osorik eskuratzeko eta ordaintzeko.

- 2021eko apirilaren 30ean, CENek burofax bat bidali zien Albyni eta Sodenari, eta adierazi zien ez zegoela kontratuaren ez-betetzerik bere aldetik; bere zeregin bakarra izan zela koordina-tzaile eta bitartekari izatea Albynen eta enpresen artean, eta ez zuela stock-a eskuratzeko bete-beharrak. Horrez gainera, esan zuen Albynek ez ziola CENi informaziorik eman eskaeren jatorriari eta

hornitzaileei buruz, ezta prezioei eta emateko epeei buruz, eta, beraz, enpresek hornitzeko beste bide batzuk erabili behar izan zituztela NBEak bilatu eta eskuratzeko.

- 2021eko ekainaren 25ean, Sodenako lehendakariak gutun bat bidali zion CENi, non adierazi baitzion ez zegoela ados esandakoarekin, eta erakunde horri eskatu zion negoziazio fase bati ekiteko, hitzarmenari lotutako konponbide adostua eta egokia erdiesteko.

Egun berean, abokatuen beste bulego batek txosten bat eman zuen CENek eskatuta. Bertan, erakunde horrek hitzarmenaren arloan zituen eskubideak eta betebeharrak aztertzen ziren.

- 2021eko ekainaren 30ean, CPENeko zuzendaritza nagusiak txosten juridiko bat eskatu zion abokatuen beste bulego bati, hitzarmeneko alderdiek soberako stock-aren gainean zuten erantzukizunari buruz. CPENek esan digunez, segurtasun juridiko handiagoa izateko eskatu zen txosten hori.

2021eko uztailaren 12an, bulego horrek txostena eman zuen, eta kostua 1.513 euro izan zen (BEZa barne).

- 2021eko abuztuan, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak kendu egin zuen grafenoa zuten maskara kirurgikoei buruzko ohartarazpena, eta berriro egon ziren erabiltzeko moduan.

- 2021eko irailean, azaroan eta abenduan, Sodenako lehendakaria CENekin bildu zen, konponbide bat bilatzen saiatzeko. Nolanahi ere, CENek eskatu zuen Sodenak aurretiaz uko egiteko haien kontrako edozein akzio legalik abiarazteari.

- 2021eko abenduan, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak kendu egin zuen grafenoa zuten FFP2 maskareei buruzko ohartarazpena eta berriro egon ziren erabiltzeko moduan.

- 2021eko abenduan, Sodenak handitu egin zuen “Bezeroak, salmenten eta emandako zerbitzuen arabera” epigrafeko narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketa: 248.414 euro, guztira, 2020ko abenduan finkatutako milioi bat euroko kopuruari gehitzeko. Zenbateko hori stock-a merkatuko prezioaren arabera saltzeko aukerak eta Sodenak lehendik berreskuratutako zenbatekoa kontuan hartuta kuantifikatu zen.

- 2022ko otsailean, Sodenako lehendakariak sobera-ko stock-ari buruzko hitzarmen-zirriborroaren proposamena eskatu zion hitzarmena idazten lagundu zuen bulegoari. Txosten hori zirriborroa da oraindik ere, eta haren kostu zenbatetsia 3.175 euro da (BEZa barne).

- 2022ko martxoaren 7an, beste bilera bat egin zuten Sodenako lehendakariak eta CENek, eta bertan izan ziren konfederazioko lehendakariordea eta idazkaria ere. Bi aukera planteatu ziren: jatorrizko hitzarmenari heltzea, NBEak une horretan merkatuan zituzten prezioak kontuan hartuta, edo beste hitzarmen bat egitea eta aurrekoa suntsitzea.

- 2022ko martxoaren 10ean, CENek berriro eskatu zien Sodenari eta Albyni uko egiteko eskubide eta erreklamazio guztiei, baita egintza judizial edo auzibidetik kanpoko egintza guztiei ere.

- 2022ko martxoaren 30ean, beste bilera bat egin zuten Sodenako lehendakariak eta CENek, eta bertan izan ziren konfederazioko lehendakariordea eta idazkaria ere. Hitzarmen berri bat idaztea proposatu zuten.

- Informazioaren arabera, 2022ko apirilaren hasierako hitzarmenaren zirriborro bat egon zen, eta Sodenak beste bi alderdiei bidali zien. Haren gainean, CENek eskatu zuen, apirilaren amaieran, alderdiak behartzen zituen kontratu bakarra izatea, eta bertan deklarazio bat sartzea, non adierazi behar baitzen alderdiek ez zutela ezer elkarri erreklamatzeko hasierako hitzarmena dela eta.

- 2022ko maiatzaren 11n, bilera batean, Sodenako lehendakariak CENi jakinarazi zion ezin ziola berariaz uko egin erreklamazioak egiteko aukerari eta ezin zuela indargabetu 2020ko

hasierako hitzarmena. CENek ondorioztatu zuen harremanetan jarri behar zirela bi alderdien abokatuak, eta ez zen sinatu proposatutako hitzarmen berria<sup>18</sup>.

- 2022ko uztailaren 27an, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak eranskin bat gehitu zuen finantza auditoretzen eta Nafarroako Foru Komunitateko eta erakunde autonomoetako sozietateen eta fundazio publikoen legezkotasunari buruz adostutako prozeduren auditoretzen 2020ko abenduaren 31ko emaitzei buruzko bere txosten-laburpenean (2022ko urtarrilaren 31n eman zuen). Hauek dira eranskin horren ondorioetako batzuk:

a) Kontratua kreditu-negozio juridikotzat jotzen dute, eta esaten dute Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 26ko 53/2021 Foru Aginduan zehaztutako zorpetzeari eta abalen emakidari lotutako eragiketen zerrendan sartu behar zela. Foru agindu horren bidez, jarraibideak eman ziren urteko kontuen auditoretzen eta Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde publikoetako sozietateen eta fundazio publikoen legezkotasunari buruz adostutako prozeduren auditoretzen edukiari buruz eta auditoretza horiek kontratatuzko prozedurari buruz. Aurreko zerrendan sartu ez zenez, auditoretza zerbitzuak ez zuen hala aztertu.

b) Aztertutako eragiketak ez du betetzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legeak interes tasei buruz ezarritakoa, ez dator bat 2020ko ekitaldian orokorki eragiketa horiek baimendu zituzten Gobernuaren erabakietan ezarritako baldintzekin eta ez du eragiketa salbuespenez gaitzen duen berriazko baimenik ere.

c) Esaten da hirugarrenei emandako mailegu arruntek ahal diren berme guztiak izan ohi dituztela, eta aztertutako hitzarmenak ez zituela.

d) Sodenako urteko kontuetan merkataritzako zordunak duen kontabilitateko tratamendua ez dator bat eragiketaren izaera finantzarioarekin.

Aurretiaz, Sodenako kudeatzaile nagusiak alegazioak aurkeztu zizkion aurreko eranskinari, eta alderdi hauek nabarmendu zituen batez ere:

a) Hitzarmena urgentzia sozial, ekonomiko eta sanitario larriko testuinguru batean formalizatu zen –eranskinak ez du testuinguru hori aipatzen–, atzeraezina zen premia bati erantzuteko, erantzukizun eta kudeaketa publikoaren printzipio orokorrekin bat.

b) Zuzenbidearen arabera eta Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko baimenaren babespean jarduten ari zela uste osoa izanda gauzatu zen, eta ez dira eman eranskinean adierazitako ez-betetzeak. Hala ere, esaten dute ez-betetzea ez zela oso garrantzitsua izaneman eman zen testuingurua kontuan hartuta.

c) Nolanahi ere, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak, CPENek eta gizarteak, oro har, hitzarmenaren berri izan zuten.

Aurreko alegazioak direla eta, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak erantzun zuen hitzarmenaren edukitik ondorioztatzen zela eragiketa berezi bat zela, bere xedea betetzeko eta baldintzak zehazteko (destinoa, zenbatekoa, iraupena, interes tasa eta bermeak) baimen berezia behar zuena.

Halaber, ez zeuden ados baimena ez eskatzean egindako prozedurazko ez-betetzeari garrantzia kentzearekin, prozedura horren helburua baita egintzak aurretiaz aztertzea eta kontrolatzea eta Ogasun Publikoaren interesak babestea.

Horregatik guztiatik, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak eutsi egin zion eranskinaren hasierako edukiari.

- 2022ko abuztuaren 3an, Focke Meler enpresak mezu elektronikoko bat bidali zion Sodenari, maskaren stock-a betetzen ari zen lekua behar zuela jakinarazteko. Geroko mezu batean, Sodenak iradoki zuen maskarak lekuz aldatzeko irailaren 30ean, beranduenez.

- 2022ko abuztuaren amaieran, Sodenako zuzendari nagusia kargutik kendu zuen sozietate horretako Administrazio Kontseiluak.

<sup>18</sup> Esaldia aldatu egin da Sodenaren alegazioa onetsi ondoren.

- 2022ko irailaren 15ean, CENek gutun bat bidali zion Sodenako lehendakariari, eta, haren bidez, berriro jakinarazi zuen prest zegoela akordio bat erdiesteko, betiere Sodenak uko egiten bazion konfederazioari erantzukizunak eskatzeari.
- 2022ko urriaren 5ean, Sodenak kontsulta egin zion hitzarmena idatzi zuen abokatuen bulegoari, maskarak zeuden lekutik beste leku batera eramateko eta biltegitratzeko erabakiari buruz.
- 2022ko urriaren 14an, Albynek mezu elektronikoko bat bidali zien Sodenari eta CENi, eta jakinarazi zien Focke Meler enpresak soberako stock-a gordeta zegoen espazioa behar zuela, eta Azkoinen dagoen Dynamobel enpresa prest zegoela hartzeko. Halaber, oniritzia emateko eta leku-aldaketaren gastuak partekatuzeko eskatu zien.
- 2022ko urriaren 17an, Sodenak oniritzia eman zuen, baina Albyni eskatu zion materialaren garraioaz eta stock-a estaltzeko aseguruaz arduratzeko.
- 2022ko urriaren 18an, CENek mezu elektronikoko bat bidali zien Sodenari eta Albyni, eta jakinarazi zien Albynen eskaera ez zitzaiola bidali behar CENi, inoiz ez zitzaiolako erosketen parte egin, ezta erosketen baldintzen definizioaren eta stock-aren geroko kudeaketan parte ere.
- 2022ko urriaren 21ean, stock-aren lehen bidalketa hartu zuen Dynamobelek, eta orduan eman zuen Albynek stock-aren balio osoaren berri: 126.625 euro, merkatuko prezioaren arabera.
- 2022ko urriaren 27an, stock-aren gainerako zatia jaso zen Dynamobelen. Stock-a bidaltzeak 964 euroko gastua eragin dio Albyni. Hurrengo egunean, Dynamobelek jakinarazi zuen asegurua- ren kostua, 2023ko otsailera arte, 218 euro zela, Albynek ordainduko zuela eta data horretan ber- ritzearen urteko kostua 872 euro izanen zela.
- Hitzarmena betetzean Albynek lortutako marjina garbia 496 euro da, txostena hau idatzi den datan. Honela kalkulatu da: CENi egindako salmentetatik lortutako sarrerei ken Sodenarekin par- tekatutako kontu korrontera egindako itzulketak eta bere gain hartutako finantzatu gabeko gastuak. Hauek dira zehaztasunak:

	Salmentak	Sodenarekin partekatutako kontu ko- rrontera itzultako zenbatekoa	Albynek bere gain hartu- tako gastuak, finantzatu gabekoak
FFP2 maskarak	589.021	563.103	28.000
Maskara kirurgikoak	61.717	58.975	-
Gela	13.178	12.570	-
Termometroak	5.240	3.536	645
Bestelakoak (garraioa eta asegurua)	-	-	1.831
<b>Guztira</b>	<b>669.156</b>	<b>638.184</b>	<b>30.476</b>

496 euroko marjina hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartu eragiketa horiek kudeatzeak Al- byni eragindako administrazio-gastuak, ezta enpresei saldu ez zitzaizkien NBEak biltegitratzeko gastuak ere. Zenbateko hori egindako salmenten ehuneko 0,1 da.

- 2022ko azaroaren 7an, Sodenak, Albynek eta CENek bilera bat egin zuten Sodenako lehen- dakariak eskatuta. Bilera horretan, alderdi guztiek adierazi zuten soberako stock-ari buruzko akor- dio bat erdiesteko borondatea, baina ez dago jasota akordiorik erdietsi zenik.



## VI. KONTUEN GANBERAK HITZARMENARI BURUZ EGINDAKO AZTERKETA

Jarraian, ganbera honek hitzarmenari buruz atera dituen ondorio nagusiak zehazten ditugu.

### VI.1. HITZARMENAREN EDUKIAREN, BALDINTZEN ETA IDAZKERAREN ANALISIA

Hitzarmen honen edukia, baldintzak eta idazkera aztertzeko, kontuan hartu behar da hitzarmena egin zenean zegoen egoeraren apartekotasuna, gizarteari eragiteaz edo unean unekoa izateaz gainera, ondorio juridiko garrantzitsuak baititu. Ondoren, ganbera honen ondorioak laburtzen ditugu:

- Zuzenbidea, printzipioen eta arauen multzoa den aldetik, azkar-azkar egokitu behar izan zen pandemiak eragindako egoeraren aurrean, konponbideak bilatzeko eta arau batzuk salbuesteko, ez baitziren baliagarriak eman zirenean aintzat hartu ez zen egoera bati aurre egiteko. Kode Zibilak berak ezartzen du arauak aplikatu behar diren garaiko gizartearen testuinguruari eta errealitateari lotuta interpretatu behar direla, eta, beraz, apartekotasuna lehenetsi behar da COVID-19ak eragindako pandemian sortutako egoerak interpretatzeko.

Fiskalizatutako hitzarmenak aparteko testuinguru horretan du jatorria, eta horrek ematen dio zentzua. Baina, egitate horrek haren sorrera eta xedea azaltzen ahal baditu ere, ez du esan nahi alderdi sinatzaileek erantzukizunik ez dutenik arautu behar zena ez arautzeagatik.

- Hitzarmen konplexua eta atipikoa da, zeinean hiru alderdik parte hartu baitute. Alderdien arteko harremanak ez dira independenteak eta estu-estuki lotuta daude, halako moldez non, haietako bat faltaz gero, hitzarmenean ezarritako mekanismoak ez zukeen zentzurik izanen.

Hala, CENek esku hartzea beharrezkoa zen hitzarmena betetzeko, ezinbestekoa baitzen NBEak eskuratzeko prozedurari hasiera emateko, Albyni premien aurreikuspena helarazita. Bestalde, Albyn merkatuan NBEak aurkitzeaz eta eskuratzeari arduratzen zen, baina ez beretzat, material hori CENi emateko baizik, gero enpresa eskatzaileei bana ziezazkien. Sodenak Albyn finantzatzen zuen, enpresentzako NBEak eskuratzeko ordainketa aurreratua egin zitzan, eta ez enpresa horrek bere intereserako egindako eragiketa bat abalatzeko.

Horregatik, ganbera honek uste du hitzarmena ezin dela zatikatu, eragiketa horrek osotasun gisa hartuta baino ez duelako zentzua, zeinean xede bakarra baitzen enpresak NBEz hornitzea COVID-19aren pandemiak eragindako testuinguruan.

- Hitzarmenean ezarritako mekanismoak ageriko arazo bat du: CENek eskaeren zenbatespena helarazten zion Albyni, azken honek NBEak eskura zitzan, baina zenbatespenak egiten zituzten enpresek ez zuten NBE horiek eskuratzeko konpromisorik hartzen.

- Alderdi sinatzaileek estipulazio orokorren bat aurreikusi behar zuten diseinatutako prozedurak eragin zitzakeen arazoen aurrean nola jardun ezartzeko. Hortaz, hitzarmenaren hutsunea arautzen duen mekanismoan dago eta, batez ere, aratu ez zituen baina arautu behar zituen alderdi guztietan.

- Hitzarmenean ez zen jaso behar besteko bermerik bertan inplikaturako funts publikoak behar bezala babesteko.

### VI.2. KONTU-HARTZE ZUZENDARITZA NAGUSIAK HITZARMENA DELA-ETA AGERIAN JARRITAKO HUTSUNEEN ANALISIA

Jarraian, gorago aipatutako 2020ko abenduaren 31ko emaitzen txosten-laburpenari gehitutako eranskinean Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak agerian jarritako hutsuneak direla-eta ganbera honek egindako analisiaren ondorioak jaso ditugu:

- Aztertutako hitzarmena egiteko, Sodenak Gobernuari baimena eskatu beharri dagokionez, sozietate horrek egindako eragiketa halako bermeen xedeari eta baldintzei dagozkien estandar arrunten arabera aztertzen bada, ez dator bat ohiko kasuekin, eta, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak baieztatzen duen moduan, eragiketa berezi bat da.

Ganbera honen ustez, Sodenak aurretiazko baimena eskatu behar izan zion Nafarroako Gobernuari aztertzen ari garen hitzarmena eta O-NOZ NBEz hornitzeko ezarritakoa formalizatzeko. Horri dagokionez, eta eragiketa dagokion testuinguruan kokatzeko, kontuan hartu behar dira ohar hauek:

- a) Ez dugu ebidentziarik esateko Sodenak nahita jardun zuela araudian ezarritakoaren kontra.
- b) Kontuan hartu behar da pandemiak eta alarma egoerak eragindako testuinguruaren apartekotasuna.
- c) Hitzarmena gardentasun eta publikotasun osoz formalizatu zen.

Sodenak Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren txostenari emandako erantzunaren arabera, sozietateak alegatu zuen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta jardun zuela eta uste zuela 2020an maileguak emateko (hamar milioi euro, gehienez) baimena ematen zuen Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko erabakiaren babespean ari zela. Jarrera hori indar dezake Gobernuak 2020ko maiatzaren 27an hartutako erabakiak, zeinaren bidez baimena eman baitzitzaion sozietate horri ekitaldi horretan maileguak emateko (15 milioi, gehienez), COVID-19aren osasun krisiak eragindako ondorio sozioekonomikoak arintzeko, aurreko erabakian baimendutako hamar milioi euroko zenbatekoaren osagarri gisa. 2020ko maiatzeko erabaki hori Sodenako zuzendari kudeatzaileak 2020ko apirilaren 15ean egindako eskaera eta gero onetsi zen.

Laburbilduz, Sodenaren jarduketa ulergarria izan zen zegokion testuinguruan, eta sozietate hori tresna aktiboa izan zen maileguak emateko, helburua izanik Nafarroako industriaren sektoreari laguntza ematea, pandemiak eragindako ondorio larriak arintzeko. Hala ere, beharrezkoa zen aurretiaz Nafarroako Gobernuari baimena eskatzea.

- Sodenaren kontabilitatean ez zen behar bezala erregistratu eragiketa, emandako finantzaketa –izaera finantzarioko eragiketa– ezin baitzen merkataritzako zortzat jo, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak eranskinean dioenez. Hori dela eta, legezketasuna betetzeari buruz adostutako prozeduren auditorietza egin zuen enpresari zorpetzearekin eta abalak ematearekin lotutako eragiketen zerrendan zegoela jakinarazi behar izan zitzaion.

### VI.3. HITZARMENAREN BETEARAZPENAREN ETA HAREN ONDORIOEN ANALISIA

Jarraian, hitzarmenaren betearazpenarekin eta haren ondorioekin lotutako zenbait alderdi nabarmendu ditugu, kontuan hartuta 1,79 milioi euroko balioa (eskurapen-prezioaren arabera) duen stock bat dagoela eta dagoeneko 27.600 euroko balioa duten NBEak iraungita daudela:

- Sortutako egoera gertatu zen alderdietako batek ere ez zuelako kontuan hartu NBEen munduko merkatuak izan zuen bilakaera izan zezakeenik. NBERik gabeko egoera batetik halako produktuen ugartasun egoera batera pasatu zen hilabete gutxitan, eta, ondorioz, nabarmen behera egin zuen haien prezioak.

Aurreikusteko zaila zen inguruabar horren ondorioz, premien hasierako zenbatespenak –Albynek jada eskuratuta zituenak– ez ziren eskaera irmo bihurtu.

- Hitzarmenak hitzez hitz dioena kontuan hartuta, ez-betetzeak izateari dagokionez, ganbera honek uste du ez-betetze horiek gertatu ziren unearen arabera aztertu behar direla, eta ez gerora sortutako egoeraren arabera. Egitateen analisiak agerian uzten du, jarraitu beharreko urrats guztiak zorrotz bete ez arren –batez ere Albynek alderdiei eman beharreko informazio zehatza–, ez dagoela alderdien desadostasunik edo protestarik egindako eskaerak direla eta; hortaz, ulertzen da ados zeudela, tazituki.

- Hitzarmenean ez zen zehaztu prozedurarik hitzarmena betetzean ustekabekorik izanez gero –eta izan dira– nola jardun behar zen zehazteko; horren ondorioz, ezin zaio erantzunik eman auzi nagusiari: nori dagokion NBEen soberako stock-az arduratzea. Horrenbestez, ezin da identifikatu nor den haien jabea. Izatez, hitzarmenean ez dago inolako estipulaziorik ezartzen duenik alderdi sinatzaileetako zein den eskuratutako materialaren jabe. Argi dagoenez, Albynek bere izenean eskuratu zuen materiala, baina ez zuen beretako eskuratu; Sodenak aurreratutako finantzaketarekin erosi zuen, aurretiaz premiak jakinarazi zituzten enpresei helarazteko, CENen bitartez.

- Alderdietako bakoitzak hitzarmenean hitzez hitz ezarritakoari heltzen badio, inork ezin du aurreikusitako egoera honen ondorioen erantzule egin beste alderdietako bat. Hala ere, ez da

zetzuzkoa alderdi bakoitzak ez onartzea, hitzarmenean jasota ez zegoen egoeraren aurrean, hitzarmenean parte hartzeagatik bakoitzari dagokion erantzukizuna, eta erantzukizun hori gainerakoei egoztea. Gainera, hitzarmenean ez dago estipulaziorik ezartzen duenik erantzukizunetik salbuetsita daudela.

- Ustekabekoen aurrean baliatu beharreko prozedura arautzen duten estipulaziorik ez duen hitzarmenaren formulazio tekniko eskasaren ondorioz, ustekabekoak izan direnez, hainbat interpretazio sortu dira hutsune horiek eragin dituzten arazoak eta gatazkak konpontzeko moduari buruz.

Hori dela eta, ganbera honek uste du zetzuzkoena dela ulertzea hitzarmenean parte hartu duten guztiak hark dituen hutsuneen erantzunkide direla. Horrenbestez, alderdi bakoitzak lortu nahi zen xedea betetzean izan duen interesaren arabera hartu beharko luke egoera ahal den neurrian konpontzeko ardura, egoera hori sortzen ari den kalteak bere gain hartuta.

Ez da ahaztu behar hitzarmenaren xedea zela enpresak babes materialez hornitzea, eta, beraz, interesik handiena haiek zuten. Hitzarmena sinatu zuten alderdiak lortu nahi zen xedea betetzeko behar ziren eragileak izan ziren.

- Egia da alderdi bakoitzak hitzarmenean hartutako betebeharrak betetzeko ardura duela, baina, gure ustez, jaso ez ziren baina, zetzuz jokotuta, jaso behar ziren egoeren ardura ere badute. Merkatari guztiei eskatzen zaien prestasunak eta negozioen arloko fede onaren printzipioak jarduketa ororen ardatz izan behar dute. Eta gauza bera eskatzen ahal zen pandemiaren testuinguruan, zalantzarik gabe jarduketa horien balorazioa modulatu behar badu ere.

- Hitzarmenaren gabeziak eta hutsuneak agerian jarri ondoren, argi dago ez dagoela konponbide juridiko bakarra, eta inguruabar hori nabaria da dauden txosten juridikoek gertaeren inguruan egindako interpretazioen eta analisisien aniztasuna ikusita.

Biltegiatutako NBEen arazoa konpondu baino lehen gatazka hau judizializatzeko produktuak erabili baino lehen iraungitzea ekarriko luke; ez litzateke ulergarria eta, gainera, interes orokorraren kontrakoa izanen litzateke.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren

Iruñean, 2022ko abenduaren 16an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

**LANKIDETZARAKO ETA ZUBI-LAGUNTZA FINANTZARIORAKO HITZARMENA, BABES MATERI-  
ALA (NBE) ESKURATZEKO ETE, MIKROETE ETA AUTONOMOENTZAT**

Iruñean, 2020ko maiatzaren 7an

HAUEK BILDU DIRA:

---

LUIS IGNACIO COLLANTES NIÑO jauna, \_\_\_\_\_, ondorio hauetarako helbide hau duena: Cordovilla (Nafarroa), Cordovilla industrialdea, D kalea, 1. Nortasun agiri nazionala:

JOSÉ ANTONIO SARRÍA TERRÓN jauna, \_\_\_\_\_, ondorio hauetarako helbide hau duena: Iruña (Nafarroa), Huarte doktoarearen kalea 3. Nortasun agiri nazionala:

MARÍA PILAR IRIGOIEN OSTIZA andrea, \_\_\_\_\_, ondorio hauetarako helbide hau duena: Iruña (Nafarroa), Karlos III.a etorbidea 36, 1. eskuina. Nortasun agiri nazionala:

HONELA JARDUN DUTE:

---

LUIS IGNACIO COLLANTES NIÑO jaunak ALBYN MEDICAL SL sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa jardunen du. Espainiako nazionalitatea duen sozietatea da, iraupen mugagabekoa. Egoitza soziala: Cordovilla (Nafarroa), Cordovilla industrialdea, D kalea, 1. zenbakia. Nafarroako Merkataritza Erregistroan honela inskribatuta dago: 1.351 liburukia, 62 folioa, NA-26.871 orria, 1. inskripzioa. IFK: B/62943063. Sozietate hori 2002ko uztailaren 31n Bartzelonako Juan Francisco Bages Ferrer notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez eratu zen (protokoloko zenbakia: 1.833). Sozietateak Luis Ignacio Collantes Niño jaunak ordezkaturik jardunen du, zeinak ahalmena baitu kontratu hau egilesteke, Iruñeko Felipe Pou Ampuero notarioaren aurrean 2009ko otsailaren 17an egiletsitako ahalordetzearen egitura publikoa dela bide (protokoloko zenbakia: 205). Aurrerantzean, ALBYN MEDICAL.

JOSÉ ANTONIO SARRÍA TERRÓN jaunak CONFEDERACIÓN DE EMPRESARIOS DE NAVARRA erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa jardunen du. Egoitza soziala: Iruña (Nafarroa), Huarte doktoarearen kalea 3. Nafarroako Erakunde Profesionalean Erregistroan 32/146 zenbakiarekin inskribatuta dago, eta G-31130693 IFK du. JOSE ANTONIO SARRÍA TERRÓN jaunak ordezkaturik jardunen du, zeinak ahalmena baitu kontratu hau egilesteke, lehendakaria den aldetik, erakundearen estatutuen 20. artikuluekin bat. Aurrerantzean, CEN.

MARÍA PILAR IRIGOIEN OSTIZA andreak SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SLren izenean eta haren ordezkari gisa jardunen du. Espainiako nazionalitatea duen sozietatea da, iraupen mugagabekoa. Egoitza soziala: Iruña (Nafarroa), Karlos III.a etorbidea 36, 12. eskuina. Nafarroako Merkataritza Erregistroan honela inskribatuta dago: 1.589 liburukia, 165 folioa, NA-31.554 orria, 1. inskripzioa. IFK: B/71069868. Sozietate hori Sociedad de Desarrollo de Navarra SA, Navarra de Financiación y Control SA, Navarra de Gestión para la Administración SA eta Fondo de Jóvenes Empresarios Navarros SA sozietateen bat-egitetik sortu zen, Iruñeko Rafael Unceta Morales notarioak 2011ko uztailaren 1ean eskuetsitako eskritura publikoaren bidez (protokoloko zenbakia: 1.395). María Pilar Irigoien Ostiza andreak ahalmena du kontratu hau egilesteke, Iruñeko Rafael Unceta Morales notarioaren aurrean 2015eko abenduaren 18an egiletsitako ahalordetzearen egitura publikoa dela bide (protokoloko zenbakia: 1.846). Aurrerantzean, SODENA.

Hemendik aurrera, ALBYN MEDICAL, CEN eta SODENA batera aipatzen direnean, alderdiak esanenen zaie, eta banaka aipatzen direnean, alderdia.

Alderdiek dokumentu hau egiteko behar besteko gaitasun dutela aitortu diote elkarri, eta hau

AZALTZEN DUTE

---

I. COVID-19aren pandemiak eragindako osasun larrialdiko testuinguru honetan, Osasun Sistema Publikoko zerbitzuek eta enpresa pribatuek norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) behar dituzte beren jarduera normal garatu ahal izateko.

II. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ), SODENAK eta ALBYN MEDICALek (osasunaren sektorean diharduten beste bi enpresarekin batera) lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmen bat erdietsi zuten, eta, haren exekuzioaren bidez, behar bezala inportatu ahal izan dira osasun produktu batzuk O-NOZerako –besteak beste, NBEak–, merkatu horren oraingo egoera kontuan hartuta.

Lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmen horren barruan: (i) ALBYN MEDICAL (enpresa laguntzailea eta kudeatzailea den aldetik) eskaeren baldintzak aukeratzeaz, aurkitzeaz eta negoziatzeaz eta produktuaren inportazioa edo garraioa eta zuzeneko eskuraketa kudeatzeaz arduratzen da, eta (ii) SODENAK laguntza finantzarioa ematen du, zubi-kredituen bidez, hornitzaileei egin beharreko ordainketa aurreratzeko, baldintza hori betetzea ezinbestekoa baita halako produktuak eskuratzeko.

III. Apirilaren 9an besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat berreskuratzeko baimen ordainduaren epea amaitu ondoren (martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri zen), martxoaren 14ko 463/2020 Errege Lege Dekretuaren 10.3 artikularekin bat etorritako jarduera eten ez zitzaizen enpresa gehienek berriro ekin diote jarduerari.

IV. Bai eremu publikoan bai eremu pribatuan kezka handia dago berriro jarduera egiten hasi diren enpresetan izanen diren laneko segurtasun baldintzei dagokienez. Osasun Ministerioak zenbait protokolo eta jardunbide egokien gidak egin ditu ildo horretan, eta bereziki garrantzitsutzat jotzen du langile guztiek NBEak erabiltzea. Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua lankidetzan ari da enpresetan babesteko erabili beharreko materialak bete behar dituen ezaugarri teknikoak zehazteko.

V. Nafarroako Gobernuak eta, zehazki, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuak bere kezka adierazi du, Nafarroako enpresek eta industriek berriro jarduerari ekiten diotenean, segurtasun baldintza egokietan egin dezaten, osasun agintarien gomendioak kontuan hartuta, baita Nafarroako enpresek babesteko elementuen arloan duten hornidura egoeraren inguruan ere.

Hori dela eta, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuak, Sodenarekin koordinatuta, bilera telematikoak egin zituen pasa den apirilaren 14an Nafarroako sektoreetako eta enpresa elkartetako ordezkariekin, helburu hauekin: zuzeneko informazioa jasotzea oraingo hornidura egoeraz, haien hornidurarako aukerak ezagutzea, eta NBEen hornidura bermatzeko aukerak baloratzea.

VI. Bilera horietan ondorioztatu zen Nafarroako Foru Komunitatean diharduten ETEek, mikroETEek eta autonomoek NBEen beharra dutela beren jarduera garatzeko, eta, merkatuaren oraingo egoeran, arazoak dituztela bakoitzak bere aldetik erosteko.

VII. CEN hau egiteko prest agertu da: (i) ETEen, mikroETEen eta autonomoen eskaera koordinatzeko, CEN bera osatzen duten elkartetako kide izan zen ez, eta (ii) bitartekari aritzeko NBEak erosteko. ALBYN MEDICALek eskuratuko ditu, gero ETEei, mikroETEei eta autonomoei helarazteko.

VIII. Azaldutakoa kontuan hartuta, eta, batetik, osasun produktuak eskuratzeko, ALBYN MEDICALek, SODENak eta O-NOZek duten lankidetzarako eta finantzaketarako indarreko hitzarmenaren esperientzia oinarritzat hartuta, eta, bestetik, CEN betetzeko prest dagoen koordinazio eta bitartekaritza lana aintzat hartuta, alderdiek erabaki dute lankidetzan aritzeko eta laguntza finantzarioa emateko prozesu bat abiaraztea, NBEak eskuratzeko ETE, mikroETE eta autonomoentzat.

IX. Alderdiek hitzartu dute aipatutako eragiketaren baldintzak idatziz formalizatzea, eta hala egin dute ETE, MIKROETE ETA LANGILE AUTONOMOENTZAT NBE-AK ESKURATZEKO LANKIDETZARAKO ETA ZUBI-LAGUNTZA FINANTZARIORAKO HITZARMEN hau dela bide, zeinak estipulazio hauek izanen baititu

## **ESTIPULAZIOAK**

---

### **Aurretizkoa. - DEFINIZIOAK**

**Enpresak:** Hitzarmen honen ondorioetarako, enpresatzat joko dira egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatean duten edo komunitatean enpresa jardueraren bat egiten duten ETEak, mikroETEak eta langile autonomoak.

Halaber, materialaren eskaeretan soberakinak daudenean eta erosteko lehentasunezko beste kanalik ez badute, hitzarmenari heltzen ahalko diote 250 enplegatu finko baino gehiago dituzten erakundeek, betiere egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatean badute edo komunitatean enpresa jardueraren bat egiten badute.

**Elkartekak:** Hitzarmen honen ondorioetarako, elkartetzat joko dira enpresak batzen dituzten erakundeak, betiere enpresaren aurreko definizioaren arabera enpresak badira.

**NBEak:** Hitzarmen honen ondorioetarako, NBEak izanen dira, aplikatzeko araudiak nahitaezkozat edo gomendagarritzat jotzen dituenen barruan, hitzarmen honen testuinguruan merkatuan eskuraztea erabakitzen den norbera babesteko elementuak. Hitzarmen honen xede diren NBEak aldatu egin ahal izanen dira enpresen beharizanen arabera, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera eta osasunaren arloko gomendioen arabera.

### **Lehenbizikoa. PRODUKTUEN ESKURAKETA ETA BIRSALMENTA. CEN-EN BITARTEKARITZA**

#### 1.1. Xedea

ALBYN MEDICALek konpromisoa hartzen du NBEak eskuratzeko merkatu nazionalean edo nazioartekoan, gero CENi helarazteko, zeinak enpresei edo elkartei helarazi eta emanen baitizkie, hurrengo 1.3 apartatuan ezarritako prozedurarekin bat.

Aurreko konpromisoaren barruan, ALBYN MEDICALek ahalegin guztiak egingen ditu NBEak merkatuan aukeratu eta aurkitzeko, prezio eskuragarrietan eta emateko zentzuzko epeetan, baina ezin izanen da jo emaitzari lotutako betebehartzat.

#### 1.2. Salneurriak

1.2.1. ALBYN MEDICALek CENi NBEak saltzeko prezioa hau izanen da: ALBYN MEDICALek erositako NBEen eskurapen-kostua gehi % 3,5.

Ondorio horietarako, batura hau joko da NBEen eskurapen-kostutzat: (i) hornitzaileari ordaindutako prezioa; (ii) garraioaren kostuak, eta (iii) NBEak inportatzeko, ALBYN MEDICALek bere gain hartutako beste edozein kostu. Guztiak eurotan zenbatuko dira. (aurrerantzean, ALBYN MEDICAL enpresaren salneurria).

Ateratako prezioari kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zergak gehituko zaizkio.

1.2.2. CENek enpresei edo elkarteei NBEak saltzeko prezioa ALBYN MEDICALen salneurriaren baliokidea izanen da. Ateratako prezioari kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zergak gehituko zaizkio.

### 1.3.NBEak ematea

1.3.1. ALBYN MEDICAL arduratuko da eskuratutako NBEak CENek ondorio hauetarako Nafarroako Foru Komunitatearen barruan zehaztutako kokapen logistikoetan emateaz. Kokaleku horiek CENek eskatuta aldatzen ahalko dira , baina beti Foru Komunitatearen lurraldearen barruan. Kokaleku baten aldaketak ez du izanen eraginik aribideko eskaeretan, ALBYN MEDICALek eta CENek kontrakoa adosten dutenean izan ezik.

1.3.2. CEN arduratuko da ALBYN MEDICALi erositako NBEak enpresa edo elkarte bakoitzari helarazteaz.

### **Bigarrena.** - LAGUNTZA FINANTZARIOA

SODENAK konpromisoa hartzen du laguntza finantzarioa emateko, zubi-kredituen bidez. Gehienez, bi milioi euro (2.000.000.-€) emanen ditu, eskaera bakoitzean NBEen hornitzaileei aurreratu behar zaizkion kopuruak emanda ALBYN MEDICALi.

Alderdiek adostu dute SODENAK bankuko transferentzien bidez gauzatuko duela aipatutako laguntza finantzarioa. Transferentziak ES:----- IBAN zenbakia duen kontu korrontera eginen dira, zeinaren titular baitira SODENA eta ALBYN MEDICAL. Hitzarmen hau gauzatzeko zabaldu da berariaz kontu hori (aurrerantzean, kontu korrontea).

ALBYN MEDICALek konpromisoa hartzen du kontu korrontea hitzarmen honetatik eratorritako eragiketarako soilik erabiltzeko.

Hitzarmen honen indarraldia amaitzen denean, SODENAK berreskuratu eginen du kontu korrontean dagoen saldoa, bere titulartasun eskusiboko kontu korronte batera transferentzia eginda. SODENAK eta ALBYN MEDICALek beharrezkoak diren izapideak eginen dituzte kontu korrontea ixteko.

### **Hirugarrena.** PROZEDURA.

#### 3.1. NBEen behararen balorazioa eta eskuratzeko erabakia.

3.1.1. Hitzarmen honen xede den NBEak eskuratzeko prozesuaren onuradun izan nahi dutela adierazten duten enpresek edo elkarteek jakinarazitako beharrei buruzko informazioa jasoko du CENek. Horretarako, CENek berariazko postontzi elektronikoko bat sortuko du, eta CENen ardura izanen da ETEek, mikroETEek eta langile autonomoek hitzarmen honetan enpresatzat jotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

3.1.2. Eskaerak hiru (3) hilabeterako aurreikusitako beharrak betetzeko eginen dira. Aurrekoa gorabehera, jakinarazten da, dagoen premia kontuan hartuta, hitzarmen hau formalizatu aurretik ALBYN MEDICALek FFP2 motako 257.200 maskara eskuratu dituela. Data honetatik aurrera, haien tramitazioan, ematean eta fakturazioan, hitzarmen honetan xedatutakoa aplikatuko da.

3.1.3. Aurreko 3.1.1 apartatua dela bide lortutako informazioa oinarritzat hartuta eta merkatuan NBEak eskuratzeko identifikatutako aukerak kontuan hartuta, CENek, SODENAK eta ALBYN MEDICALek egin behar diren eskuraketak baloratuko dituzte, erabakitzeko ea zer eskaera egin behar diren eta zein baldintzatan. Lan hori egiteko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laguntza eta aholkularitza izanen dute, eskuratu daitezkeen produktuen ezaugarri teknikoak araudiarekin bat datozela egiaztatzeko. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laguntza eta aholkularitza izanen dutenez, CENek, SODENAK eta ALBYN MEDICALek ez dute inolako erantzukizunik izanen eskaera horietako NBEen

desegokitasunaren ondorioz, eta enpresek eta elkarteek beti ordaindu beharko dituzte fakturak. Aurrekoa horrela izanda ere, egoera horretan egonez gero, alderdiek ahal duten guztia eginen dute guztientzako irtenbide merkeena lortzeko.

ALBYN MEDICALek mezu elektronikoa bat bidaliko die CENi eta SODENARI, zeinean produktuak eskuratzeko hartutako erabakiak zehaztuko baitira, hornitzailearen datuak, eskuratuko diren NBEen xehetasuna, haien zehaztapen teknikoak, prezioa eta ordaintzeko era barne.

### 3.2. Funtsak baliatzeko baimena.

SODENAK aurreko apartatuan aipatutako mezu elektronikoa jaso ondoren, egin beharreko ordainketa aurreratuaren zenbatekoa ordaintzeko behar diren kopuruak (hornitzaileari ordaindu beharreko zergak barne, halakorik ordaindu behar bada) transferituko ditu kontu korrontera, muga bi milioi euro (2.000.000.-€) dela, eta, posta elektronikoz, jakinarazpen bat bidaliko dio ALBYN MEDICALi, baimena emateko ALBYN MEDICALek behar den zenbatekoaren transferentzia egin dezan hornitzailearen edo hornitzaileen alde.

### 3.3. Hornitzailearentzako eskaera.

Eskuratzeko erabakia hartuta eta funtsak kontu korrontera transferitu ondoren, ALBYN MEDICALek eskaera irmoa eginen dio dagokion hornitzaileari (edo hornitzaileei), eta dagozkion zenbatekoak ordainduko ditu.

### 3.4. Enpresen eskaeraren agindu formala V ordainketa

Ahal den unean, ALBYN MEDICALek informazio hau emanen dio CENi: eskuratutako NBE guztiak edo batzuk noiz helduko diren (aurreikuspena), ALBYN MEDICALen salneurria eta NBEen zehaztapen teknikoak. Eskaera bera partez heltzen bada, prozesu hau emate bakoitzean errepikatuko da. Halaber, emate partzialen kasuan, modu proportzionalen emanen zaizkie NBEak enpresei edo elkartei, bakoitzaren eskaeraren bolumenak eskaera osoaren bolumenari dagokionez suposatzen duen proportzioan.

Informazio hori jaso ondoren, CENek enpresei eta elkartei helaraziko die, haietako bakoitzak eskuratu nahi dituen NBEak eskatzeko agindu formala egin dezan.

Enpresen eta elkarten eskaeraren agindu formala jaso ondoren, CENek eskaera bakoitzari dagokion faktura eginen du; enpresak edo elkarteak faktura ematean ordaindu beharko du, eta, beranduenez, faktura jaso eta hurrengo hiru (3) egun baliodunen barruan.

### 3.5. CENentzako fakturaren jaulkipena

CENek enpresen eta elkarten izenean egindako faktura guztiak kobratu ondoren, CENek horren berri emanen dio ALBYN MEDICALi, zeinak faktura eginen baitu CENen izenean. ALBYN MEDICALek egindako fakturak aurkeztean ordaindu beharko dira, titular den kontuan (IBAN zenbakia: ES ----- ).

ALBYN MEDICALek egindako faktura ordaintzea ezinbesteko baldintza izanen da CENek enpresei eta elkartei NBEak banatzeko.

### 3.6. SODENARI funtsak itzultzea.

CENen ordainketa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan, ALBYN MEDICALek eskaera horren ordainketa aurreraturako kontu korrontearen kargura jasotako zenbatekoa itzuliko du, kontu korrontera egindako bankuko transferentziaren bidez.



SODENAK bere gain hartuko ditu ALBYN MEDICALek hemen azaldutako prozeduragatik egin beharreko bankuko transferentzien kostuak. Horretarako, ALBYN MEDICALek dokumentu bidez justifikatu beharko ditu jasandako kostuak.

### 3.7. Ordainketarik ez eskatzeko konpromisoa.

SODENAK konpromisoa eta betebeharra hartzen du ALBYN MEDICALi emandako zenbatekoak itzultzeko ez eskatzeko (osorik eta zati bat) CENek dagozkion fakturak ordaindu arte.

### 3.8. Interesak.

SODENAK NBEak eskuratzeko aurreratutako zenbatekoek ez dute interesik sortuko haren alde. Aurrekoaren salbuespen gisa, alderdiek adostu dute, ALBYN MEDICALek ez badizkio SODENARI dagozkion zenbatekoak itzultzen aurreko 3.6 apartatuan adierazitako bost (5) eguneko epean, ehuneko bateko (% 1) berandutza-interesak sortuko direla berrogeita zortzi orduko epea bete eta hurrengo egunetik hasita ALBYN MEDICALek zenbatekoak itzultzen dituen egunera arte.

### Laugarrena. - OROKORRAK.

4.1.- Eskubideei uko egitea. - Hitzarmen honekin bat etorrira, alderdietako batek izan dezakeen eskubideetako bat ez baliatzea ez da interpretatuko uko egite bezala.

4.2.- Lagatzeko debekua. Alderdiek ezin izanen dituzte laga hitzarmen honetan hitzartutako eskubideak eta betebeharrak.

4.3.- Kontratuaren deuseztasun partziala. - Dokumentu honen xedapen baten deuseztasunak ez du ekarriko haren erabateko deuseztasuna, xedapen deuseza hitzarmena osorik betetzeko funtsezkoa denean izan ezik.

4.4.- Jakinarazpenak. - Hitzarmen honen barruan alderdien artean egindako jakinarazpen eta komunikazio guztiak honela egingen dira, idatziz: (a) zuzenean, beste alderdiaren idatzizko hartu izanaren agiriarekin; (b) notarioaren bidez; (c) posta elektronikoaren edo posta arruntaren bidez, edo (d) beste edozein bide baliatuta, betiere hartzaileak edo hartzaileek jaso dutela frogatzeko modua badago. Hala ere, hirugarren estipulazioan araututako komunikazioak posta elektronikoaren bidez egingen dira nahitaez.

Alderdien arteko komunikazioak eta jakinarazpenak hartzaileei bidali behar zaizkie, eta pertsona hauen izenean egon behar dute:

- ALBYN MEDICAL SL

Norentzat: Luis Collantes Niño jauna eta Juan Soloaga Echarri jauna

Helbidea: Cordovilla industrialdea, D kalea, 1. zenbakia. Cordovilla (Nafarroa). Helbide elektronikoa:

- CONFEDERACIÓN DE EMPRESARIOS DE NAVARRA

Norentzat: Carlos Fernández Valdivielso jauna eta Silvia Zozaya Garralda andrea

Helbidea: Huarte doktorearen kalea 3. Iruña (Nafarroa). Helbide elektronikoa: .

- SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL

Norentzat: MARÍA EUGENIA LECUMBERRI ALLI andrea eta ÓSCAR ARRIAGA jauna. Helbidea: Karlos III.a etorbidea 36, 12. eskuina, Iruña (Nafarroa), helbide elektronikoa: .

Jakinarazpenetarako, hitzarmen honen goiburuan adierazitako helbideak aldatzen ahalko dituzte alderdiek, eta idatziz eman beharko diete horren berri alderdiei, gorago adierazitako eran.

Hitzarmen hau dela eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari egiten zaizkion komunikazioak hona bidaliko dira:

Helbide elektronikoa:

4.5.- Jurisdikzioa. Hitzartutako konpromiso arbitralaren barruan beharrezkoa den guztirako, alderdiek men eginen diete epaitegiei eta Iruñeko plazako Espainiako auzitegiei, beren foru propioari uko eginda, hala-korik badute.

**Bosgarrena** - INDARRALDIA

Hitzarmen hau indarrean izanen da 2020ko abenduaren 31ra arte. Mugaegunera iritsita, luzatzen ahalko da, alderdiek adostuta. Idatziz formalizatu beharko da.

Salbuespenez, data horretara iritsita eskaeraren bat aribidean badago, hitzarmen honen indarraldia automatikoki luzatuko da eskaera hori izapidetzeko, eta soilik horretarako, hirugarren estipulazioan deskribatutako prozedura amaitu arte.

Eta ados daudela azaltzeko, alderdiek dokumentu hau sinatu dute, elektronikoki, sinadura aurreratuko prozesuaren bidez, SIGNATURIT SOLUTIONS SL merkataritzako sozietatearen plataformaren bitartez. Enpresa horrek Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren aitortpena du zerbitzu elektronikoen emaile gisa, eta konfiantzako hirugarrena da Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei buruzko Legearen arabera (IGZL, 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoa).

ALBYN MEDICAL SL

p.p. Luis Collantes Niño jauna

CONFEDERACIÓN DE EMPRESARIOS DE NAVARRA

p.p. José Antonio Sarría Terrón jauna

SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL

p.p. M<sup>a</sup> Pilar Irigoien Ostiza andrea

## ERANSKINA, PANDEMIA GARAIAN ETE, MIKROETE ETA LANGILE AUTONOMOENTZAT BABES MATERIALA (NBE) EROSTeko LANKIDETZARAKO ETA ZUBI-LAGUNTZA FINANTZARIORAKO HITZARMENARENA

José Ramón Mora Martínez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onetsi dituen irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuaren 15.2.j) artikuluan ezarritakoa dela bide, hau formalizatu du, erakunde autonomo horren izenean eta haren ordezkari den aldetik, ALBYN MEDICAL SL, CONFEDERACIÓN DE EMPRESARIOS DE NAVARRA eta SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL erakundeek sinatuko duten hitzarmenaren berri izan duenean, dagokion ordezkaritza baliatuta:

### SOBERAKO STOCK-A ESKURATZEKO KONPROMISOA

Aparteko edo salbuespeneko edozein inguruabar dela eta, eskaera bakoitza jaso ondoren, eskuratu baina enpresa eta elkartei helarazi ez zaizkien erabilera sanitarioko NBEak izanen balira, O-NOZek NBE horiek eskuratuko ditu, hitzarmen horren alderdiei errekerimendua egin ondoren, betiere baldintza hauek betetzen badira:

- Konpromisoa erabilera sanitarioko NBEetarako baino ez da; ez dira sartzen hitzarmen horren babesean eskuratutako bestelako NBEak.

- Erabilera sanitarioko NBEen erosketa prezioa ALBYN MEDICALen salneurria izanen da.

- O-NOZek konpromisoa eta betebeharra hartzen du erabilera sanitarioko NBEak hartzeko eta ALBYN MEDICALek horretarako egindako faktura ordaintzeko.

- O-NOZek ez du konpromisorik hartzen enpresen edo elkarten borondatezko uko egiteen ondoriozko soberakinak hartzeko.

■ O-NOZek ez du konpromisorik hartzen eskaera bakoitzeko materialaren % 10 baino gehiago eskuratzeko, hitzarmen honen 3.3 apartatuan ezarritakoaren arabera.

Eta aurretik esandakoa behar bezala jasota gera dadin, dokumentu hau egin da, Iruñean, 2020ko maiatzaren 7an.

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

José Ramón Mora Martínez

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK****KONTUEN GANBERARI**

María Eugenia Lecumberri Alli andreak 29.138.333R NAN zenbakia du, eta SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL (SODENA) merkataritzako sozietatearen izenean eta ordezkari izan da. Sozietatea Iruñean (Nafarroan) du helbidea, zehazki, Karlos III.a etorbideko 36. zenbakiko 1. eskuinean. Sozietateak Nafarroako Merkataritzako Erregistroan inskribaturik dago, 1.589. liburukian, 165. folioan, NA-31.554 orrian, 1. inskripzioan, eta IFK B/71069868 du. María Eugenia Lecumberri Alli andrea erakunde horren aurrean agertzen da, eta, egokien den moduan, HAU DIO:

Nik ordezkatzeko dudako sozietateari 2022ko abenduaren 7an jakinarazi zaiola “Pandemia garaian ETE, MikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako akordioa”ren gaineko fiskalizazioaren behin-behineko txostena, bai eta alegazioak aurkezteko epea ere, abenduaren 14a artekoa.

Emandako epearen barruan, honako ALEGAZIO hauek aurkezten dituela:

**ALEGAZIOAK****ATARIKOAK. – CEN-EKIN ETA ALBYNEKIN SINATUTAKO AKORDIOAREN (AKORDIOA) ESPARRUA ETA AURREKARIAK.**

-1.a-

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako Gobernuak alarma egoera deklaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Hau dio arau horren atarikoak:

*“Esparru horretan, arau honen bitartez ezarritako neurriak ekintza erabakigarriak dira Gobernuak herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasunaren progresioari eusteko eta osasun publikoaren sistema indartzeko. Gobernu maila guztietan hartu diren aldi baterako ezohiko neurriak atzerapenik gabe aragoitu behar dira, birusari aurrea hartzeko eta geldiarazteko eta inpaktu sanitario, sozial eta ekonomikoa ahalik eta gehien txikiagotzeko.*

*Egoera larri eta salbuespeneko horri aurre egiteko, ezinbestekoa da alarma-egoera deklaratzeari.*

*Errege dekretu honetan jasotzen diren neurriak ezinbestekoak dira egoerari aurre egiteko, egoeraren larritasunaren arabera, eta ez dute eragiten oinarriko eskubideak eteterik, Konstituzioaren 55. artikuluan ezartzen den bezala”.*

Adierazpen horren ondorioz, era berean, aski ezaguna denez, funtsezko zerbitzuak eman ezean, gainerako Espainiako herritarrek konfinamendua bete behar izan zuten, mugitzeko muga zorrotzak ezarrita.

Era berean, garai hartan herritarrak zein enpresariak ezohiko alarma egoeran bizi ziren gizartearen, osasunaren eta ekonomiaren arloetan: egunero ehunka pertsona hil ziren; osasuneko langileek ez zituzten beren burua babesteko bitartekorik (NBE), horiek eskuratzea ezinezkoa zelako; enpresa-sarea osatzen duten langileak babesgabe zeuden; ospitaleko eta larrialdietako zerbitzuak gainezka zeuden eta abar. Horrek guztiak, jakina, botere publiko guztien berehalako erantzuna eskatzen zuen, hau da, Administrazioarena eta haren sektore publiko instituzional guztiena.

-2.a-

Erantzun hori (benetako ezinbesteko egoeratzat jo daitekeen egoera baten aurrean) lege, errege dekretu, ministerioen agindu, lege dekretu, foru agindu, ebatzen, arau eta mota guztietako proposamenen multzo handi baten bidez iritsi zen. Horietako batzuk Nazioko Gobernutik eta Estatuko Administrazio Orokorretik etorri ziren; eta beste batzuk, berriz, Nafarroako Gobernutik eta haren departamentuetatik.

Arau multzo horrek neurri mota guztiak mobilizatu zituen, hala nola fiskalak, lanekoak, osasunekoak, kontratukoak, enpresakoak, epeak eta prozedura administratiboak eta judizialak etetea, laguntzak eta dirulaguntzak, maileguak, inbertsioak eta abar. Hori guztia egin zen kutsatzea saihesteko, bizitzak salbatzeko, COVID-

19aren hedapena geldiarazteko eta, aldi berean, ekonomiari eusteko, enpresa ehunaren eta enpleguaren gaineko eragin negatiboa minimizatze aldera.

Zehazki, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuan (geroago Nafarroan erreplikatu zen, haren ahalmenen barruan) hau ezartzen da zioen azalpenean:

*«Osasun krisia ekonomiara eta gizartera hedatzen ari da abiadura bizian, eta horrek ondorioak ditu, bai ekoizpen jardueran, bai herritarren eskaeran eta ongizatean. Ekonomiari bide desberdinetatik etorri zaio kaltea, COVID-19aren agerpenak denboran eta lurraldeetan zehar izan duen bilakaeraren arabera, eta zenbait faktore bereiz daitezke.*

(...)

*Testuinguru honetan, ekonomiaren arloan erabateko lehentasuna du ekoizpen eta gizarte sareari babesa eta sostengua emateak, inpaktua ahal den txikiena izan dadin, eta, behin osasun alarma bukatuta, jarduera lehenbailehen susper dadin. Saihestezina da COVID-19aren pandemiak Espainiako ekonomia kaltetzea, baina, kalte hori norainokoa izan den zehazteko, zalantza handiak daude oraindik. Egoera honetan, lehene-tsi behar da inpaktu soziala ahal den neurrian gutxitzea eta jarduera bere onera itzultzen laguntzea, betiere osasun egoerak hobera egin bezain laster. Helburua da ondorio kaltegarri horiek iragankorrak izatea eta, azken batean, 2008-2009 aldikoa bezalako eskariaren eta ekoizpenaren erorketen gurpil zoro baten ondorioz inpaktu iraunkorragoa edo estrukturalagoa gerta ez dadin, langileak langabezian ez egoteko, eta aldi baterako langileentzat eta autonomoentzat bereziki zorrotza den egokitzapen bat egin ahal ez izateko.*

(...)

*Zehazki, errege lege-dekretu honetan hartutako neurriek helburu hirukoitza dute.*

*Lehenik, langile, familia eta kolektibo kalteberen babesa indartzea; bigarrenik, produkzio jardueraren jarraitutasuna eta enplegua babestea; eta hirugarrenik, gaixotasunaren aurkako borroka indartzea.*

Horregatik, NBEz hornitzeari dagokionez, aparteko neurri bereziak hartu ziren, NBEak presaz eskuratzeko. Horiek horrela, martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuak premiazko neurriak onartu zituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta 15. artikuluan hau xedatu zuen argi eta garbi:

*“1. Nafarroako administrazio publikoek COVID-19ari aurre egiteko nolanhiko neurriak, zuzenekoak zein zeharkakoak, hartzen badituzte, berehala jarduteko beharra justifikatuko da Kontratu Publikoetarako buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan xedaturik dagoenaren babesean.*

*2. Aurreko apartatuan ezarritakoarekin bat, larrialdiko izapidetzea aplikatuko zaie Nafarroako administrazio publikoek edo haien erakunde publikoek, entitate instrumentalek eta zuzenbide publikoko entitateek egin beharreko kontratu eta mandatu guztiei, halakoak egiten dituztenean pertsonak babesteko premiez eta COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuek arduratzeko.*

*3. Pertsonen osasuna COVID-19 gaitzetik babesteko neurriak hartzen direnean, sorturiko gastuei aurre egiteko, justifikatzeke egingen da funtsen ordainketa-agindua.*

*4. Gaikuntza ematen zaie kontratazio organoei berek sinatu dituzten kontratuak aldatzeko, pertsonak babesteko premiez eta COVID-19ari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak harturiko beste neurri batzuek arduratzeko. Kasu horietan larrialdiko izapidetzea erabiliko da.*

*5. COVID-19aren ondorioz, horniduretarako eta ekipamendu-erosketetarako kontratazio espedienteak larrialdiko prozeduraren bidez izapidetu behar direnean, Kontratu Publikoetarako buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan ezarritakoaren arabera, halakoak salbuetsirik egonen dira aurretiazko kontuhartzea egitetik fase guztietan, azken horietan barne hartzen direla justifikatzeke ematen diren ordainketa-aginduak, horrek galarazi gabe aipatu artikuluen bigarren paragrafoko b) letran xedaturik dagoena.*

*Apartatu honetan ezarritakoa aplikatuko zaio COVID-19aren ondorioz egiten den eta aurreko paragrafoan sartu ez den beste kontratazio espediente orori, baldin eta larrialdiko prozeduraren bidez izapidetu behar bada.*

Era berean, Koronabirusaren (COVID-19a) ondoriozko osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premia neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 3. artikuluan hau ezartzen da:

*“COVID-19aren ondorioz gauzatzen diren horniduretarako eta ekipamendu erosketetarako kontratazio prozeduretan, ordainketa guztiak edo batzuk kontratistak zerbitzua eman aurretik egin ahalko dira, baldin eta, merkatuaren egoera dela-eta, ezinbestekoa bada. Horrelakoetan, hartutako erabakia jasoko da espedientean, eta arrazoiak azalduko dira labor-labor.*

Neurri horiek argi erakusten dituzte pandemiaren lehen hilabeteetako testuingurua eta salbuespenezko premia publikoak eta pribatuak; beraz, aparteko egoera horretan, aparteko erantzuna eman behar zen.

Kontuan hartu behar da garai hartan oso zaila eta konplexua zela NBEak (nazioarteko merkatutik zetozenak) eskuratzea. Egindako eskaera bakoitza alde aurretik ordaintzea eskatzen zitzaizen enpresa hornitzaileei, eta, askotan, guztiz ezinezkoa zen, munduko eskari masiboaren eta eskaintzaren arteko proportzioa neurrigabea zelako.

-3.a-

Esku artean dugun gaiari dagokionez, horiek ez ziren izan neurri esanguratsu bakarrak. Apirilaren 6ko 6/2020 eta 7/2020 foru legeek premiazko neurriak onesten dituzte koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta foru lege horiek 2020ko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen 14. artikulua aldatu zuten, besteak beste, sozietate publikoek (eta Sodena haietako bat da) ematen dituzten maileguen gehieneko zenbatekoa eta gehieneko arrisku bizia handitzeko.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak Sodenari maileguak emateko hiru baimen eman zizkion, eta haietako azkena COVID-19aren ondoriozkoa izan zen, espezifikoki. Baimen horiek aurrerago zehaztuko ditugun arren, gure iritzia babesten dute, edo, zehatzago esanda, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren xedea den akordioa babesten dute.

-4.a-

Egoera horretan, urte bereko martxoan, OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAK (aurrerrantzean, O-NOZ) Sodenari eskatu zion material sanitario homologatua erosteko kanal seguru bat sortzeko, kanal horrek nazioko edo nazioarteko produktuak eta hornitzaileak aurkitzeko ezagutza eta esperientzia eskatzen zituelako. Horregatik, 2020ko apirilaren 3an hitzarmen bat sinatu zuten O-NOZek, Sodenak eta sektore biomedikoko hiru enpresak (haietako bat Albyn zen), eta baimena zuten nazioarteko merkatuarekin harremanetan jartzeko eta inportazioak egiteko.

Era berean, kontuan hartuta 2020ko apirilaren 9an amaitu zela funtsezkoak ez ziren sektoreen industriako jarduera eteteko aldia<sup>19</sup>, eta, horren ondorioz, sektore horietako milaka langilek berriro lanera itzuli behar zutelara, eta, nolahi ere, nahitaezko osasun babes behar zutelara, 2020ko maiatzaren 7an Sodenak, CENek eta ALBYN enpresak sinatu zuten Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren xedea den akordioa, hain zuten ere.

Bereziki adierazgarriak dira Akordioaren azalpen zatiaren III. puntutik VIII.era bitartekoak. Haietan hau irakur daiteke:

*“III.- Apirilaren 9an amaitu zen martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritako baimen ordaindu berreskuragarriaren epea, besteren kontura lan egiten duten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat ezarritakoa. Hori dela eta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera jarduera eten ez zuten enpresa asko lanera itzuli dira.*

*IV. Eremu publikoan zein pribatuan, kezka handia dago lanaren segurtasuneko baldintzak lanera itzultzean bermatzeko. Hori dela eta, Osasun Ministerioak protokolo eta jardunbide egokiei buruzko gidak eman ditu horri buruz, eta, bereziki aipatu da langile guztiek beren burua babesteko ekipamenduak erabili behar*

<sup>1</sup> Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez onartu zen. Manu horren bitartez, baimen ordaindu berreskuragarria arautzen da besteren konturako langileentzat, funtsezko zerbitzuak ematen ez badituzte, COVID-19aren aurkako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko.

*dituztela. Nafarroako Foru Komunitatean Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua laguntzen ari da enpresetan erabili behar den babes materialen ezaugarri teknikoak zehazten.*

*V. Nafarroako Gobernua eta, zehazki, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua keztatuta daude, Nafarroako enpresek eta industriek behar bezalako segurtasun baldintzetan berreskuratu behar baitute jarduna, eta osasun agintarien gomendioak bete behar direlako, eta Nafarroako enpresei norbera babesteko ekipamenduen banaketa eta horniketa bermatu behar zaielako.*

*Horiek horrela, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak, Sodenarekin koordinatuta, apirilaren 14an bilera telematikoak egin zituen Nafarroako enpresaburuen elkarteekin eta sektoreko ordezkariekin. Helburuak egungo horniketaren egoerari buruzko informazioa bertatik bertara ezagutzea eta NBEen egungo hornidura bermatzeko aukerak ere ezagutzea eta aztertzea ziren.*

*VI. Bileretatik ondorioztatu da Nafarroako Foru Komunitatean jarduten duten ETEek, mikroETEek eta langile autonomoek norbera babesteko ekipoen premia nabariak dituztela, jarduna behar bezala berreskuratu ahal izateko, baina egungo merkatuan zaila dela banaka erosi ahal izatea.*

*VII. CENek honako hau eskaini duela: (i) ETEen, mikroETEen eta langile autonomoen eskaera koordinatzea, entitate horiek CENeko kide izan zein ez; (ii) NBEak erosteko bitartekaria izatea; horretarako, ALBYN MEDICAL entitateari erosiko dizkio produktuak, eta gero ETEei, mikroETEei eta langile autonomoei banatu eta entregatuko dizkie.*

*VIII. Alderdiek azaldutako guztia kontuan hartu eta erabaki egin dute lankidetzari eta finantzaketa laguntzari buruzko prozesua martxan jartzeko. Prozesu horren helburua NBEak erostea eta ETEei, mikroETEei eta langile autonomoei NBE horiek ematea da. Alderdiek honako hauek oinarritzat hartu dituzte erabaki hori hartzeko: batetik, ALBYN MEDICAL, Sodena eta O-NOZek egin duten osasun produktuak erosteko lankidetzari eta finantzaketari buruzko indarreko akordioaren esperientzia; eta, bestetik, CENen bitartekaritza eta koordinazioa egiteko rola”.*

Beraz, zalantzarik gabe, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak bultzatu zuen Akordioa, Sodenarekin koordinaturik, eta, horrez gain, CENek ere bermatu zuen. Akordio horrek premiazko eta behar bezala arrazoituta eskakizun publiko bati erantzuten zion: zerbitzu publikoaren eskakizun bati, aurreikusitako ezin zen salbuespeneko egoera bati. Hori agerikoa da, eta edonork uler dezake.

Era berean, berriro aipatzen dugu Sodenak Nafarroako Gobernuaren baimena zeukala, hamar milioi arteko maileguak emateko (zenbateko hori gerora handitu zen); beraz, sortutako larrialdiari eta premiari erantzuteko behar ziren legezko tresnak erabilgarri zeuzkan.

-5.a-

Nabarmenezkoa da eragiketa horiek Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa (CPEN) jakitun izanda eta ados jarrita egin zirela. Korporazio hori Foru Administrazioaren sozietate publikoen sozietate nagusia da, eta Sodenaren bazkide bakarra. Administrazio kontseilu guztietan parte hartzen du, hitzarekin baina botorik gabe, eta, kasu horretan, egindako zortzi bilkuretan ere parte hartu zuen. Bilkuretan O-NOZentzat zein ETE, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko finantza laguntzari buruzko gaiak jorratu ziren.

Era berean, akordio horiek publikoak eta ezagunak izan ziren, eta Sodenaren eta hedapen orokorreko prentsa ohar eta hedabideetan haien berri eman zen, sareko bilaketetan ikus daitekeen bezala.

Nafarroako Parlamentuari ere horren berri eman zitzaion, 10-21/PEI-00115, 10-22/PEI-220 eta 10-22/PES-130 txostenetan ikus daitekeen bezala.

Beraz, azpimarratu egin behar da Sodenak gardentasun osoa izan zuela CPENekin (bazkide bakarrarekin), Nafarroako Parlamentuarekin eta, oro har, gizartearekin. Izan ere, hainbat agerraldi egin ziren: Nafarroako lehendakari andrea bera, apirilaren 30ean, osoko bilkuraren aurrean agertu zen, eta NA+ talde parlamentarioaren galdera bati erantzun zion, eta Ayerdi kontseilariak, berak eskatuta, egindako beste galdera bati erantzun zion maiatzaren 6an. Horrez gain, Sodenak berak hiru prentsa ohar eman zituen (hietako bat O-NOZekiko kanalari buruzkoa; eta gainerako biak, CENekiko kanalari buruzkoak, erakunde horrekin adostuta), bai eta hedabide orokorretan egindako beste asko ere, eragiketaz azaltzeko.

-6.a-

Laburbilduz, behin betiko kontuetan, 2020ko apirilko eta maiatzeko eragiketak eta erabakiak gardentasun osoz, fede onez eta arduraz hartu ziren, zerbitzu publikoan Nafarroako enpresak eta enpresen ehuna mantentzeko bete behar ziren eskakizunak beteta, eta, jakina, garrantzitsuena dena, larrialdi pandemikoko egoera nazional eta mundial batean, ohiz kanpoko, salbuespenezko, premiazko, larritasun handiko eta aurreikusi ezi-nezko egoera batean, berehalako ekintza arduratsu eta eraginkorrak behar baitziren.

Horri dagokionez, gure ustez eta zalantzarik gabe, oinarritzko premisatzat beti hartu behar da Nafarroako Gobernuaren baimenek Akordioa babesten dutela. Horrez gain, oso garrantzitsua da aipatzea Kode Zibileko 3.1 artikuluan hau ezartzen dela: “*Arauk euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta*”.

Era berean, Sodenak, sektore publiko instituzionaleko erakundea izanda, bere jardunean eta harremanetan, besteak beste, enpresen ehunari zerbitzu eraginkorra emateko printzipio orokorrak eta kudeaketa publikoarekiko erantzukizuna errespetatu behar ditu. Printzipio horiek, behin eta berriz errepikatzen badugu ere, NBEak eskuratzeko akordioak gidatu zituzten, legearen, Nafarroako Gobernuaren baimenen eta, zalantzarik gabe, premiazko neurriak eta erantzunak eskatzen zituen egoera baten arabera asmatuta eta egokituta.

### **LEHENA. – AKORDIOA SINATU AURRETIK NAFARROAKO GOBERNUAREN ALDEZ AURRETIKO BAIMENA BEHAR IZATEARI BURUZ. SODENAK PROZEDURA HORRETAN EZ DU INOLAKO AKATSIK EGIN.**

1. Behin-behineko txostenaren III. atalean, zehazki, Kontuen Ganberaren ondorioei eta gomendioei buruzkoan, besteak beste, hau jaso da, hitzez hitz (zati batzuk geuk azpimarratu ditugu):

“• *Ganbera honek uste du Sodenak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar izanen ziola, aztergaitzat hartu dugun akordioa eta O-NOZi NBEak emateko akordioa sinatu baino lehen.*

*Horri buruz, eta Sodenaren jarduna egoeraren arabera hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar dira honako gogoeta hauek:*

*a) Ez dugu ebidentziarik lortu, Sodenak araudiaren aurka nahita jardun izana frogatzeko. Era berean, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren eranskin gehigarriari erakunde horrek egin zizkion alegazioen arabera, Sodenak uste zuen 2020ko otsailaren 26ko Gobernu Erabakiaren babesa zuela, erabaki horrek maileguak emateko baimena ematen ziolako. Hori hobeto zehaztu da txosten honetako VI.3 epigrafean.*

*b) Kontuan hartu behar da egoera hori salbuespenezkoa zela, pandemiaren eta alarma egoeraren ondorioz.*

*c) Akordio hau gardentasun eta publikotasun osoz egin zen”.*

Era berean, “Akordioari buruz Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak agerian utzi dituen hutsuneei buruzko azterketa”ren gaineko txostenaren VI.2 atalean hau ezartzen da, besteak beste (geuk azpimarratu eta letra lodiz bereizi ditugu atal batzuk):

“*Segidan azalduko ditugu Ganbera honek egindako azterketaren ondorioak, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak 2020ko abenduaren 31ko emaitzen laburpen-txostenari erantsitako eranskinean adierazitako hutsuneei buruz:*

• *Sodenak Gobernuari akordio hori egiteko baimena eskatu beharrari dagokionez, berme horien xedeari eta baldintzei lotutako ohiko estandarren arabera aztertzen bada, sozietate horrek egindako eragiketa ez da bat etortzen kasu tipiko batekin, eta, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak adierazi duen bezala, eragiketa berezia da. Ganbera honek uste du Sodenak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar izanen ziola, aztergaitzat hartu dugun akordioa eta O-NOZi NBEak emateko akordioa sinatu baino lehen. Eragiketa hori testuinguruan jartze aldera, honako gogoeta hauek egin behar ditugu:*

*a) Ez dugu ebidentziarik lortu, Sodenak araudiaren aurka nahita jardun izana frogatzeko.*

*b) Kontuan hartu behar da egoera hori salbuespenezkoa zela, pandemiaren eta alarma egoeraren ondorioz.*



c) Akordio hori gardentasun eta publikotasun osoz egin zen”.

*Sodenak Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren txostenari emandako erantzunaren arabera, sozietate horrek –Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta– horrela jardun zuen sinetsi baitzuen 2020ko otsailaren 26ko Gobernu Erabakiak babesten zuela, eta erabaki horren bidez, baimena zuen urte horretan maileguak emateko, gutxienez ere, hamar milioi arte. 2020ko maiatzaren 27ko Gobernu Erabakiak agian indartu ere egin zuen jarrera hori, sozietate horri 15 milioi arteko maileguak egiteko baimena eman ziolako, COVID-19aren ondoriozko osasun krisiaren ondorioak arintzeko, eta zenbateko hori gehitzen zitzaion jada aipatutako aurreko erabakiak baimendutako hamar milioiko zenbatekoari. 2020ko maiatzeko erabaki hori hartu zen Sodenako zuzendari kudeatzaileak 2020ko apirilaren 15ean egindako eskaeraren ostean.*

*Laburbilduz, Sodenaren jarduna uler zitekeen une hartako egoeran. Sozietate hori tresna aktiboa da maileguak emateko, eta helburua Nafarroako industria sektoreari laguntzea zen, pandemiaren ondorio larriak arintzen saiatzeko, baina, hala ere, Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar izan zion”.*

Aurreko guztia kontuan hartzen badugu, ez dago zalantzarik Kontuen Ganberak (alderdi honek Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren aurrean jada alegatu zuenarekin bat etorrita) modu positiboan eta berariaz ondorioztatu eta baloratu duela aztergai hartu dugun akordioa honela egin zela:

(i) Une hartako egoera guztiz salbuespeneko zen: “arlo ekonomikoan erabateko lehen tasuna eman behar zitzairen ekoizpeneko eta gizartearen sareak babesteari eta laguntzeari eta jardura ekonomiko lehenbailehen berreskuratzeari”.

(ii) Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta, hau da, behin-behineko txostenean aipatzen ez bada ere, Sodenari atxikita duen departamentuak eskatu zuen.

(iii) Gardentasun eta publikotasun osoz.

(iv) Uste zuen Nafarroako Gobernuaren erabakien babesa zuela, maileguak emateko baimena ematen ziotelako: zehazki, 2020ko otsailaren 26koaren erabakiaren bidez, 10 milioi euroko mailegu bat emateko baimena; eta 2020ko maiatzaren 27ko erabaki espezifikoagoaren bidez, gehienez ere 15 milioi euroko mailegua emateko baimena, COVID-19aren ondorioak arintzeko. Azken hori gauzatu zen Sodenak 2020ko apirilaren 15ean egin zuen alde aurretiko baimen eskaeraren ondorioz.

(v) Ez dugu ebidentziarik lortu, Sodenak araudiaren aurka nahita jardun izana frogatzeko.

(vi) Egokia den moduan, hartu da “Sodenari tresna aktiboa dela maileguak emateko, eta helburua Nafarroako industria sektoreari laguntzea zela, pandemiaren ondorio larriak arintzen saiatzeko”.

(vii) Laburbilduz, hau da garrantzitsua: “Sodenaren jarduna uler zitekeen une hartako egoeran” (eta baitapen hori III. atalean ez ezik, VI.2 atalean ere jaso behar zen).

Hala ere, aurreko guztiak, zalantzarik gabe eta modu naturalean, legezko egoera batera bultzatu beharko gintuzke, eta, hartara, Sodenari ezer ez leporatzera (bere jardura ulergarria da, logikoa denez, legezotasunaren esparruan egin delako), baina gure alegazioaren hartzailea den erakunde horrek, azkenean, berriro adierazi du Sodenak Nafarroako Gobernuari alde aurretiko baimena eskatu behar izan ziola, eta, gu, errespetu osoz esanda, ezin gara adierazpen horrekin ados egon.

Sodenak Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiari aurkeztutako dokumentuan jada modu arrazoituan, sakonki eta zehaztuan azaldu zuen bezala –izan ere, behin-behineko txostenean erreferentzia egiten zaie alegazio horiei–, guk argi ikusten dugu Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko Erabakiak CENekin eta Albynekin sinatutako akordioa babesten zuela. Erabaki horrek, hain zuzen ere, Sodenari baimena eman zion, modu globalean, 10 milioi euro arteko maileguak 2020an emateko. Gainera, esku artean dugun behin-behineko txostenean adierazi bezala, “2020ko maiatzaren 27ko Gobernu Erabakiak jarrera hori agian indartu ere egin zuen, sozietate horri 15 milioi arteko maileguak egiteko baimena eman ziolako, COVID-19aren ondoriozko osasun krisiaren ondorioak arintzeko, eta zenbateko hori gehitzen zitzaion jada aipatutako aurreko erabakian baimendutako hamar milioiko zenbatekoari. Erabaki hori 2020ko maiatzean hartu zen, Sodenako zuzendari kudeatzaileak 2020ko apirilaren 15ean egindako eskaeraren ostean”.

Izan ere, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren aurrean emandako arrazoi guztiak berresten ditugun eta errepikatutzat ematen ditugun arren, ez da ahaztu behar 2020ko otsailaren 26ko Gobernu Erabakiaren bitartez 10 milioi euro ematea baimendu zela, labur esanda, honako xede hauek betetzeko:

a) Hirugarrenei maileguak ematea, hau da, besteak beste, “Nafarroako Foru Komunitatean finkatutako enpresen garapena sustatzeko behar diren helburu guztietarako (...) sinatutakoak”, eta, duda barik, kasu horietako bat zen, Nafarroako jarduera ekonomikoaren jarraitutasuna babesteko neurria zelako.

b) Zenbatekoak ematea, eta zenbateko horiek baimendutako tartean daude argi eta garbi. Horiek horrela, Nafarroako Gobernuaren Eranskinari gehitu zaion eranskinean (eranskinean eman beharreko maileguen baldintzak jorratzen ziren) hau ezartzen zen:

*“Gehieneko zenbatekoa: programaren arabera da, hazi mailegu motek eta Orizent programako mailegu motek 100.000 euroko muga dute, eta gainerako zenbateko estandarrek 500.000 € euroko edo milioi euro inguruko muga dute. Hala eta guztiz ere, emateko maileguek legez ezarritako mugak dituzte: maileguen saldo biziaren % 5, 13/2007 FL; eta gehienez ere 10 milioiko zenbatekoa (216/2019 FD)”.*

Bestela esanda, nahikoa da baldintza hori irakurtzea, honako hau adierazi (eta baimendu) zela egiaztatzeko: Hirugarrenei emandako maileguen kasuan, zenbatekoak “ingurukoak” dira, baina ez dira zehazten, ez da inola ere muga kuantitatibo zehatz eta gaindiezina ezartzen, betiere ezarritako legezko mugak errespetatuta, hau da, kasu guztietan “maileguen saldo biziaren % 5, 13/2007 FL; eta gehienez ere 10 milioiko zenbatekoa” (216/2019 FD).

Horrenbestez, Sodenari zegokion zenbatekoa zehaztea, eta 2.000.000 euroko mailegua ematea Nafarroako Gobernuak baimendutako baldintzekin bat etortzen zen (are gehiago, sobera aipatu dugun munduko larrialdia batean).

c) Epe horiek Nafarroako Gobernuaren erabakian aurreikusi eta babestu ziren, Nafarroako Gobernuaren erabaki horren eranskinean hau ezartzen baitzen:

*“Gehieneko iraupena: onuradunaren premien arabera, baina epe ertaineko eragiketetarako epe estandarra dago; eta beste bat, epe luzeko eragiketetarako. Epe biek lau urteko gehieneko gabealdia barne hartzen dute, legeak finkatuta. Epe ertaineko eragiketak gehienez ere zazpi urteko epean egiten dira, gabealdiko bi urte barne; eta epe luzekoak gehienez ere hamabi urtetan egiten dira, gabealdiko bi urte barne”.*

Hala, agerikoa da berriro Nafarroako Gobernuaren baimenak ez zuela iraupen zehatzeko epea ezartzen, baizik eta “onuradunaren premien arabera”koa. Behin hori esanda, mugatzeko asmorik gabe, orientatzeko asmoz aipatzen ziren egoera normaletan ohikoak ziren epe estandarrak, hamabi urtera arteko epeak ere barne.

Horiek horrela, NBEak eskuratzeko premia larria zegoela ikusita, eta COVIDaren eta beharren bilakaerari buruzko ziurgabetasun gero eta handiagoak izanik, Akordioak (une hartako premien arabera), epe zehatza ezarri zuen, eta alderdi guztiek, berariaz hala nahi izanez gero, luza zezaketen, eta hori guztiz logikoa zen egoera hartan.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren erabakiak babesten zuen Akordia; izan ere, indarraldia onuradunaren premietara egokitu zen, denboran mugatu zen egoera batean, epe zehatza ezarrita, eta inola ere ezin ziren gainditu Nafarroako Gobernuaren baimenean jasotako epe estandarrak, askoz ere luzeagoak (lau urte, gutxienez).

d) Ez zegoen bermeak eskatu beharrik; izan ere, Nafarroako Gobernuaren Baimenari gehitutako eranskinean hau ezarri zen: “hirugarrenei emandako maileguek, normalean, ahalik eta berme handienak dituzte”.

Jakina denez, jada hainbat aldiz errepikatu dugun eta Kontuen Ganberak ere behin-behineko txostenean jaso duen bezala, 2020ko maiatzeko egoera ez zen batere normala. Geroago, COVID maileguei buruzko 2020ko maiatzaren 27ko erabakian –erabaki hori Sodenak eskatuta egin zen, apirilaren 15ean egin zuen eskaeraren bitartez (beraz, Akordia baino askoz ere lehenagokoa)– hau ezarri zen eranskinean: “Presako egoera denez, eta laguntzak arinago eman ahal izateko, eragiketa gehienek, ziurrenik, ez dute negozioa bera baino berme gehiagorik izanen”.

Ildo horretatik, ezagutu egin behar da: (i) CEN, O-NOZ bezala, kaudimen ezaguneko erakundea dela; (ii) Akordia sinatu zenean eskaera masiboa zela; (iii) O-NOZekin eta zenbait hornitzaileekin (besteak beste,

Albynekin) NBEak erosteko sinatutako akordioaren esperientzia bazegoela. Hori guztia dela eta, bazeuden bermeak, edo behintzat ez zegoen berme gehiago eskatzeko premiarik, batez ere, berriro errepikatuko dugu, eragiketaren ezaugarriak eta erabaki hori hartzeko uea nolakoak ziren kontuan hartzen badugu.

Horren ondorioz, berriro adieraziko dugu, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren arabera, ez zen nahitaezko bermerik eskatzen, eta egoera horretan ez ziren beharrezkotzat hartu.

Laburbilduz, eragiketa “berezia” (behin-behineko txostenean adierazten den bezala) izan arren, berezitasun horrek ez du inola ere uzten Nafarroako Gobernuaren erabakietatik kanpo. Garrantzitsuena zen baldintza nagusiak baimendutako Akordioan sartuta ote zeuden ala ez, eta, gure ustez, errespetu osoz baina irmo esanda, bazeuden, eta behar bezala arrazoitutako zioak eman dira guk atera ditugun ondorioetara iristeko.

Horregatik guztiagatik, Sodena ez dago ados behin-behineko txostenean, modu kategorikoan gainera, jaso den honako ondorio honekin: Sodenaren jardura ulergarria izan bazen ere, aurretiazko baimena eskatu behar izanen ziola Nafarroako Gobernuari. Errespetuz baina irmotasunez egiten dugu adierazpen horren aurka.

Sodenari ezin zaio akatsik leporatu; hortaz, eskatu egin behar dugu III. eta VI.2. atalak aldatzea eta bertan jasotzea ez zela beharrezkoa baimen espezifikorik eskatzea, jo behar delako aztertzen ari garen Akordioa behar bezala babestuta zegoela.

Era berean, eskatu egiten dugu III. eta VI.2. ataletan hau jasotzea, garrantzitsua da eta:

a) Prozedura izaerako gai bat da, eta gerora konpon daiteke, Nafarroako Gobernuak baliozkotzen badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 52. artikulua arabera, non hau ezartzen baita: “Akatsa baimenik eza bada, deuseztasunik ez dakarrena, eskumena duen organoak baliozkotu dezake, egintza akastuna eman zuenaren hierarkian goragoko mailakoa bada”.

**2. LABURBILDUTA**, jada adierazi dugun arren, berriro azpimarratu behar dugu Akordioa larrialdi sozial, ekonomiko eta sanitarioko egoera batean sinatu zela, modu justifikatuan eta premia atzeraezin baten aurrean, zerbitzu publikoaren eskakizun bati erantzuteko xedez, fede onez eta ahalik eta arreta handienaz, azkar eta eraginkortasunez, eta erantzukizunaren eta kudeaketa publikoaren printzipio orokorren arabera jardunez. Izan ere, Zuzenbidearen araberrako jarduna zelako eta Nafarroako Gobernuaren baimenen babesean jarduten zelako sinesmenari eutsi zitzaion. Gardentasun osoz jardun zen, eta gizarte osoa, enpresak, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Gobernua jakinaren gainean zeuden, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren eta CPENen bitartez. Gainera, O-NOZ NBEz hornitzeko sinatutako Akordioaren aurretik izandako esperientzia ona oinarritzat hartu zen. Akordio hori ere Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko baimenaren babesean sinatu zen; hortaz, horretan oinarrituta, idazki honetan defendatzen ari garena ere defendatu daiteke.

Horiek horrela, bidezkoa da alegazio honetan txertatzea, gure alegazioak onartzeko eskaera eta Kontuen Ganberaren behin betiko txostenean honako aldaketa hauek gehitzea:

Lehena.- III. eta VI.2 ataletan jasotzea Sodenak CENekin eta Albynekin sinatu zuen akordioa Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko Erabakiaren babesean egin zela, eta, geroago, 2020ko maiatzaren 27ko Erabakiak indartu egin zuela.

Bigarrena.- Bestela, modu subsidiarioan, VI.2 paragrafoan honako ondorio nagusi hau jasotzea:

*“Laburbilduz, Sodenaren jarduna uler zitekeen une hartako egoeran. Sozietate hori tresna aktiboa da maila leguak emateko, eta helburua Nafarroako industria sektoreari laguntzea zen, pandemiaren ondorio larriak arintzen saiatzeko; dena den, komeniko zatekeen Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bitartez geroago baliozkotzea, sortu diren prozedurari buruzko zalantzak kontuan hartuta”.*

Amaierako ondorio hori III. atalean ere jaso beharko litzateke, ez soilik VI.2 atalean.

Hirugarrena.- Edonola ere, behin betiko txostenaren III. eta VI.2 ataletan hau txertatzea:

a) Prozedura izaerako gai bat da, eta gerora konpon daiteke, Nafarroako Gobernuak baliozkotzen badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 52. artikulua arabera, non hau ezartzen baita: “Akatsa eskumenik eza bada, deuseztasunik ez dakarrena, eskumena duen organoak baliozkotu dezake, egintza akastuna eman zuenaren hierarkian goragoko mailakoa bada”.

**BIGARRENA.- SODENAREN ETORKIZUNEN EKINTZETAN BERMEAK SARTZEARI BURUZ.**

Kontuen Ganberak hau gomendatzen du behin-behineko txostenaren III. atalean:

*“Sodenak etorkizunean eginen dituen ekintzetan behar bezalako bermeak txertatzea, funts publikoen babes handiagoa ziurtatzeko”.*

Berriro ere, alderdi hau ezin da ados egon Kontuen Ganberaren adierazpen eta gomendio horiekin; hortaz, gure ustez, kendu egin beharko lirateke.

Izan ere, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko eta maiatzaren 27ko erabakiak betetzeari buruz lehen esan dugun guztia, horietako bakar batek ere ez zuen behartzen bermeak eskatzera, beraz, argi dago Sodenak iraganean jardun duela, eta gaur egun jarduten duela eta etorkizunean jardunen duela araudi aplikagarriekin bat: (i) aplikatu behar diren arauen esparruarekin bat; (ii) Administrazioak inguruabar eta egoera bakoitzean ematen dizkion baimenekin bat; eta (iii) Corporación Pública Empresarial de Navarra SLU (CPEN) bazkide bakarrak etengabe gainbegiratuta.

Azken puntuan (iii) aipatutakoari buruz, bidezkoa da CPENen legezko eginkizun batzuk aipatzea, haren sorrera arautzen duen 8/2009 Foru Legearen 2.2 artikularen arabera: “Aginduak, jarraibideak eta prozedurak diseinatu, onartu eta haien jarraipena egitea, honako arlo hauekin lotutako gaietan: aurrekontuak, inbertsio planak, plan estrategikoak, finantzaketa eta baliabide berekien egiturak, bazkide politikak, barne kontrola, kalitatea, homogeneizazioa, administrazio araubidea, barne antolaketa, higiezin eta gainontzeko ondarearen kudeaketa, langileen arloko politikak, korporazioaren irudia, informazioaren teknologiak, Korporazioaren erantzukizun soziala eta Corporación Pública Empresarial de Navarra SLUren partaidetza duten sozietateen beste edozein, hori guztia ezertan ukatu gabe Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen esparruan, aurrekontu, finantzaketa eta ekonomia eta kontabilitateko kontrol eta informazioaren arloetan eman ditzakeen arauak eta jarraibideak”.

Hori dela eta, kasu bakoitzean eskatu (ala ez eskatu) behar diren bermeak eskatuko dira, baina ez, ordea, betebeharrak orokor gisan.

Berriro ere adieraziko dugu Sodena, maileguak ematean eta maileguen baldintza nagusiak ezartzean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Parlamentuak emandako legezko baimenen eta aipatu berri dugun CPEN bazkidearen kontrolaren mende jartzen dela; eta bermeak ez direla beti beharrezkoak, ezta egokiak ere, gomendiotik ondorioztatzen den bezala. Izan ere, bermeak ez diote inoiz eredu berari edo eragiketa mota berari erantzuten, baizik eta kasu zehatz eta partikular bakoitzari. Ezin da, beraz, alde aurretiko gomendio orokorrik egin, eta horrek, gainera, zaildu egin ditzake Sodenak zaintzen dituen zerbitzu publikoak eta eragiketak.

Aztertzen ari garen gomendioaren harira, aurrekoaren frogatzen da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak ere ez duela ezartzen arriskuen bermeei edo mugei buruzko xedapenik.

Horregatik, idazki honen bitartez eskatzen dugu Sodenaren etorkizuneko eragiketetan funts publikoak ahalik eta gehien zaintzeko behar bezalako bermeak sartzeari buruzko gomendioa ezabatzeke, jada azaldu ditugun zioak direla eta.

**HIRUGARRENA. – LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIORAKO AKORDIOARI BURUZ. AKORDIOAREN AURREKARIAK ETA AKORDIOA SINATZEKO ARRAZOIAK.**

1. Behin-behineko txosteneko III. atalean hau ezartzen da hitzez hitz (geuk azpimarratu ditugu zati batzuk):

*“Honako hauek dira, gure ustez, akordioaren hutsune nagusiak:*

*a) Akordioa gauzatzeko ezarritako diseinuek eta funtzionamenduak hutsune larria dute, enpresek ez baitzuten Albynek erositako NBEak hartzeko konpromiso formalik, nahiz eta enpresen premien araberrako erositaketa egin izana.*

*b) Akordioaren formulazioan dagoen beste hutsune handi bat arautu edo ezarri ez zutena da: ez zuten zehaztu zer prozedurari jarraitu behar zitzaien, mekanika alda zezaketzen ezustekoak egonez gero, eta ezustekoak gertatu zirenen.*

[...]

*Akordioaren idazketa eskasaren ondorioz, ez zen aurreikusi geroago sortutako egoera: NBEen prezioa jaitsi zen, eta akordioaren hartzaileek ez dute izakinen eskaera esanguratsurik egin. Horrek soberako izakinak eragin ditu, eta alderdiek ez dituzte beren gain hartu nahi. Izan ere, bestelakoak dira soberako izakinak banatzeari eta horren gaineko erantzukizunari buruzko interpretazio juridikoak”.*

Behin-behineko txostenaren IV. atalean, gainera, antzeko aipamenak egiten dira:

*“Alderdi sinatzaileek klausula orokor bat aurreikusi beharko zuten mekanika horrek sortu ahal zituen arazoan gainean; beraz, akordioaren akatsa mekanismo arautzailea da, batez ere, arautu ez duenagatik, eta ezarri behar izan zuenagatik”.*

*“Akordioaren formulazio teknikoa eskasa da akordioan ez baita jaso, ezusteko egoerak gertatuz gero, zer prozedurari jarraitu behar zaion arautzeko klausularik. Hori dela eta, hainbat interpretazio ezberdin daude, hutsune horiek sortu dituzten arazoak eta gatazkak konpontzeko moduari buruz”.*

Behin-behineko txostenean askotan aipatzen dira akordioaren hutsuneak, eta alderdi sinatzaileei leporatzen zaizkie.

Errealitatea, ordea, guztiz bestelakoa da; izan ere, laugarren alderdi batek (O-NOZek) eragin zuen soberako izakinak akordio horretan arautu ez izan, sinatu aurreko egunean jakinarazi baitzuen ez zuela akordio hori sinatuko, eta termino oso ezberdinak ezartzen zituen akordioaren eranskina sinatu zuela.

Beraz, behin-behineko txostenean Akordioaren balizko “hutsune” horiek aipatu arren, gertatutakoa ez da jaso, ez akordioa sinatu aurretiko aurrekariari buruzko atalean, ezta beste atal batean ere. Eta hori ezin dugu ulertu. Aitzitik, txostenaren III. ataleko aipamen hau baino ez da egiten: “Akordioa sinatu aurretiko zirriborroetan ezartzen zen O-NOZek bere gain hartuko zituela soberakinak, baina behin betiko akordioan erakundeari ezarritako bete behar hori oso kasu zehatz batzuetara mugatu zen”.

Behin-behineko txostenean behin eta berriz aipatzen dira O-NOZEN iritzi aldaketa horren ondoriozko “hutsuneak”, eta horrek guztiak alderdi sinatzaileei eragin zizkien kalteak (egoera izugarri konplikatuan jarri zituen); beharrezkoa da, beraz, behin-behineko txostenean behar bezala eta xehetasunez azaltzea akordioan soberako izakinen erregulaziorik eza eragin zuten arrazoiak, bai eta alderdiak hori egitera behartu zituzten arrazoiak ere.

Arrazoi horiek, zehazki, honako hauek dira:

(i) Akordioaren zirriborro guztietan O-NOZEN konpromisoa jaso zen, berak erosiko zituela soberako izakinak, halakorik bazen. Zehazki, txostenaren 16. orrian jasotakoaren arabera, “soberako izanak O-NOZek hartuko lituzke, halakorik balego”.

(ii) Akordioa sinatu aurreko egunean jakinarazi zuen O-NOZek ez zuela akordioa sinatzeko asmorik, eta ez zuela bere gain hartuko soberako izakinik, halakorik egonez gero.

(iii) Hala eta guztiz ere, O-NOZek Akordioaren eranskina sinatu zuen, eta soberako izakinak hartzeko konpromisoa hartu zuen, eskaeren % 10eko muga ezarrita.

(iv) Une hartan, munduan ez zegoen eskari horri erantzuteko adina maskara, eta enpresa batzuek edo herrialde batzuetako administrazio batzuek elkarri kentzen zizkioten, eta erabat ezinezkoa zen garai hartan aurreikustea maskara eskaintza hainbeste handituko zela. Izan ere, munduko inork ez zuen aldaketa hori aurreikusi, enpresa, administrazio eta antzeko erakunde guztiak eskaerak egin zituzten, eta Akordioan ezarritakoak bezalako prezioak ordaindu zituzten.

Horrenbestez, eta behin-behineko txostenean ezarri bezala, “nekez aurreikus zitekeen egoera baten aurrean gaude”.

(v) Garai hartan maskarak eskuratu ezean, Nafarroako enpresariak ezin zituzten enpresak ireki eta langileek ezin zuten lanik egin. Horri gehitu behar zaio egunero pertsona ugari hiltzen zirela, eta garai hartan ez zegoela geure burua babesteko behar adina maskara.

(vi) Egoera horretan erabaki behar izan zen Akordioa termino horretan sinatzea ala sinadura geroratzea, soberako izakinen hartzailea aurkitu arte. Edo, bestela esanda, aukera bat zen Akordioa sinatzea eta Nafarroara

maskarak lehenbailehen ekartzea; edo sinadura geroratzea, nahiz eta Nafarroako enpresa txiki eta ertain askok lanean berriz hasteko arazoak izan, langileek baldintza eskasetan lan egin behar izan, langileen osasun arriskuak onartu eta abar.

(vii) Txostenean adierazi bezala: “Sodena tresna aktiboa da maileguak emateko, eta helburua Nafarroako industria sektoreari laguntzea zen, pandemiaren ondorio larriak arintzen saiatzeko”.

Eta, garai hartan, Nafarroako industriako sektoreak maskaren berehalako eta erabateko premia zeukan. Maskarak izatearen eta ez izatearen arteko aldeak eragin ahal zuen enpresek itxita jarraitzea ala ez, eta, nola ez, osasunaren gaineko kaltea, horrek enpresei eta langileei ekartzen zizkien ondorioekin batera.

(viii) Bestalde, garai hartako egoeran ezin zen aurreikusi soberako izakinak egonen zirenik. Aurreikuspenek justu kontrakoa adierazten zuten, hau da, denbora oso handiz eskaintza baino handiagoa izanen zela eskaera. Bestalde, aste gutxi batzuetan egoera zeharo aldatu zen: maskarak lanbide jakin batzuetan soilik erabili beharrean, munduko herrialde guztietako herritarrek erosi behar izaten zituzten, egunero erabiltzeko.

(ix) Aztertzen ari garen kasuan, CENek guri adierazi zizkigun aurreikuspenen arabera, hilean 700.000 unitateko eskaerak jasoko ziren, eta Akordioaren Hirugarren 3.1.2 klausulan jaso den bezala, hiru hilabeteko premiei aurre egitekoak ziren. Izan ere, 2020ko uztailean, CENek berriro adierazi zuen eskaerak gora egingen zutela, eta halaxe jaso da txostenaren 25. orrialdean. Hori bat dator Albyni eta Sodenari bidalitako mezu elektronikorekin. Mezu hori ekainaren 24an jaso zen, eta bertan adierazten zen CENek hurrengo astean “bolumen handiko” eskaera bat egingen zuela.

SODENAK ez zuen inolako oinarririk pentsatzeko CENen zenbatespenak ez zirela inoiz eskaera irmoak bilakatuko, are gutxiago, munduan zegoen maskaren eskaera kontuan hartuta. Gainera, CENek jakinarazitako zenbatespen horiek konfederazioa osatzen duten erakundeen adierazpenetan oinarrituta zeuden.

CENek jakinarazi zituen zenbatespenen harira, ez dakigu zergatik behin-behineko txostenean esaten den hilabete bateko zenbatespenak zirela, eta ez, ordea, hileko zenbatespenak zirela. CENek SODENARI eta Albyni 2020ko apirilaren 22an bidali zien mezu elektronikoa ikus daitekeen bezala, hilabeteko kontsumoaz ari zen, ez hilabete bakarreko kontsumoaz.

(x) Eta zenbatespenak izan arren, merkatuan ohikoa da zenbatespenetan oinarritzea. Enpresek produktuak, lehengaiak eta abar merkatuan erosten dituztenean, ez dituzte erosten eskaera irmoak dituztelako, baizik eta zenbatespenetan, aurreikuspenetan eta abarretan oinarritzen direlako.

(xi) Gainera, SODENAK CENen zenbatespenak edukitzeaz gain, SODENAK berak, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta, eskaera irmoa egina zuen (ez zenbatespenak) 307.200 maskara erosteko, 836.352 euroko prezioa ordainduta, behin behineko txosteneko 17., 18. eta 20. orrialdeetan aipatzen den bezala, hainbat gairi lotuta.

(xii) Hala eta guztiz ere, soberako izakinak gertatzeko egoerari aurre egiteko, eranskina sinatu zuen O-NOZekin, hark eskaeren % 10eko soberakinak bere gain hartzeko, halakorik gertatuz gero.

Txostenean bertan adierazten den bezala (33. orrialdean), “Akordio horren edukia, terminoak eta idazketa aztertzeko, kontuan hartu behar da akordioaren garaiko egoera salbuespenezkoa zela”. Eta horrelako egoera batean sinatu zen azaldu berri dugun Akordioa.

Horregatik guztiagatik, uste dugu behin-behineko txostenean inguruabar eta datu horiek jaso behar direla; bestela, txostena irakurrita pentsa liteke alderdiek zabarkeriaz jokatu zutela, soberako izakinak edukitzeko aukera aurreikusi ez izateagatik. Aitzitik, Akordioa sinatu aurretiko eguna arte, bazegoen laugarren alderdi bat, zeinak hartuko baitzuten soberako izakinak, eta informazio hori txostenean aipatu beharko litzateke, bereziki, erregulaziorik eza aipatzen denean.

Era berean, txostenean berariaz jaso behar da O-NOZek jakinarazi zuenean ez zuela soberakin guztiak bere gain hartzeko akordiorik sinatuko, baizik eta eranskin bat, zeinaren arabera eskaera guztien % 10eko soberako izakinak hartzeko konpromiso mugatua hartzen baitzuen, gainerako alderdiok Akordioa sinatzea erabaki genuela, honako hauek kontuan hartu genituelako: garai hartako merkatuan zegoen premia eskaria, CENek jakinarazitako zenbatespenak eta eskaera irmo handia zegoela. Izan ere, horrelako egoeran zentzuzkoa zirudien pentsatzeak ez zela soberakinik osatuko, eta hori gertatuta ere, O-NOZekin sinatutako eranskinaren bidez konponduko zela.

Aurreko guztia kontuan hartuta, **ARRISKU HORI EZ ZEN ESANGURATSUA, NAFARROARA MASKARAK EZ EKARTZEAK ERAGINEN ZUEN EGIATZKO ONDORIOEN ALDEAN**. Horregatik, lehentasuna eman genion osasunaren arloko ondorioak konpontzeari, balizko soberako izakinak osatzeko aukera txikienari eman beharrean.

Txostenaren ondorioetako lehen paragrafoan zuzen jaso duten bezala: “arlotan ekonomikoan erabateko lehentasuna eman behar zitzaien ekoizpeneko eta gizarteko sareak babesteari eta laguntzeari eta jardueran ekonomikoaren lehenbailehen berreskuratzeari”.

**2.** Horregatik guztiagatik, bidezkoa da arestian azaldu ditugun alegazioak onartzea eta Kontuen Ganberaren behin betiko txostenean txertatzea.

Lehen.- Behin-behineko txostenean honako hauek jaso behar dira, funtsezkoak baitira akordioaren jatorria eta alderdiek zergatik sinatu zuten ulertzeko:

– Txostenean aipatu behar da akordioa sinatu baino egun bat lehenago laugarren alderdi bat prest zegoela Akordioa sinatzeko, eta haren eginkizuna, hain zuzen ere, hori zela: balizko soberakinak bere gain hartzea.

– Txostenetik ezabatu behar da Akordioan ez zela aurreikusi zer egin, balizko izakinak sortuz gero; eta horren ordez adierazi behar da Akordioan erregulatu zela soberako izakinak hartzea, eskaera guztien % 10eko muga ezarrita.

– Txostenean azpimarratu behar da garai hartako mundu egoera nolakoa zen. Egoera horren arabera nekez pentsa liteke soberako izakinak egonen zirenik.

– Txostenean adierazi behar da honako aukera hauek genituela, O-NOZek alderdi sinatzailea izateari utzi ondoren: sinadura geroratzea, eginkizun hori bere gain hartuko zuen alderdi bat aurkitu arte (eta Nafarroako enpresak maskararik gabe uztea, eta enpresen irekiera eta langileen laneratzea oztopatzea); ala sinatzea eta maskarak ekartzea, arrisku horri aurre eginda, garai hartan nekez gertatuko zela ematen zuelako.

– Txostenean adierazi behar da ez genuela itsu edo funtsik gabe jokatu, baizik eta eskaera irmo batean oinarrituta, eta CENen aurreikuspenak ere oinarri hartu genituela, erakundeek CENi jakinarazitakoaren arabera.

– Txostenean adierazi behar da jokatzeko modu hori ohikoa dela merkatuan.

Bigarrena.- Behin-behineko txostenean honako aldaketa hauek egitea, lehenago adierazi ditugun inguruabarretan oinarrituta:

### **Behin-behineko txostenaren 9. orrialdea:**

“Kontuan hartu behar diren akordioaren ~~hutsune~~ gorabehera nagusiak, gure ustez, honako hauek dira:

a) Akordioa gauzatzeko ezarritako ~~diseinuen eta funtzionamenduen hutsune larria~~ ~~dute~~ diseinuetan eta funtzionamenduan, azaldu diren arrazoiak direla eta, ez zen jaso enpresek Albynek erositako NBEak hartzeko konpromiso formalik, nahiz eta enpresen premien arabera erosteta egin izana.

b) Akordioaren formulazioan dagoen beste ~~hutsune handigai~~ garrantzitsu bat arautu edo ezarri ez zutena da; azaldu diren arrazoiak direla eta, ez baitzuten zehaztu zer prozedurari jarraitu behar zitzaien, mekanika alda zezaketen ezustekoak egonez gero, eta ezustekoak gertatu ziren.

[...]

Akordioaren idazketaren ~~eskasaren~~ ondorioz, ez zen aurreikusi geroago sortutako egoera: NBEen prezioa jaitsi zen, eta akordioaren hartzaileek ez zuten izakinaren eskaera esanguratsurik egin. Horrek soberako izakinak eragin zituen, eta alderdiek ez dituzte beren gain hartu nahi. Soberako izakinak banatzeari eta horren gaineko erantzukizunari buruzko interpretazio juridikoak bestelakoak dira.

[...]

Ganbera honetan pentsatzen dugu arrazoizkoa dela pentsatzea sinatzaile guztiak akordioaren ~~hutsuneen~~ erantzukideak direla, haietako bakoitzak helburuan zuen interesaren proportzioan”.

**Behin-behineko txostenaren 34. orrialdea:**

“Akordioan ezarritako mekanismoan arazo esanguratsua dago: CENek eskaeren zenbatespenen berri ematen zion Albyni, NBEak eros zituzten, baina zenbatespen horiek egin zituzten enpresek ez zuten NBEak erosteko konpromisorik hartu. Gure ustez, hori azaltzeko arrazoi onargarriena da akordioaren sinatzaileek pentsatu izana zenbatespen eta aurreikuspenak eskaera irmoak bilakatuko zirela, hango egoeraren ezaugarriak kontuan hartuta.”

Alderdi sinatzaileek klausula orokor bat aurreikusi beharko zuten mekanika horrek sortu ahal izan zituen arazoan gainean; ~~beraz, akordioaren akatsa mekanismo arautzailea da, batez ere, arautu ez duenagatik, eta ezarri behar izan zuenagatik~~”.

**Behin-behineko txostenaren 36. orrialdea:**

~~“Akordioaren formulazio tekniko eskasa da Akordioan ez da jaso, ezusteko egoerak gertatuz gero, zer prozedurari jarraitu arautzeko klausularik, eta ezustekoak gertatu dira. Horren ondorioz, hainbat interpretazio ezberdin daude, hutsune horiek sortu dituzten arazoak eta gatazkak konpontzeko moduari buruz”.~~

Hori guztia dela eta, Ganbera honek uste du arrazoizkoa dela jotzea akordio horretan parte hartu zuten guztiak ~~akordioaren hutsuneen~~ erantzunkideak direla. Hori dela eta, alderdi bakoitzak, akordioaren xedean zuen interesaren arabera, erantzunkidea izan beharko du egoera hori konpontzeko; beraz, alderdiek, ahal heinean, jaso beharko dituzte egoera horrek eragindako kalteak”.

[...]

Akordioaren hutsuneak eta gabeziak aurreko arrazoien bitartez azalduta, agerikoa da ez dagoela irtenbide juridiko bakarra, eta hori argi utzi dute txosten juridikoetan jaso diren interpretazio eta azterketa ezberdinek.

Hirugarrena.- Behin-behineko txostenaren 16. orrialdean hau txertatzea:

“Horiek horrela, 2020ko apirilaren 22an, CENek Albyni eta Sodenari bidali zien ~~hilabete~~ hileko premien gaineko zenbatespena, erakundeek adierazitakoari jarraituta. Hona hemen xehetasunak”:

“Zenbait enpresak eta langile autonomok jakinarazi zituzten premien arabera ~~hilabete bateko~~ hileko zenbatespenak ziren, eta haietako asko hainbat erakunderen bitartez hedatu ziren...”.

Era berean, CENek apirilaren 22an bidali zuen mezu elektronikoa horretan hau jaso zen: “Hiru hilabeteko pilaketa egiteko zenbatespena jada egin daiteke”.

**LAUGARRENA. – BESTE ALEGAZIO BATZUK.**

Azkenik, gure ustez, behin-behineko txostenean jaso diren zenbait adierazpenen ñabardurak egin behar dira, edo segidan azalduko ditugun egitate eta arrazoien arabera, aldatu egin behar dira:

**1. Behin-behineko txostenaren 7. orrialdean hau adierazi da:**

“Maskaren prezioaren beherakadaren eta maskara ale batzuen entrega geroratzearen ondorioz, enpresek ez zituzten zenbatutako NBE guztiak erosi; hortaz, CENek izapidetutako eskaerak, guztira, 364.280 unitatekoak baino ez ziren izan...”.

Aurrekoa gorabehera, “maskara batzuen entrega gerora” tuta ere, ez zen inoiz gertatu enpresetako batek maskarak erosteko aukerarik ez izatea, izakinak falta zirelako.

Horregatik guztiagatik, paragrafo hori honela idatzi beharko litzateke:

~~“Maskaren prezioaren beherakadaren eta maskara ale batzuen entrega geroratzearen~~ ondorioz, enpresek ez zituzten zenbatutako NBE guztiak erosi; hortaz, CENek izapidetutako eskaerak, guztira, 364.280 unitatekoak baino ez ziren izan...”.

**2. Behin-behineko txostenaren 9. orrialdean hau adierazi da:**

“Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen; beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen. Akordioaren alderdi sinatzaileak beharrezko eragileak ziren, lortu nahi zen xedea betetzeko”.



Aurrekoa gorabehera, adierazpen horretan ez da kontuan hartu CENek ere funtsezko interesa zuela, berak enpresak ordezkatzeko baitzituen akordioan; hortaz, baliteke CEN izatea akordioan interes handiena zuena.

Horri buruz, ezin dugu alde batera utzi CENen Estatutuaren 4. artikuluko d) atalean hau jaso dela, CENen xedeak deskribatzen direnean: “Kideen interes orokorrak eta komunak ordezkatzeko eta kudeatzea pertsonen eta erakunde publiko eta pribatuaren aurrean eta, bereziki, Administrazioaren aurrean”.

Hori guztia dela eta, bidezkoa da adieraztea interes handiena enpresek zutelako, eta ez soilik enpresak ordezkatzeko zituen erakundeak. Gainera, CEN akordioaren sinatzailea izan zen, eta berak bideratzen zituen enpresen eskaerak: NBEak Albyni erosten zizkion, eta gero enpresei saltzen zizkion, etab. Eta halaxe jaso da Akordioaren azalpen zatiaren VII. puntuan.

Datu hori ere ez da jaso behin-behineko txostenean, garrantzitsua izan arren.

Horren ondorioz, gomendatu egiten dugu paragrafo horretan ez isiltzea CENek akordioan zuen ageriko interesa:

“Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen; beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen, eta, zuzenean, enpresak ordezkatzeko dituen CENena ere bai. Akordioaren alderdi sinatzaileak beharrezko eragileak ziren lortu nahi zen xedea betetzeko”.

Azaldutako arrazoi berengatik ezin da onartu behin-behineko txostenean ez aipatzea CENek akordioan zituen eginkizunak eta protagonismoa. Horregatik, eskatu egiten dugu behin-behineko txosteneko 33. orrialdean hau txertatzea:

“Horiek horrela, CENen esku hartzea beharrezkoa zen, NBEak erosteko prozedurari ekiteko eta Albyni premien zenbatespenen berri emateko. Akordioan bertan CENi zenbait eginkizun esleitzen zitzaizkion, baita protagonismo garrantzitsua ere, protagonismo gabeko bitartekari hutsa izan beharrean. Horren frogara da, Akordioaren klausula batzuen arabera, CENek NBEak Albyni erosi behar zizkiola, eta gero CENek enpresei banatu eta entregatu behar zizkiela; beraz, CEN beharrezko bideratzailea, koordinatzailea eta kudeatzailea zen, norbera babesteko ekipamenduaren hartzaileen aurrean.”

Bestalde, Albynek NBEak bilatzen eta erosten zituen merkaturak, baina NBE horiek ez ziren beraren kontsumorako, baizik eta CENi emateko, eta CENek enpresa eskatzaileei banatu behar zizkien. Sodenak finantzaketa ematen zion Albyni, ordainketa aurreratuak egin zitzaizkion. Ordainketak egiten ziren enpresei emateko norbera babesteko ekipamenduak erosteko; beraz, Sodenak ez zion Albyni finantzaketa ematen Albynek bere intereseko eragiketa bat egin zezan.

### 3. Behin-behineko txosteneko 17. orrialdean, O-NOZen zenbait adierazpen jaso dira:

“... 2020ko apirilaren 24an akordioaren testua jaso genuen eta, behin aztertuta, konturatu ginen enpresen premiak ez zirela argi zehazturik, ez banaka, ezta modu agregatuan ere. Halaber, ez zegoen zehazturik zer prozedurari jarraitu behar zitzaion, enpresek gehiegizko eskaerak egiten bazituzten (adibidez, NBE horiek erosi eta gero, enpresek eskaerak egiteari uzten bazioten). Halaber, ez zegoen argi zer konpromiso hartzen zuen CENek bere gain, hitzarmenean zehaztutako enpresaren definizioak zenbat langileri eragiten zion, edo zenbat enpresak parte hartuko zuten hitzarmen horretan eta abar.

Pandemia garaian ETE, mikroETE eta autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako akordioan izan dugun parte hartzea argitze aldera, nabarmendu nahi dugu hasieratik bertatik, proposamena apirilaren 24an jaso genuenetik, argi ikusi genuela ezin genuela hitzarmen hori sinatu, eta prozesu bitartean horren berri eman geniola SODENari”.

Lehen paragrafoan jasotako adierazpenak, ordea, ez dira jakinarazi 2022a arte, eta haietako bat ere ez zen jaso 2020an, ezta 2021ean ere. Hortaz, oso garrantzitsua da aztergaitzat hartu den denboraldi horretan gertatutako egitateak behin-behineko txostenean jasotzea, txostenean idazteko unean jakinarazi diren adierazpenen ordez.

Bigarren paragrafoari dagokionez, alderdiek elkarri eman dizkion zirriborroak aztertuta, O-NOZek ez zuen lehen momentutik bertatik adierazi ez zuela akordioa sinatzeko asmorik, eta parte hartu zuen akordioaren bertsioak osatuz joan zirenean; aitzitik, akordioa sinatu aurreko egunean jakinarazi zuen ez zuela sinatu nahi, eta, akordioaren ordez, eranskina sinatzea proposatu zuen.

HIRUGARREN alegazioan aipatu dugun bezala, idazki honen 1. puntua izanik, berriro gaude funtsezko egitate baten aurrean, eta, bereziki, balizko soberako izakinak erregulatzeko. Horrenbestez, uste dugu, O-NO-Zen adierazpenak jaso eta gero, egitateak aipatu behar direla, adierazpenekin erkatu eta gero. Horren harira, honako puntu hau txertatzea proposatzen dugu:

“O-NOZen adierazpenak gorabehera, ez da jaso arrazoi horiek jakinarazi izanaren frogarik. Aitzitik, O-NOZek berak parte hartu zuen akordioaren bertsioetan, akordioa sinatu aurreko eguna arte, baina egun horretan O-NOZek jakinarazi zuen ez zuela akordioa sinatuko, baizik eta eranskin bat sinatu, akordioan parte hartu ordez; eta eranskin horren arabera, soberako izakin guztiak bere gain hartu beharrean, eskaera guztien % 10eko muga ezarri zuen”.

4. Behin-behineko txostenaren 10. eta 29. orrialdeetan hau adierazi da:

Behin-behineko txostenaren 10. orrialdea:

“Aztertutako aldian, alderdiak akordio bat egiten saiatu dira, egungo egoera konpontzeko eta soberako izakinekin zer egin erabakitzeko. Txosten hau egin den egunean, ez da jaso adostasun horren berri”.

Idazketa horretatik ondoriozta daiteke alderdi guztiek ahalegin bera eta baliokidea egin dutela akordio bat lortzen saiatzeko, baina argi geratu da Sodenak deitu zituela alderdien artean egindako bilera guztiak, eta ahalegin guztiak egin zituela egungo egoera desblokeatzeko. Hortaz, eskatu egiten dugu paragrafo hori honela aldatzea:

“Aztertutako aldian, eta beti Sodenak eskatuta, alderdiak akordio bat egiten saiatu dira, egungo egoera konpontzeko eta soberako izakinekin zer egin erabakitzeko. Txosten hau egin den egunean, ez da jaso adostasun horren berri”.

Askoz ere ulergaitza da txosteneko 29. orrialdean jaso den testu hau:

“2022ko maiatzaren 11ko beste bilera batean, Sodenako lehendakariak CENi esan zion ezin ziola berariaz uko egin erreklamazioak egiteari, eta ezin zuela 2020ko hasierako akordioa baliogabetu. CENek proposatu zuen alderdi bietako abokatuak harremanetan jartzea, baina Sodenako lehendakariak uko egin zion aukera horri, eta proposatutako akordioa azkenean ez zen sinatu”.

Ezagutzen ez ditugun eta harritzen gaituzten arrazoiak direla eta, behin-behineko txostenean jaso da alderdietako abokatuak ez direla harremanetan jarri, “Sodenako lehendakariak uko egin ziolako aukera horri”, baina **egitate hori ez da egiazkoa**, beraz, kentzea proposatzen dugu. Izan ere, bilera horren ostean, CENek ez zuen berriro Sodenarekin hitz egin, irailera arte. Hori dela eta, eskatu egiten dugu paragrafo hori honela idaztea:

“2022ko maiatzaren 11ko beste bilera batean, Sodenako lehendakariak CENi esan zion ezin ziola berariaz uko egin erreklamazioak egiteari, eta ezin zuela 2020ko hasierako akordioa baliogabetu. CENek proposatu zuen alderdi bietako abokatuak harremanetan jartzea, ~~baina Sodenako lehendakariak uko egin zion aukera horri,~~ eta proposatutako akordioa azkenean ez zen sinatu”.

5. Behin-behineko txostenaren 26. orrialdean hau adierazi da:

“2020ko azaroaren 26an, CENek mezu elektronikoa bidali zion Albyni, eta NBEen prezioak berrikusteko eskatu zion, prezioa jaisteko eta NBEei irtenbidea eman ahal izateko. Egun berean, Albynek CENi erantzun zion prezioen aldaketa Sodenarekin ere adostu behar zuela, eta galdetu zuen enpresek zer preziotan jaso nahi zituzten eta zenbat NBEak erosteko prest zeuden. Ez da jaso galdera horren erantzunik”.

Albynek egun berean (azaroaren 26an) bidali zuen mezu elektronikoa jaso bezala, erantzun hori CENi bidali zitzaion, beraz, behin-behineko txostenean erantzun horren berri eman behar da, nahasmendurik egin ez dadin. Horren ondorioz, paragrafoa honela idatzi beharko litzateke:

“2020ko azaroaren 26an, CENek mezu elektronikoa bidali zion Albyni, eta NBEen prezioak berrikusteko eskatu zion, prezioa jaisteko eta NBEei irtenbidea eman ahal izateko. Egun berean, Albynek CENi erantzun zion prezioen aldaketa Sodenarekin ere adostu behar zuela, eta CENi galdetu ~~zuen~~ egin zion enpresek zer preziotan jaso nahi zituzten eta zenbat NBE erosteko prest zeuden. Ez da jaso CENek galdera hori erantzun zuenik”.

6. Behin-behineko txostenaren 28. orrialdean aipatu egiten da AEMPS Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak FFP2 maskaren grafenoari buruzko alerta kendu zuela, baina guk jaso dugun informazioaren arabera, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak kendu zuen.

7. Azkenik, eskatu egin behar dugu txostenean aipatzen diren enpresa pribatuen izenak kentzeko (hau da, Laboratorios OjerPharma, Focke Meler eta Dynamobel izenak kentzeko), bai txostenaren testutik, baita bertan jaso diren laukietatik ere.

Horregatik guztiagatik, eskatu egiten dugu azaldutako alegazio guztiak kontuan hartzea, eta, horren ondorioz, eskatu ditugun aldaketak behin-behineko txostenean egitea.

Azaldutako guztiagatik,

ERREGUA egiten diot Nafarroako Kontuen Ganberari, behin idazki hau aurkeztuta, onar dezala, eta horren ondorioz, ALEGAZIOAK egindakotzat har ditzala, eta behin betiko txostenean onartu eta sar ditzala.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an.

María Eugenia Lecumberri Alli, Inbertsioetako zuzendaria

SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL

**ALEGAZIOAK, PANDEMIA GARAIAN ETE, MIKROETE ETA LANGILE AUTONOMO-  
ENTZAT NBE-AK EROSTEKO LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIORAKO  
AKORDIOARI BURUZ KONTUEN GANBERAK EGINDAKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA  
DELA ETA**

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

ATARIKOA. KONTUEN GANBERAREN FISIKALIZAZIOA ETA AUDITORETZA TXOSTENA, PANDEMIA GARAIAN ETE, MIKROETE ETA LANGILE AUTONOMOENTZAT NBE-AK EROSTEKO LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIORAKO AKORDIOA DELA ETA

1. 2022ko abuztuaren 25ean Nafarroako Gobernuako Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren (aurrerantzean, Kontu-hartzaitza) menpeko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren txostena jaso zen Nafarroako Kontuen Ganberan. Txostena norbera babesteko ekipamenduak (aurrerantzean, NBE) erosteari buruzkoa zen: zehazki, ekipamendu horiek ETE, mikroETE eta autonomoei emateko erosi behar ziren, eta, horretarako, Sociedad de Desarrollo de Navarra SLU (aurrerantzean, Sodena) enpresak,

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak (aurrerantzean, CEN) eta Albyn Medical SL (aurrerantzean, Albyn) enpresak lankidetzako eta finantza laguntza emateko akordioa (aurrerantzean, Akordioa) sinatu zuten 2020ko maiatzaren 8an.

2. Txosten horren emaitzak ikusita, Kontuen Ganberak, bere ekimenez, 2022ko fiskalizazio programan sartu zuen akordio horri buruzko fiskalizazio txostena idaztea. Akordio hori COVID-19aren ondoriozko pandemian sinatu zen.

3. 2022ko azaroaren 25ean, CENek ganbera horren txostenaren zirriborroa jaso zuen, eta abenduaren 2an bere gogoetak, iruzkinak, iradokizunak eta zuzenketak aurkeztu zituen, Ganberak azter zitzan eta txostenean (“txostenaren zirriborroan”) sar zitzan.

4. Ganbera horren 2022ko abenduaren 7ko behin-behineko txostenean (aurrerantzean, “Kontuen Ganberaren behin behineko txostena”) ez dira sartu CENek egin zituen ñabardura eta zuzenketa gehienak, ageriko arrazoirik gabe, beraz, epe eta modu egokian aurkeztu dugu idazki hau, Kontuen Ganberaren behin betiko txostenari eransteko.

**KONTUEN GABERAREN BEHIN BEHINEKO LEHEN TXOSTENEAN KONTUAN HARTU EZ  
DIREN AKORDIOAREN AURREKARI ESANGURATSUAK. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRE-  
SARIALEKO DEPARTAMENTUAK BERE KABUZ ETA ADMINISTRAZIO GAIKUNTZARIK GABE  
307.200 FFP2 MASKARA EROSI ZITUEN, ALDEZ AURRETIK AKORDIOARI LOTUTAKO KON-  
TAKTURIK EGIN GABE, ETA AKORDIOAN SARTU ZITUEN, ENPRESEI ETA LANGILE AUTONO-  
MOEI EMATEKO**

**1.1.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak akordioa sinatu aurretik NBEak erosi zituen, beste xede batzuetarako, CENek horri buruzko informazioa eduki ez arren: zer erosi, erosteko baldintzak, prezioa, etab. Hala ere, NBE horiek ere sartu ziren Akordioan, CENi horren berri eman gabe.

5. 2020ko apirilaren 1ean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak (aurrerantzean, GEED) Sodenari jakinarazi zion enpresa batekin negoziazioak egiten ari zela FFP2 maskarak erosteko, enpresei maskara horiek emateko, industria jarduera berreskuratu eta gero, eta, behar izanez gero.

6. Sodenak horren berri eman zion Albyni. Aipatutako departamentuak eragiketa berretsi ondoren, Albynek kudeatu zuen 307.200 FFP2 maskara eskaera, guztira, 836.352 eurokoa (BEZ barne). Maskara horietatik, hasiera batean, 100.000 O-NOZi ematekoak ziren, eta gainerako 207.200 maskarak bidali nahi ziren aipatutako departamentura.

7. Izan ere, GEEDek maskarak erosteko ekimena gauzatu zuen, eta enpresa elkarteei haien premiak galdezko deialdia egin baino lehenago egin ziren jarduketak horiek. Bestela esanda, Akordioa sinatu aurretik, Departamentuak jada maskarak erosiak zituen, eta CENi inoiz ez zion horren berri eman.

**1.2.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari Ekonomia eta Ogasun Departamentuko konseilariak jakinarazi zion ez zuela NBEak erosteko ahalmenik, eta, hala ere, material horiek erosi zituen.

8. 2020ko apirilaren 11n, GEEDek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko eta Osasun Departamentuko kontseilariei eman zien maskara eskaeraren berri (aurreko puntuetan aipatutako eskaera)<sup>20</sup>.

9. Mezu elektronikoko horretan GEEDek adierazi zuen departamentu horretako Idazkaritza Tekniko Nagusiak esana ziola maskara horiek erosi ahal zituela, nahiz eta jarduera hori Ondare Zerbitzuarena izan, enpresa jarduera sustatzeko helburuarekin bat etortzen zelako, eta Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 140. artikulua aplikagarria zelako, zeinak aukera ematen baitzuen dagokion kontratazio espedientea presa bidez izapidetzeko.

10. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak egun berean erantzun zuen<sup>21</sup>, eta, beste gai batzuen artean, adierazi zuen departamentuak ez zuela maskarak erosteko ahalmenik, eta Ondare Zerbitzura jo behar zuela, gai hori kudeatzeko, presako kontua zela aurrez egiaztatuta. Gainera, enpresen arteko banaketak argia izan behar zuen, eta, lehia antolatuta behar zela, hala zegoenean, eskaera egin aurretik.

11. Aurrekoa gorabehera, txosten horren 14. orrialdearen arabera, eskaera 2020ko apirilaren 9an jada egina zen (Kontu-hartzailearen txostenaren arabera, 2020ko apirilaren 14an egin zen).

#### BIGARRENA. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUAK AKORDIOA SINATU AURRETIKO BILERAK DEITU ZITUEN, AKORDIOA SUSTATU ZUEN, ETA BERE KABUZ EROSITAKO FFP2 MASKARAK AKORDIOAN SARTU ZITUEN

**2.1.** GEEDek ondoz ondoko hiru bilera deia egin zien Nafarroako zenbait enpresari eta elkarteri, Akordioa gauzatzeko laguntza eske.

12. 2020ko apirilaren 13an, GEEDek mezu elektronikoko bat bidali zuen, eta ondoz ondoko hiru bilera egiteko deia jaso zuen<sup>22</sup>. Bilerak hurrengo egunean eginen ziren. Deialdia Nafarroako zenbait enpresari eta elkarteri bidali zien, enpresa gehiagori, eta CENi ere bai.<sup>23</sup> Departamentuak laguntza eskatu zion CENi bilera horiek egin nahi zituzten sektoreetako kontatuak aurkitzeko.<sup>24</sup>

**2.2.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak une oro bultzatu du akordioa. Hasierako premien zenbatespenak SODENAK egin zituen 13. Egin ziren hiru bileretan honako hauek agertu ziren: Garapen Ekonomikoko Departamentuko kontseilaria, Enpresa Politikaren nagusia, Industriako zuzendari nagusia, Sodenako zuzendari kudeatzailea eta, hirugarren saioan, Merkataritza eta Turismoaren zuzendari nagusia ere konektatu zen.

14. Bilera horietan Sodenak hasierako zenbatespenak jaso zituen, eta apirilaren 17ko mezu elektronikokoan honela zehaztu zituen: 326.000 maskara kirurgiko eta 253.000 FFP2 maskara. Informazio hori Sodenako María Eugenia Lecumberrik CENeko Carlos Fernández Valdivielsori bidali zion apirilaren 17an, posta elektronikoz.

15. Bilera horietan ez zen inoiz aipatu jada 307.200 FFP2 maskara erositako zeudela, eta geroago akordioan sartuko zirela.

#### HIRUGARRENA. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUAK PROPOSATU ZION CEN-I ENPRESEN SOLASKIDE BAKARRA IZATEA ETA AKORDIOA SINATzea

**3.1.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilariak CENi deitu zion telefonoz, akordioan laguntzeko eskatzeko.

<sup>20</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. orrialdea.

<sup>21</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. orrialdea.

<sup>22</sup> Ikus CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskinetako 6. dokumentua.. Manuel Ayerdi jaunak 2020ko apirilaren 13an bidalitako gutuna, bilera deia jakinarazteko.

<sup>23</sup> Hona hemen hiru saiotara deitutakoak: I. saiora: CEN, AIN, ANEL, Merkataritza Ganbera ANET, Tradisna, El Corte Inglés eta Mercadona. II. saiora: UCAN, ALINAR, Nagrifood, UAGN, APMEN, Gestamp, Enercluster, ACAN, ADEMAN, ACP eta ANECOP. III. saiora: Nafarroako Merkataritza Elkarteak, CLAVNA, ANTRV, ATA, UPTA, CEAT Navarra, Denok Bat, AEHN, ANAPEH eta FNMC.

<sup>24</sup> Hona hemen bilera horien xedea: *“Horniketari buruzko argazki eguneratua lortzea; horniketari aukerak ezagutzeko; Nafarroako enpresei NBE horniketari bermatzeko aukerak aztertzea. Bilerak apirilaren 14ko arratsaldean, asteartean, eginen dira.”*

16. 2020ko apirilaren 14an, GEEDek CENi laguntza eskatu zion telefonoz, CENek enpresa eta elkarteetan akordioaren arteko bitartekari lana egin zezan. CENek enpresei galdetu behar ziren beren NBE premiei buruz, prozesua errazteko.

**3.2.** Maskara erosteko eta saltzeko mekanismoa ezartzeko erabili ziren bideokonferentziak, deiak eta mezuak. Mekanismoa akordioan sartu zen.

17. 2020ko apirilaren 17an, 21ean eta 23an, zenbait bideokonferentzia, dei eta truke gertatu ziren. Hona hemen parte hartzaileak: Albyn Medical-eko Luis Collantes; Sodenako Pilar Irigoyen, María Eugenia Lecumberri eta Ainhoa Patiño; eta CENeko Carlos Fernández Valdivielso. Bilera horietan hasi zen Nafarroako enpresei emateko NBEak erosteko kanalaren funtzionamenduari zirriborroa egiten. Hona hemen mekanismoaren laburpena:

- Albynek hornitzailea aukeratzeaz eta materiala erostez arduratu behar zuen (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Laneko Osasunaren Institutuaren aholkularitza teknikoaren laguntzaz).
- Sodenak Albyni finantzaketa eman behar zion materialaren geroagoko erosketarako eta enpresei kobratzeko.
- CENek eskaerak eta enpresen zein elkarteetan premiak bildu behar zituen, eskaerak egin behar zituen eta enpresei materiala eman behar zien.
- Albynek CENi egin behar zion fakturazioa; eta CENek, enpresei.
- Albynek O-NOZi saldu beharko zizkion soberako izakinak, enpresak erosten ez bazituzten.

18. Bilera horietan CENi eskatu zioten enpresako elkarteetan premien gaineko zenbatespena egitea, inolako konpromisorik gabe.

**LAUGARRENA. AKORDIOA SINATU AURRETIKO EGUNA ARTE EZARRITA ZEGOEN O-NOZ-EK HARTUKO ZITUELA SOBERAKO IZAKINAK, ALBYN BABESTEKO BALIABIDE GISA. AZKEN MINUTUAN O-NOZ-EK UKO EGIN ZION AKORDIOA SINATZEARI**

**4.1.** O-NOZek hartu behar zituen soberako NBE izakinak, eta GEEDek horrela jakinarazi ziren alderdiei, hori baitzen Albynen erosketen bermea, Albynek soberako izakinen arriskua bere gain ez hartzeko.

19. Idazki honetan aipatu eta jasoko ditugun froga guztietan erakusten da Sodenak eta Albynek bazekitela soberako izakinen gaineko arazoa gerta litekeela, eta, hartara, O-NOZen parte hartzea eskatu zutela. Hona hemen hiru berehalako ondorioak, zeinak Kontuen Ganberaren txostenean ez baitira jaso: (i) soberako izakinak egoteko aukerak erakusten du zenbatespenak ez zirela lotesleak; (ii) O-NOZek bermatu behar zuen Albynek soberako izakinak bere gain ez hartzea; beraz, O-NOZek uko egin ondoren, arrisku horrek Albynen eskuetara itzuli behar zuen; (iii) O-NOZen uko egitea ezagututa ere, Sodenak eta Albynek akordioa sinatu bazuten, agerikoa da arriskuak beren gain hartu zituztela.

**4.2.** CENen eginkizuna enpresen eta elkarteetan premien gaineko zenbatespen hutsak egitea baino ez zen izan. Zenbatespenak ez ziren lotesleak.

20. 2020ko apirilaren 22an, CENek elkarteetan premien gaineko ikerketa bat egin zuen. Ikerketan sartu ziren CENeko kideak eta kide ez zirenak. Haietako batzuk Sodenak proposatu zituen: esaterako, CLAVNA, Nagri-food, ACAN; eta ekonomia sozialeko ANEL eta UCAN.

**4.3.** Sodenaren prentsa oharra, non berresten da O-NOZek akordioaren ondoriozko soberako NBEak bere gain hartu behar zituela.

21. 2020ko apirilaren 23an, Sodenak hau adierazi zuen prentsa ohar batean: “Azkenean, O-NOZek soberako babes material osoa hartuko du, soberakoa baldin bada, presa handieneko pilaketa aldiak bete ondoren. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak materialak bete beharreko premia teknikoaren gaineko erakunde aholkulari gisa jardunen du, eta, behar izanez gero, berezitasun teknikoak eta babesaren zein osasunaren arloetako irizpideak jakinaraziko ditu”.

**4.4.** Sodenak bere gain hartu zuen akordio osoa idazteko ardura, eta, behin eginda, alderdiei bidali zien, sina dezaten. O-NOZek soberako aleak erosteko konpromisoa hartu zuen, eta Albynek salmenten % 3,5eko marjina izanzen zuen.

22. Sodenak enpresa juridiko bati eskatu zion sinatzeko akordioa egitea. 2020ko apirilaren 24an lehen zirriborroa banatu zen, eta azken aurrekoa 2020ko apirilaren 27an banatu zen.

23. Zirriborroaren bertsio horien arabera, O-NOZ da soberako izakinak hartu behar zituena, Albynen erosketen babes gisa. Zehazki, zirriborroaren laugarren klausulan jaso zen gogoeta hori<sup>25</sup>:

24. Akordioaren bertsio horietan jakinarazi zen Albynek salmentaren prezioaren % 3,5eko marjina kobratuko zuela. Halaxe jaso zen 1.2.1 klausulan<sup>26</sup>

**4.5.** O-NOZek 2020ko maiatzaren 7an erabaki zuen akordioa ez sinatzea eta akordioa bertan behera uztea. Sodenak eta Albynek erabaki zuten aurrera jarraitzea, O-NOZen babesik gabe. Sodenak, Albynek eta CENek akordioa sinatu zuten 2020ko maiatzaren 8an. Sinadura aurretik, Albynek jada 600.000 NBE erosita zituen, akordioan sartzeko, nahiz eta baldintzen berri eman ez izana.

25. 2020ko maiatzaren 7an, Sodenak Akordioaren behin betiko zirriborroa bidali zien<sup>27</sup> alderdiei, sina dezaten, baina funtsezko aldaketa egina zen, horri buruzko eztabaidarik egon ez bazen ere: O-NOZek akordioa bertan behera uzten zuen, eta akordioaren eranskin batean zehaztu zituen bere betebeharren mugak. Sodenak aste batzuk lehenago izan zuen aldaketa horren berri, baina ezkutatu egin zuen, CENi behintzat ez zion horren berri eman. Albynek aldaketa hori onartu zuen, nahiz eta jakin O-NOZen bermea ez zuela edukiko. CENi inguruabar horrek ez zion eragiten, ez baitzuen parte hartzen materialen erosketan. Alderdiek akordioa sinadura elektronikoaren bitartez sinatu zuten.

26. Maiatzaren 8an, Albynek, CENek eta Sodenak bideokonferentzia izan zuten, zenbatespenetan oinarritutako eskaerari buruz hitz egiteko. Albynek ez zuen idatziz jakinarazi zer erabaki zuen, Akordioaren 3.1.3 atalean jaso bezala, ezta hornitzailerik, preziorik edo materialaren ezaugarririk ere.

27. Ildo horretatik, eta geroago jakin den bezala, Albynek 2020ko maiatzaren 1an egina zuen erosketa, eta Kontu-hartzailearen txostenaren arabera, 600.000 FFP2 maskara eskatuak zituen<sup>28</sup>. Albynek ez zuen inoiz eman eskatutako materialen berri. Jasotzeko data baino ez zuen jakinarazten, materiala beraren bulegoetara heldu eta gero.

**4.6.** CENen lehen eskaera, Akordioa sinatu aurretik.

28. Eskaera hain handia zenez, Albynek proposatu zuen apirilaren 27an egindako eskaera baten barneko FFP2 maskarak banatzea. Albynek telefonoz adierazi zuen bezala, hasiera batean O-NOZi ematekoak ziren. Alderdien fede ona baliatuta, aurrera jarraitzea erabaki zen, akordioa sinatuta ez bazegoen ere. CENek apirilaren 22ko mezu elektroniko baten bidez eskatu zuen maskaren ezaugarri teknikoak eta prezioa jakitea. Salmentaren prezioa berehala jakinarazi zioten, baina ezaugarri teknikoak ez zizkion jakinarazi apirilaren 27a arte, beraz, enpresei egun hori baino lehenago ezin izan zizkieten jakinarazi. Era berean, Albynek ez zuen eskaera horren jatorria jakinarazi, ezta hornitzailea edo erosteko prezioa ere.

29. Informazio hori edukita, eta akordioa sinatu gabe, CENek enpresei eta elkarreei emateko lehen barne eskaera zabaldu zuen. Maiatzaren 6an burutu zuen, 56.680 FFP2 maskararen eskaera irmoa jaso eta gero.

<sup>25</sup> Ikus Akordioaren 4. klausulan: “*SOBERAKO IZAKINAK HARTZEKO KONPROMISOA: Edozein inguruabar dela eta, behin akordio honen indarraldia amaituta, soberako NBERik oraindik ere baldin badago, hau da, NBE horiek inportatu badira, baina ez badira enpresei eta elkarreei banatu, alderdiek O-NOZi eskatu ahalko dizkiote soberako izakinak bere gain har ditzala. O-NOZek NBE horiek erosiko ditu ALBYN MEDICALen salmentako prezioan. O-NOZek konpromisoa hartu du NBE horiek hartzeko eta ALBYN MEDICALek edo CENek igorritako faktura ahalik eta lasterren ordaintzeko. Mutatis mutandis, aurreko 3.6., 3.7. eta 3.8. ataletan ezarritakoa aplikatu ahalko zaio O-NOZen erosketa eragiketara horri*”.

<sup>26</sup> Ikus Akordioaren 1.2. 1. klausula: “*Honela kalkulatu da ALBYN MEDICALek CENi NBEak saltzeko prezioa: ALBYN MEDICALek NBEak erosteko ordaindu duen prezioa gehi % 3,5*”.

<sup>27</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. orrialdea.

<sup>28</sup> Ikus Kontu-hartzailearen txosteneko 2. eranskineko 5. eta 6. orrialdeak.

30. Albynek adierazi zuen enpresei emateko maskaren prezioa 2,33 eurokoa zela, ale bakoitzeko. Kontu-hartzailearen txostenean ziurtatu daitekeen bezala<sup>29</sup>, Albynek erositako prezioa gehi % 3,5 lortzen da prezio hori, Akordioan ezarritakoaren arabera.

**4.7.** Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilaria Nafarroako Parlamentuaren aurrean agertu zen 2020ko maiatzaren 6an. Aitortu zuen bazitekeela soberako izakinak egotea, baina O-NOZek erosiko zituela.

31. 2020ko maiatzaren 6ko agerraldian, Manuel Ayerdi jaunak jakinarazi zuen O-NOZen funtsezko eginkizuna. Hitzez hitz hau esan zuen:

“Dakizuen bezala, gure laguntza gai horretan garrantzitsua izan da, lagundu ahal izan dugun heinean. Gure ekarpena egin dugu, eta, gure ustez, garrantzitsu samarra izan da [...]. Gaur egun, enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko lana egiten ari gara [...]. Baina zein da horren asmoa? Asmoa da enpresa horrek [...] NBE kopuruak erosi ahal izatea; NBE horiek izakinak sortuko dituzte; eta izakin horiek txikiagotzen joanen dira, autonomoei eta enpresa txikiei banatu ahala, haien premien arabera. [...] Akordio horretan O-NOZek ere parte hartze txikia izanen du, baina kualitatiboki garrantzitsua. Hori asko eskertzen dut. Zehazki, hau da: ETEek eta langile autonomoek hartzen ez duten soberakin txikiren bat izanez gero, O-NOZek hartuko luke, zentzuzkoa denez, eta horrela multzoa itxiko genuke”.

32. Horrenbestez, agerraldi horretan akordioei buruzko zenbait ebidentzia eman ziren:

i) materialaren gaineko arriskua kontuan hartzen zen; ii) O-NOZen eginkizunaren garrantzia nabarmendu zen, soberako izakinen erosle gisan; eta, azkenean, argi eta garbi adierazi zen iii) Osasun arloak hartuko zituela soberako izakinak, eta CENek, inoiz ez.

**4.8.** 2020ko maiatzaren 7an, Albynek jakinarazi zuen 29.000 FFP2 maskara gehiago jasoak zituela, eta horiei % 13,49ko onura marjina ezarri zien, Akordioan ezarritako % 3,5ekoaren ordean.

33. Maiatzaren 7an, Albynek posta elektronikoz jakinarazi zuen 29.000 maskara gehiago jasoak zituela, Danimarkako enpresa batek bidalita. CENek berehala kudeatu zituen maskara horien fakturazioa eta banaketa.

34. Mezu horretan Luis Collantes 2,33 euroko prezioa ezarri zuen, ale bakoitzeko. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean ziurtatu daitekeen bezala, Albynek maskara horiek erosteko ordaindu zuen prezioa 1,98 eurokoa izan zen, ale bakoitzeko<sup>30</sup>. Prezio horri garraio kostuak gehitu behar zaizkio, eta, zehazki, Albynek 2.133 euro ordaindu behar izan zituen, eskaera horri buruz. Maskara guztiei gastu horiek aplikatuta, erosketa prezioa 2,053 eurokoa izan zen. Prezio horri marjina (% 3,5) gehitu behar zitzaion, beraz, emaitzak 2,125 eurokoa izan beharko zuen, ez ordea, 2,33 eurokoa. Bestela esanda, Albynek marjina aldatu zuen partida horretan: % 3,5ekoaren ordean % 13,49koa ezartzeko.

35. Hori dela eta, Albynek Akordia urratu zuen, eta % 3,5eko marjina baino marjina askoz ere handiagoak aplikatu zituen.

**4.9.** Akordia sinatu ondoren, Sodenak prentsa ohar batean onartu zuen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua izan zela akordioaren ekimenaren bultzatzailea; eta berriro azpimarratu zen O-NOZek soberako izakinak erosiko zituela.

36. 2020ko maiatzaren 18an, Sodenak honako prentsa ohar hau argitaratu zuen bere webgunean, Akordioari buruz:

“Apirilaren amaieran, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak bultzatuta, hitzarmen bat sinatu zuten honako alderdi hauek: [...]. Gainera, enpresei eta elkartei eman ez zaien soberako NBERik balego, baldintza zehatz batzuen arabera hartuko luke”.

<sup>29</sup> Ikus Kontu-hartzailearen txosteneko 2. eranskineko 5. orrialdea.

<sup>30</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 20. orrialdea.



BOSGARRENA. 2020KO ESKAERAK. ALBYNEN MARJINA % 3,5EKO BAINO HANDIAGOA IZATEA. AKORDIOA 2020-12-31N AMAITZEA.

**5.1.** Albynek % 28,34eko marjina aplikatu zuen, Akordioan sinatutako % 3,5 aplikatu beharrean.

37. 2020ko uztailaren 6an, CEN hasi zen termometro infragorrien salmenta. Urte horretan 131 ale saldu zituen. Hau da Albynek adierazitako prezioa: 40 eurokoa, ale bakoitzeko. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena<sup>31</sup> irakurrita, ondorioztatzen da Albynek 300 ale hartu zituela 26,995 euroko prezioan. Garraio kostuak 510 eurokoak izan ziren, beraz, ale bakoitzaren amaierako prezioa 28,662 eurokoa izan zen.

38. Akordioan ezarritakoaren arabera, salmenta prezioari % 3,5 gehitu behar zitzaion. Beraz, emaitzak 29,665 eurokoa izan beharko zuen, ale bakoitzeko: kopuru hori oso urrun dago Albynek adierazitako 40 euroetatik. Bestela esanda, salmenta horien ondorioz, Albynek % 28,34ko marjina eskuratu zuen.

**5.2.** CENek proposatu zituen prezioak jaistea, material gehiago saltzeko, baina Albynek eta Sodenak uko egin zioten aukera horri.

39. 2020ko azaroaren 26an, Akordioaren azken eskaera egin behar zen. CEN harremanetan jarri zen Albynekin, prezioen berrikuspena berriro eskatzeko eta ale gehiago eskatu ahal izateko. Luis Collantesek erantzun zuen, eta adierazi zion Albynek ez zituela prezioak erabakitzen, Sodenak baizik<sup>32</sup>.

40. Egun berean, CENek jaso zituen soberako izakinen azken datu eguneratuak. Zehazki, Albynek hau adierazi zion:

<sup>31</sup> *Ikus* Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 20. orrialdea.

<sup>32</sup> *Ikus* CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskineko 7. dokumentua. CENek Albany 2020ko azaroaren 26an bidali zion mezu elektronikoa.

*“Egun on:*

*Honako hauek ditugu:*

*84.626 FFP2 MASKARA: 2,33 EUROAN*

*1.072.800 II-R MASKARA: 0,45 EUROAN*

*169 TERMOMETRO: 40 EUROAN”*

41. Bestela esanda, izakinen azken balorazioa 686.698,58 eurokoa izan zen, Albynek 2020an jakinarazi zuenaren arabera.

**5.3.** Akordioa 2020ko abenduaren 31n amaitu zen.

42. Akordioa 2020ko abenduaren 31n azkendu zen, eta egun horretatik aurrera ez zen loteslea izan alderdi sinatzaileentzat. Egun horretan ez zegoen CENek egindako eskaera irmorik, enpresei banatzeko. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean onartzen duten bezala, prezioen jaitsieraren eta NBEen eskaintzaren gehikuntzaren ondorioz, Albynen izakinen prezioak ez ziren lehiakorrak. Enpresek ez zeukaten egun horretan edo handik aurrera soberan egon zitekeen NBERik hartzeko betebeharrak, eta CENek ez zeukan soberako izakinik zentralizatzeko betebeharrak ere (inbentarioen arabera 2020an 1.167.426 maskara zeuden; eta 2021eko maiatzetik ekainera bitartean 600.000 gehiago heldu ziren, milioi eurotik gorako balioan).

SEIGARRENA. AKORDIOA IRAUNGI ONDOKO JARDUKETAK (2021EKOAK ETA 2022KOAK) CEN-EN LANKIDETZA, SOBERAKO IZAKINEI IRTENBIDEA EMAN AHAL IZATEKO. ALBYNEN ETA SODENAREN ERANTZUNA, CENI ESKATZEKO SOBERAKO IZAKINAK EROS DITZALA

43. 2020ko maiatzaren 8ko akordioan ezarritakoaren arabera, akordio horren arabeko betebeharrak 2020ko abenduaren 31n amaitu ziren. Horren ondorioz, CENek eskaerak egiteko kanala itxi zuen. Hala eta guztiz ere, eta soberako izakinen gaineko arazoa kontuan hartuta, akordioa amaitu ondorengo bi urteetan (2021ean eta 2022an), CENek jarrera argia izan du Sodenarekin eta Albynekin lankidetzan aritzeko, soberako izakinei irtenbidea ematen laguntze aldera.

44. Aurrekoaren frogara da 2021eko otsailaren 17an, CENek, Sodenak eskatuta, bideokonferentzia batean parte hartu zuela, izakinen arazoa jorrazteko. CENek bazekien akordioa amaitua zegoela, baina, hala ere, salmentako kanala berpiztea eskaini zuen, baldin eta prezioak berrikusten baziren, eta egungo merkatuaren arabera egokitzen baziren.

45. Era berean, 2021eko apirilaren 12an, eta berriro Sodenak eskatuta, CENek informazioa bidali zuen 2020ko apirilako zenbatespenei buruzkoa.

46. CENek laguntzeko eta irtenbideak bilatzeko joera izan arren, 2021eko apirilaren 21ean, Sodenak eta Albynek CENi judiziorik kanpoko erreklamazioa bidali zioten posta elektronikoz, eta bertan CEN izendatzen zuten soberako izakinen arduraduna. Izakin horien balioa 1,8 milioi eurokoa zen.<sup>33</sup>

47. Erreklamazio hori guztiz bidegabekoa da, honako arrazoi hauengatik: i) Akordioaren klausuletan ez zen jaso CENek bere gain soberako izakinik hartu behar zuenik; ii) Albynek 2020ko azaroaren 23an jakinarazi zituen izakinen balioa 686.698,58 eurokoa zen, ez 1,8 milioi eurokoa; eta iii) Kontuen Ganberaren txostenari esker<sup>34</sup>, jakin dugu egun horretan Albynek ez zituela izakin guztiak. Zehatzago esanda, frantses hornitzaileak bidali behar zituen 600.000 maskarak, hainbat arrazoi direla-eta, Albynek eskaera egin (2020ko maiatzean) eta ia urtebetea geroago ez zeuden Espainian merkaturatzeko prest.

48. 2022ko apirilean, Sodenak Albyni eta CENi adostasun bati buruzko testua bidali zien, izakinei irteera emateko. CENek dokumentu horren aldaketak proposatu zituen, negoziazioa hasteko eta akordioa sinatu ahal

<sup>33</sup> Ikus CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskinetako 6. dokumentua. CENi 2021eko apirilaren 21ean bidali zioten gutuna: *“ALBYNek eta SODENak kontratuaren arabeko betebeharrak bete dituzte, beraz, CENek ere gauza bera egin behar du. Ildo horretatik, ALBYNek eta SODENak uneoro beren betebeharrak bete dituzte CENen jarraibideei jarraituta; beraz, ezin dugu NBE izakinen arduradunak izaten jarraitu”*.

*“... Laburbilduz, gaur egun izakin kopuru handia dago, gutxi gorabehera, 1,8 milioi eurokoa”*.

*“Horrenbestez, eskatu egiten dizuegu, CENek al bait arinen kontratuaren arabeko betebeharrak bete ditzala eta erosteke dauden NBE guztiak har eta ordain ditzala. Hori egin eta gero, izakinak emanen dizkizuegu”*.

<sup>34</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 22. orrialdea.

izateko. CENek eskatu zuen, izakinei irtenbidea emateko akordio bat sinatzekotan, 2021eko gutuna indargabetu behar zela, gutun horretan CENi eskatzen baitzioten izakinak erosteko, izakinen balioa 1,8 milioikoa izanda. Sodenak eta Albynek ez zuten CENek bidalitako zirriborroaren gaineko erantzunik eman, eta ez zuten negoziatziorik hasi.

49. 2022ko azaroaren 7an, akordioaren hiru sinatzaileen arteko bilera bat egin zen, hau da, Sodenaren, Albynen eta CENen artean.

50. Bileran, CENek aurkezpen txikia egin zuen, eta Gobernuari eskatu zizkion maskara horiek saldu eta erabili ahal izatearen gaineko bermeak, balizko hartzaileak aurkitu ahal izateko. AEMPS Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak ohar batean adierazi zituen izakinen merkaturatzeari buruzko zalantzak (kutxetan grafenoazko biomasaren presentziaz ohartarazten zen), eta, gainera, jakinarazten zuen maskarak IAI-TEX laborategian aztertuta zituela, eta laborategi horrek ziurtatua zuela maskarek ez zituztela betetzen Europako merkaturak eskatutako kalitate betekizunak. Gauzak horrela, CENek Gobernuari eskatu zizkion izakinak erabiltzeko eta merkaturatzeko baldintzen gaineko ziurtagiriak. Horri buruz, CENek berriro adierazi zuen alderdiei laguntzeko borondatea, hau da, izakinei irtenbidea eman behar zitzaie, baina baldintzak bermatu behar ziren, NBEen entregak berak arazo gehiago ez sortzeko.

51. Bilera horretan alderdiek onartzen zuten gaia presakoa zela, biltegiratutako izakinek iraungitze eguna zeukatelako, eta egun horretatik aukera ezin izanen baitziren erabili jatorrizko xederako.

52. Presako gaia izanik, CENeko idazkariak 2022ko azaroaren 7an mezu elektronikoko bat bidali zien Sodenako presidenteari eta Albyneko zuzendari nagusiarri, eta kopian presidentearen aholkularia, Félix Taberna, jarri zuen.

*“Mikel eta Luis agurgarriak,*

*Gure goizeko bilera positiboa izan da. Egun arte ikusi eta entzun dugunaren harira, gauza efektibo bakarra da, irtenbide azkarra aurkitzeko. Uste dut argi geratu dela beti erantzun dugula maskara izakinei irtenbidea emateko laguntza eskatu dugutenean, baita ahalik eta laguntzarik handiena eman ere.*

*Gai horren egoera dela eta, gure ustez ezinbestekoa da jarduketak eta epeak zehaztea.*

*Horren harira, gaur goizean adostu dugun moduan, honekin batera bidaltzen dizkizuegu uda aurretik CENetik eskatu genituen maskareei buruzko enseguen emaitzak. Horrez gain, AEMPSeko oharra ere gehitu dugu. Bertan adierazi dute merkaturatzeko baldintza. Horrez gain, guk dugun maskara kutxen gaineko argazkietan argi adierazi da “biomass graphene”.*

*Horrenbestez, hau falta da:*

- *Maskarak erabil eta sal daitezkeela ziurtatzeko agiriak; zehazki, kutxetan eta etiketetan “biomass graphene” idatzita duten kutxen eta etiketen barneko maskarak arazo barik merkaturatu daitezkeela >> Nafarroako Gobernua.*

- *Egungo izakinak azaltzeko taula, zenbat maskara dauden, mota bakoitzeko, aipatutako ziurtagiriak eta sorta bakoitzaren iraungitze data. > Sodenak / Albyn*

- *Izakinetakoa maskara mota bakoitzeko zer prezio ordaintzen ari den jakiteko ikerketa eta iraungitze datak, zuek prezioa ezarri ahal izateko:*

- o CENek, NBEak behar dituzten konfederazioko kideen artean;*

- o Sodenak, bere azpiegituretako klusterren edo bere irismeneko beste batzuen artean;*

- o Nafarroako Gobernuak, Osasun arloarekin;*

- o Albynek, sektoreko eragile edo banatzaile ohikoenen artean, baita*

- NBEak erabiltzen jarraitzen duten gainerakoenen artean ere.*

*Jarduketa horiek aste honetan gauzatu beharko genituzke.*

*Adeitasunez, zure berrien zain.*

*Jaso ezazue agur bero bat”.*

53. 2022ko azaroaren 15ean ez genuen mezu elektronikoko horren erantzunik jaso, beraz, CENeko idazkari nagusiak beste mezu elektronikoko bat bidali zien Sodenako presidenteari eta Albyneko zuzendari nagusiarri, eta kopian presidentearen aholkularia, Félix Taberna, jarri zuen. Jakinarazpen horretan azaldu zen CENek, azaroaren 7ko bileraren ostean, uda aurretik maskareei buruz egindako entseguen emaitzak bidali zizkien arren, eta maskara kirurgikoei eta FFP2 maskareei lotutako balizko interesdunei, kopuruei eta merkatuko prezioei buruzko lehen ikerketa egin arren, CENek ez zuela jaso Sodenak eta Albynek bete behar zituzten puntuei buruzko informaziorik, hau da, ez zuen jaso erabiltzeko eta saltzeko aukerei buruzko ziurtagirien, maskara motak zerrendatzeko taulen, iraungitze dataren edo merkatuan maskarak erosten jarraitzen dutenek ordaindutako prezioen berri, interesdunei maskarak merkaturatzeko prezioa ezarri ahal izateko.<sup>35</sup>

54. Mezu elektronikoko horri buruz, azaroaren 15ean, Albynek erantzun zuen denbora gehiago behar zutela prozesua osatzeko, parte hartzen zuten erakunde guztiek oniritzia eman behar zutelako.<sup>36</sup>

55. Sodenak ez zuen erantzunik bidali. Albynen mezu elektronikokoaren arabera, ondorioztatu egiten da inork ez zuen maskarak saltzeko eta erabiltzeko ziurtatu behar ziren bermeen gaineko zalantzarik planteatu, CENek eskatu zuen bezala; eta horrek erantzuna atzeratu zuela. Edonola ere, harritzekoa da Albynek Nafarroako Administrazioaren eta Gobernuaren denbora epeak zehaztea, eta ez Sodenak.

56. Azkenik, 2022ko azaroaren 30ean, 2022ko azaroaren 7ko bilera eta 23 egun igaro ondoren, eta CENek Albyni eta Sodenari NBEen erabilerearen eta merkaturatzearen edo beste kanal batzuen bidezko salmentaren gaineko bermeak ezagutzeko laguntza eske bidali zien mezua eta astebetara, CENek beste mezu elektronikoko bat bidali zien Sodenako presidenteari eta Albyneko zuzendari nagusiarri, eta kopian presidentearen aholkularia, Félix Taberna, jarri zuen, informazio hori eskatzeko. Azpimarratu nahi dugu gaur egun oraindik ere ez dugula jaso Albynen edo Sodenaren erantzuna, mezu horri buruz.<sup>37</sup>

<sup>35</sup> Ikus CENeko idazkari nagusiak 2022ko azaroaren 15ean bidali zuen mezu elektronikoa: *“Aurreko astean, bileraren ostean, bidalitako mezuaren bitartez, uda aurretik maskareei buruz egin genituen entseguen emaitzak bidali genizkizuen.*

*Ez dugu jaso zuek bete behar zenituzten puntuen berri (hau da, erabiltzeko eta saltzeko aukerei buruzko ziurtagirien, maskara motak zerrendatzeko taulen, iraungitze dataren edo merkatuan maskarak erosten jarraitzen dutenek ordaindutako prezioen berri, interesdunei maskarak merkaturatzeko prezioa ezarri ahal izateko). Arraroa iruditzen zaigu, iraungitze data hain gertu egonda eta zuek gai hori konpontzeko interesa edukita, zuen kudeaketen berri ez izatea, egoeraren gatazka ebazte aldera.*

*Gure aldetik, eskaini genituen laguntzako jarduketak jada egin ditugu. Maskara kirurgikoei eta FFP2 maskareei lotutako balizko interesdunei, kopuruei eta merkatuko prezioei buruzko hasierako ikerketa egin dugu, beraz, informazio hori bidali ahal dizuegu, zuek agian jaso duzuen informazioarekin erka dezazuen.*

*Edonola ere, aipatutako informazioa guri bidaltzea eskatzen dizuegu, eta, ahalik eta gardentasun osoz, guri aurrez informatzeko zuen erabakiei buruz, erabakien berri zuen eskuetatik jasotzeko.*

*Bestalde, erabilera eta salmenta ziurtatzeko beste entsegu batzuk egiteari ondo irizten badiozue, mesedez, guri adierazi zein entsegu diren, zer maskara motari buruzkoak eta haien emaitzak”.*

<sup>36</sup> *Ikus Albynek 2022ko azaroaren 15ean bidali zuen mezu elektronikoa: “Zoritzarrez, CENek eskatu du Nafarroako Gobernuak sinatutako gutun bat jasotzea, maskarak saltzeko aukera ziurtatzeko, eta horrek ikerlana eta analisia egiteko prozesua betetzea eskatzen du, eta zenbait erakundek parte hartu behar dute horretan, beraz, ezin da bete egun batetik bestera. 2020tik aldatu egin da legeria, eta abar.*

*Jada adierazi dugun bezala, laguntzen saiatzen ari gara, eta ahalik eta azkarren egiten saiatzen gara, iraungitze datak ezagutzen ditugulako.*

*Egokitzat jotzen dugu zuek prezioen gaineko zenbatespena izatea, eta egoki irizten diogu zenbatespen hori gurekin partekatzeari.*

*Froga berriak egiteari dagokionez, horren berri emanen dizuegu, egiten baldin baditugu, baina oraingoz ez dugu uste beharrezkoa denik: batetik, zuek egin dituzuelako; eta, bestetik, egileak egin behar izan zituelako, baita AEMPSek berak ere. Kasu batean zein bestean, emaitzek positiboak izan behar dute CE etiketa dutelako, eta ebazpena eman zutelako”.*

<sup>37</sup> *Ikus CENeko idazkari nagusiak 2022ko azaroaren 30ean bidali zuen mezu elektronikoa: “Jada 23 egun igaro dira, azaroaren 7an izan genuen bileratik, eta astebetara baino denbora gehiago igaro da mezu*

57. Azkenean, egun bereko 19:38an, Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko departamentu buruaren kabineteak mezu elektronikoa bidali zuen, eta abenduaren 12ko 18:00etan bilera bat egitea proposatu zuen.

58. CENek behin eta berriro eskatu ondoren, azkenean, Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak bilera bat egin zuen abenduaren 12an, eta bertan parte hartu zuten Albyneko, Nafarroako Gobernuko eta CENeko ordezkariak.

59. Bilera horretan, CENek, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren arabera ezagutu zituen datu berriak berrikusita, berriro adierazi zuen laguntzeko asmoa, behin betiko irtenbidea aurkitzeko.

60. Albynek adierazi zuen irtenbide berrian alderdi guztiek konpromisoa hartu behar zutela geroago erreklamaziorik ez egiteko.

61. Kontseilariak erantzun zuen planteamendu hori aztertuko zuela, arazoa konpontzeko irtenbide gisa.

62. CENek adierazi zuen presakoa zela maskaren erabilera abiaraztea (posiblea izanez gero), iraungitze data heldu aurretik. Horretarako, berriro galdetu zuen izakinei buruz (zenbat, zein maskara mota, zenbat erabil zitezkeen, zenbat merkaturatu zitezkeen).

63. Gai horri dagokionez, ALBYN MEDICALeko ordezkariak CENi jakinarazi zion 2022ko abenduaren 12an (hots, egun horretan) bermatua zutela biltegiratutako maskararik ezin zela merkaturatu, hainbat arrazoi zirela-eta, AEMPSen irizpidea aldatu ezean.

*elektroniko baten bidez (ikus behean) presaz eskatu genizuenetik NBE horiek merkaturatu daitezkeen ziurtatzea, salmentaren edo beste bitarteko batzuen bidez zirkularazi daitezkeen jakiteko.*

*Informazio hori ematen ez badiguzue, ezin dugu urratsik egin, izakinei irtenbidea ematen laguntzeko, ezta behar bezalako presaz laguntzeko ere. Esaguzu zer informazio duzuen horri buruz, geuk ere aurrera egin ahal izateko, edo noiz jakin ahalko dugun NBE horiek erabil daitezkeen.*

## ALEGAZIOAK

AURRETIKOA. KONTUEN GANBERAK CENI LEPORATU DION ERANTZUKIZUNA EZ DA LOTESLEA, CEN EZ BAITA FISKALIZATU DAITEKEEN SUBJEKTURIK. HARRIGARRIA DA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENEAN SODENAREN ETA ALBYNEN URRAKETAK BARKATZEA EDO OMITITZEA, KONTUAN HARTUTA FISKALIZATU DAITEZKEEN SUBJEKTUAK DIRELA.

65. Lehenik eta behin, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak gainditu egiten ditu legeak erakunde horri esleitzen dizkion eginkizunak: (i) Nafarroako sektore publikoen kontuak eta kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea; (ii) Parlamentuari gai ekonomiko eta finantzarioei buruzko aholkuak ematea.

66. CEN erakunde pribatua da, eta Akordioaren esparruan subjektu pribatu gisa jarduten du, beraz, legearen arabera, Ganberak ez dauka CENen jarduketak auditatzeko, fiskalizatzeko edo kontrolatzeko ahalmenik, Akordioari dagokionez.

67. Ildo horretatik, Ganbera horren eskarmentua eta ezagutza kontu-auditoretzako lanetan zentratzen da, eta ez kontu-auditoretzaz guztiz bestelako araudi bati lotutako dokumentu pribatuen azterketa juridikoan.

68. Behin hori esanda, nabarmentzekoa da Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean eta Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaitzaren txostenean ez aurkitzea fiskalizatu daitezkeen erakunde horien urraketarik edo irregulartasunik; baina, bai, ordea, CENenak. Izan ere, fiskalizatu ezin daiteken erakundeari buruzko zuzeneko adierazpenak jaso dituzte.

69. Harridura sinesgaiztasun bihurtzen da, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean CENi buruz ematen duten irudia ziurtatu eta gero. Kontuen Ganberaren behin-behineko txosteneko kontakizunean adierazi ez bezala, CENek ez zuen bultzatu maskarak diru publikoaren bidez erostea, ezta enpresen ordezkari gisan ere. CENek ez zituen premiak bidegabe zenbatu, eta ez zituen gainerako alderdiak engainatu edo soberako izakinik sortu, ez du irtenbide negoziaturik oztopatu, eta ez zion irtenbidea bilatzen laguntzeko informazioa emateari utzi. Irudi hori ez dator bat ziurtatu ditugun egitateekin; aldiz, erabat faltsua da, eta CEN behartuta dago foro eta instantzia guztietan horren aurka borrokatzera.

70. Testu zehatzari dagokionez, zuzendu edo argitu behar diren kontzeptu garrantzitsuenak segidan laburtu ditugu; izan ere, egungo idazkeran ez diote errealitateari erantzuten, irakurketa okerra eragiten dute, eta irakurlearen analisiak eta ondorioak kutsatzen dituzte. Horretarako, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenetik atera dugu gure ustez zehaztu gabeak edo akastunak diren zatiak, gure iruzkinak, gogoetak eta zuzenketak ere gehitzeko.

LEHENA. KONTUEN GANBERAK TXOSTENA EGITEKO ERABILI DITUEN INFORMAZIO, DOKUMENTAZIO ETA ITURRIEN ZERRENDA OSATUGABE DAGO.

71. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 5. orrialdean jaso da Kontuen Ganberak honako dokumentu hauek erabili dituela akordioari buruzko ondorioak idazteko:

*“Gure azterlana denboraldi horri buruzkoa da. Horretarako, honako informazio hau aztertu dugu:*

- *Sodenak, O-NOZek eta hiru enpresa laguntzailek sinatu zuten akordioa.*
- *Sodenak, CENek eta Albynek sinatutako akordioa, baita hori egin aurretiko zirriborroak ere.*
- *Akordioa sinatzeko eta betearazteko dokumentazio nagusia: Sodenaren Administrazio Kontseiluaren aktak; CENek bidali zuen premien aurreikuspena; Albynek egindako eskaerak; Albynek egindako salmentak; alderdien arteko mezu elektronikoak.*
- *Sodenak, CPENek eta CENek eskatuta, abokatuek egindako txosten juridikoak.*
- *Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailleko eranskina, 2022ko urtarrilaren 31ko laburpen txostenari gehitua. Nafarroako Foru Komunitateko sozietate eta fundazio publikoen eta erakunde autonomoen legezotasuna betetzeari buruz adostutako prozeduren eta urteko kontuen auditorien 2020ko abenduaren 31ko emaitzei buruzko eranskina da”.*

72. Puntu horri buruz, CENek adierazi nahi du paragrafo hori osatu gabe dagoela. Zehatz-mehatz, informazio horrekin batera, Kontuen Ganberak honako informazio iturri hauek ere aztertu zituen:

- Nafarroako Gobernuko departamentuetako buruen arteko mezu elektronikoak (Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. orrialdean adierazi den bezala), eta horiek ez ziren akordioaren sinatzaileak.
- Sodenako Administrazio Kontseiluaren akten eranskinak; izan ere, eranskin horien edukia ez da publikoak, akten edukia ez bezalakoa.
- Deloitte CENi egindako lanaren gaineko gutuna, baita VI. eranskina ere, zeina entregatu baitzion Kontuen Ganberari.
- CENeko ordezkariarekin izandako bileran eskuratutako datuak.

BIGARRENA. EZ DA EGIA CEN-EK KONTUEN GANBERARI INFORMAZIO OSOA EMAN EZ IZANA.

73. Kontuen Ganberaren txosten osoan iradokitzen da CENek ez zuela behar bezala lagundu, emandako informazioari dagokionez; izan ere, txostenean aipatzen da ez diola zenbait dokumentu eman Kontuen Ganberari, eta, hartara, Ganberaren lana oztopatu duela. Adierazpen horiek ez dira egiazkoak, eta segidan azalduko dugu:

Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 5. orrialdea:

*“Kontuen Ganberaren lanean oztopoak aurkitu dira, CENek ez baitio ganberari eman enpresen elkarteei, ETEei, mikroETEei edo langile autonomoei egindako zenbatespenen eskaerei buruzko dokumentazioa, ezta CENek geroago egin zituen salmenten fakturak ere. Ganbera honi bidalitako fakturen gainean, CENek adierazi zuen ezin zuela daturik bidali, datuak babesteko araudia ez urratzeko”.*<sup>38</sup>

74. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean jaso ez bezala, CENeko idazkari nagusiak 2022ko irailaren 27an Kontuen Ganberaren mezu elektroniko bat jaso zuen, eta hau eskatzen zioten:

<sup>38</sup> Eta antzeko terminoetan, ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 16. orrialdea: *“Horri buruz aipatu behar dugu CENek ez digula eman enpresa horiei zenbatespenak egiteko eskaeren gaineko dokumentaziorik, beraz, ezin izan dugu egiaztatu zer baldintzatan egin zen.”* Eta 23. orrialdean: *“Horri dagokionez, CENek ez digu eman enpresei egin zizkien salmenten berri, beraz, ezin izan dugu ziurtatu zer enpresari saldu zizkion NBEak eta zer baldintzatan.”* CENek Ganbera honi esan zion ezin zuela informazio hori eman, datuak babesteko araudia ez urratzeko”.

*“1. Enpresek emandako kalkuluen euskarria, enpresa CENeko kidea den ala ez adierazita.*

*2. CENek enpresei egindako salmenten fakturak.*

*3. Albynekin NBEak erosteko erabakiei buruz egindako hartu-emanen euskarria, halakorik egonez gero.*

75. 2022ko urriaren 4an, aurreko mezu elektronikoa erantzuteko, CENeko idazkari nagusiak posta elektronikoz erantzun zion, honako testu hau jasota:

*“Zuen hiru eskaerei segidan erantzunen diet:*

*1.- Enpresek emandako kalkuluen euskarria, enpresa CENeko kidea den ala ez adierazita.*

*Aurreko astean telefonoz adierazi genuen bezala, Sodenari 2021eko apirilaren 12an, eskaera bera jaso genuenean, eman genion erantzun bera erantsi diot mezuari. Dokumentu horretan jaso da CENek jaso zuen enpresa edo kluster bakoitzaren zenbatespena (enpresek zuzenean eman beharrean, horrela eman baitzigu), eta dokumentu horretan esteka bat dago enpresa bakoitzak bidali zuen dokumentuan sartzeko.*

*2.- CENek enpresei egindako salmenten fakturak.*

*Gure aholkulari juridikoekin gai hori jorratu ondoren, adierazi digute ezin dugula informazio hori eman, parte hartzen duten hirugarrenen baimena eduki ezean, ez baitago prozedura irekirik edo errekerimendurik.*

*3.- Albynekin NBEak erosteko erabakiei buruz egindako hartu-emanen euskarria, halakorik egonez gero.*

*Hartu-eman horiei dagokienez, telefonoz jada aurreratu nizun bezala, guk Albynekin garai hartan izan genituen hartu-emanak Sodenak jada ezagutzen ditu; eta uste dugu Sodenak zuei jada bidali dizkizuela”.*

76. Egun berean, idazkari nagusiak beste mezu elektronikoa bat jaso zuen, igorle berak bidalita, informazio gehiago eskatzeko.<sup>39</sup>

77. Urriaren 5ean, auditoreen taldeak eskatuta, Kontuen Ganberan CENeko idazkari nagusiaren eta talde horren arteko bilera bat egin zen. Bilerak bi ordu inguru iraun zuen. Bilerari egin bitartean, auditoreen taldeak eta idazkari nagusiak egitate auditatuaren kronologia jorratu zuten, eta idazkari nagusiak erabaki zuen datuak, datak eta zifra zehatzak ematea, CENek 2020ko apirilaren 13tik 2022ko urriaren 5a (bilera eguna) arte egindako lanari buruz.

78. 2022ko azaroaren 25ean, Kontuen Ganberak CENi bidali zion “Kontuen Ganberaren zirriborroa, zeinak aldaketak jaso baitzitezkeen”. Zirriborro horretan aurreko paragrafoak jasota zeuden, hau da, bertan adierazten zen CENek auditoreen txostena egiteko lana mugatua zuela, datu jakin batzuk ez emateagatik

79. CENek abenduaren 2an Kontuen Ganberari fitxategi bat bidali zion, txosten horri buruzko iruzkinak eta argitzeko azalpen hau jasota:

*“2022ko irailaren 27ko mezu elektronikoa baten bidez, Kontuen Ganberak CENi eskatu zion honako gai hauei buruzko informazioa: NBE beharren zenbatespenak eta CENek enpresei egindako salmenten fakturak. 2022ko urriaren 4an, CENek mezu horri erantzun zion, eta enpresen eta elkartearen zenbatespenak bidali zituzkion, baita enpresa bakoitzak behar zituen NBE kopurua ere. Era berean, mezu elektronikoa berean, CENek arrazoitu zuen ez zuela fakturarik bidaliko, faktura horietan hirugarrenen gaineko informazioa zegoelako, hirugarren horiek ez baitzeuden akordioan sartuta, eta ez baitzuten baimenik eman faktura horiek bidaltzeko. Azkenik, Kontuen Ganberak ez zion inoiz CENi galdetu eskaera irmoiei buruzko informaziorik; CENek ez dauka errekerimendu horren frogarik. (Eranskinen 1. dokumentua)”.*

<sup>39</sup> Ikus 2022ko urriaren 4ko mezua: “Bi gauza eskatu behar dizkizut, ea posiblea den: 1) Egun batean esan zenidan enpresen fakturazioari buruzko laburpen taldekatua bidali ahal zenidala, enpresen zenbakia, zenbaketak eta gainerakoa adierazita Nire ustez, txosten horretan izenik edo datu pertsonalik adierazten ez badugu, ez da arazorik egonen, informazio hori emateko. 2) Gustatuko litzaiuke Albynek CENi bidalitako fakturak jasotzea. Bihar esanen diguzu posiblea den”.



80. Aipatu berri dugun eranskineko 1. dokumentua<sup>40</sup> gutun bat da, eta bazkide batek, zuzendari batek eta Deloitteko kudeatzaile batek sinatu dute. Hau adierazi dute: “CENek Albyn Medical SA-ri eskatu dizkion kopuruak bat etortzen dira CENeko enpresek eta elkarteek egindako eta fakturatutako kopuruekin”. Dokumentu horri eranskin bat gehitu zaio, eta bertan zehazten dira CENek enpresei eta elkartei fakturatu dizkien NBE kopuruak, haiek CENi eskatu zizkioten NBE kopuruaren aldean. Eranskin horretan argi ikusten da aurreko adierazpenen koherentzia.

81. 2022ko abenduaren 7an, Kontuen Ganberak behin-behineko txostena bidali zuen. Txosten horretan bildu dira 5., 16. eta 23. orrialdeetan adierazitako paragrafoak, alegazioaren hasieran aipatu dugun bezala.

82. Egun berean, CENeko idazkari nagusia harremanetan jarri zen auditoreen taldearekin, zehazki, ziurtatu zuenean auditoreen txostenean jaso dutela CENek auditoreen lana mugatu zuela, aipatutako informazioa ez emateagatik. Elkarriketa horretan, idazkari nagusiak errepikatu zuen ez zuela idatzizko informazio eskaera horren berririk jaso, eta fakturei buruz argitu zuen jada aditu independentearen gutuna bidalia zela, fakturaturakoa ziurtatzeko. Auditoreen taldeak jakinarazi zion informazio hori urriaren 5eko bileran eskatu zutela. Idazkari nagusiak berriro ere adierazi zuen ez zegoela eskaera horren idatzizko frogarik, eta bileran hainbat gai jorratu zituztela, baina egindako eskaerarik, jorratutako informaziorik edo partekatutako daturik ez zen bildu akta batean.

83. Egitateen kronologia hori dela eta, CENek alegazio honetan segidan erakutsi du elkartei eta Sodenako gainerako erakundeei 2020ko apirilaren 20an bidali zien mezu elektronikoa, hilabete bateko zenbatespena biltzeko (enpresei konpromisorik ezarri gabe)<sup>41</sup>.

84. Behin informazio hori emanda, eskatu egiten dugu lehenago adierazi ditugun paragrafoak ezabatzea eta txostena aldatu eta inolako mugarik gabe bukatzea.

85. NBEak enpresei saltzeko baldintzei dagokienez, CENek jada behin baino gehiagotan adierazi du Akordioaren erabakiak zorrotz bete zituela. Ildo horretatik, berriro ere adieraziko dugu salmenta guztien prezioa

<sup>40</sup> Ikus CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskineko 1. dokumentua.

\*

<sup>41</sup> *Lagun hori:*

*Gehienok dakizuen bezala, Gobernuarekin batera kudeatzen ari gara ETEei, mikroETEei eta langile autonomo emateko norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erosteko kanal bat ezartzeko aukera, zailtasun handiak baitaude material hori behar bezalako prezioan, epeetan eta bermeekin erosteko.*

*Hori dela eta, CENekin batera lan egiten ari gara, CEN Gobernuarekiko hizketakidea izan dadin, eta gure elkartearen egitura banaketa kanala izan dadin, enpresei NBEak banatzeko.*

*Ildo horretatik, ostiralean bideokonferentzia izan genuen 20 elkarte ingururekin, interesa berresteko eta sistemari eta tartean egon daitezkeen gaiei heltzeko.*

*Oro har, gehienek ondo hartu zuten.*

*Aipatu den prezioa 2,25 + BEZ da, FFP2 maskara badira; 6,7 + BEZ, FFP3 maskara badira; eta 0,53 + BEZ, 2. mailako maskarak badira; eta 55 + BEZ, termometroak badira. Halaber, beste material batzuk eskatzeko aukera dugu (eskularruak, batak, testak eta abar), baina oraingoz ez dugu informaziorik. Material horien fitxa teknikoak eta argazkiak eskatu ditugu.*

*Interesa edukiz gero, mesedez, adierazi **konpromisorik gabeko zenbatespena**, zuen enpresetan maiatzean behar harko zenuketen materialen arabera. Zenbatespen hori biharko, astearte honetarako, behar dut, goizeko lehenengo orduan. (Letra beltzez nabarmendutako zatia geuk nabarmendu dugu)*

*Akordioak aurrera egiten baldin badu, guk konpromisoa hartuko dugu enpresa guztiei erantzuteko.*

*Era berean, baldintza berak eskaintzen dizkiegu beste erakunde batzuei ere bai: klusterrei, ANELi eta ATARI. Gobernuak hala eskatu digu eta.*

*CENek eskaerak eta ordainketak bideratuko ditu.*

*Horrez gain, gaur egun NBEak banatzen dituzten tokiko banatzaileen gaineko gaia ere jorratu dugu barnean, gai delikatu iruditzen zaigulako, baina, ezohiko egoera honetan ezohiko ahalegina egin behar dela pentsatzen dugu. Gure ustez, tokiko banatzaileek beren bezeroak izaten jarraituko dute, beraz, arrazoi hori ezin da nahikorik izan beste mekanismo bat ez ezartzeko eta autonomoiei eta ETEei bidaltzeko erosketak bateratuak ez egiteko. Ez gaude bereizketarik egiteko unean, baizik eta enpresariei eta guztiei zerbitzu unibertsalaren bitartez baldintza beretan irtenbidea emateko unean”.*

Albynek zehaztutako “salmentako prezioa” izan zela eragiketa bakoitzean: 2,33 euro, FFP2 maskarak baziren; 0,45 euro, II-R maskara kirurgikoak baziren; eta 40 euro, termometroak baziren.

86. Azkenik, adierazi nahi dugu CENek Kontuen Ganberarekiko komunikazioan ez duela aipatu datuak babesteko araudiaren urraketarik. Zehatzago esanda, CENek erantzun zuen ezin zuela informazio hori bidali ez baitzuen “tartean sartutako hirugarrenen baimena, eta ez baitzegoen prozedura irekirik edo errekerimendurik”.

**HIRUGARRENA. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUAK ERA-BAKIA HARTU ETA LANKIDETZAKO AKORDIOA BULTZATU ZUEN, 307.200 FFP2 MASKARA ESLEITZEKO. MASKARA HORIEK AKORDIOA SINATU AURRETIK EROSI ZITUEN, BERE KABUZ.**

87. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 6. orrialdean jaso dira NBEak erosteko lankidetzako eta finantza laguntza emateko akordioa sinatzeko arrazoiak, eta honako paragrafo hau ere jaso da:

*“Akordio hori sinatu eta egun batzuk geroago, funtsezkoa ez zen jarduera ekonomikoak eteteko aldiaren amaiera deklaratu zen. Egoera horretan, sektore ekonomiko askok Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari eta Sodenari jakinarazi zieten NBEak behar zituztela. NBEak banatzeko kanal segurua eta fidagarria eratze aldera, departamentu horrek eskatuta eta Administrazio Kontseiluak aurrez baimenduta, Sodenak lankidetzako eta finantza laguntza emateko akordioa sinatu zuen CENekin eta Albynekin, enpresei NBEak banatzeko”.*

88. Horiak horrela, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta Sodenak Akordioa sinatu baino inplikazio handiagoa izan zuten Akordioa formulatzeko.

89. Jarduketa horren bultzatzailea Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua izan zen, Manuel Ayerdi jaunak eskatuta, garai hartan Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria baitzen, eta berak CENen lankidetzako eskatu zuen, enpresei laguntzeko. Halaxe ikus daiteke Sodenak eta CENek 2020ko maiatzaren 18an prentsan argitaratu zuten informazioan, 2020ko maiatzaren 8an sinatu zen Akordioan, 2020ko apirilaren 14ko bilera deian; eta Manuel Ayerdi jaunak 2020ko maiatzaren 6an egin zuen agerraldian, non aldarrikatu baitzuen beraren departamentuaren ekimena eta interesa gai horretan.

90. Aipatutako dokumentazioetatik atera ditugu hitzez hitzeko testu batzuk, informazio hori berresteko<sup>42</sup>.

**LAUGARRENA. - NAFARROAKO GOBERNUAK BERAK HASIERATIK ONARTU ZUEN CEN-EN EGINKIZUNA ENPRESEN ARTEKO ZUBI EDO ATERKI GISAKOA ZELA, BAINA EZ ZUELA PARTE HARTUKO EZ FINANTZAKETAN, EZTA NBE-AK EROSTEO ERAGIKETETAN ERE.**

91. Hala eta guztiz ere, Manuel Ayerdi departamentu buru ohiak 2020ko maiatzaren 6an egin zuen agerraldiko hitzetatik bereziki nabarmentzekoa da hau: CEN

*“aterki” eta “zubi” hutsa zela, eskaerak bideratzeko eta kudeatu ahal izateko, baina ez zela alderdi bultzatzailea; (ii) alderdi bultzatzaile eta sustatzailea Departamentua zela; eta (iii) O-NOZen presentzia eta bermea funtsezkoa zela, O-NOZek hartuko baitzuen bere gain soberakina, eta inola ere ez CENek<sup>43</sup>.*

92. Horrenbestez, ziurtatu egin da Nafarroako Gobernuak CENi eskatu ziola laguntza, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren bitartez; eta CENek laguntza hori eman zuela. Hori izan zen Akordio horren hasierako errealitatea. Dena den, Kontuen Ganberaren txostenaren zirriborroa irakurri dugunean jakin

<sup>42</sup> 2020ko apirilaren 13ko bilera deian hau adierazi zuen Manuel Ayerdi jaunak: *Kezkatu egiten nau sektore horietako langileek lanera segurtasun baldintzetan egin ahal izateak, osasunaren arloko agintarien gomendioei jarraituta, eta NBE elementuak Nafarroako enpresei emanda”.*

<sup>43</sup> Manuel Ayerdi jaunak 2020ko maiatzaren 6an egin zuen agerraldia: *“Beraz, mekanismoak bilakatu behar zuen han.*

*Hortaz, akordioa egin dugu berriro Sodenarekin, eta enpresa bat izanen da erosketak egiteko arduraduna. Enpresaburuen Konfederazioak eginen du enpresa txikiei eta autonomoei emateko aleak biltzeko zubi lana, sektoreko, eskualdeko elkarte bidez, eta horretan kontuan hartuko dira Konfederazioko kideak ez ezik, ekonomia sozial, autonomo eta enpresa mota guztiak ere. CEN, kasu horretan, aterkia izanen da sozietate mota guztientzat, eta sozietate mota guztien premiak bildu, bideratu eta helaraziko ditu, geuk kudeatu ahal izateko”.*

dugu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak bere kabuz eta Akordioa sinatu aurretik masak erosiak zituela, CENekin bildu baino lehen, eta, jakina, zenbatespenik egin eta bidali aurretik.

93. Aurrekoarekin bat, eta, berriro, Kontuen Ganberaren txostenaren zirriborroari eta txostenari esker, jakin dugu Ekonomia eta Ogasun Departamentutik Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari erantzun ziotela departamentuak ez zuela maskara horiek alde bakarrez erosteko ahalmenik, eta maskara horiek 2020ko maiatzaren 8ko Akordioan sartu zituztela. Izan ere, CENi ez zitzaion inoiz jakinarazi Akordioan sartu ziren 257.200 FFP2 maskaren jatorria departamentu buru ohiaren alde bakarreko jarduketa zenik, eta, txostenean adierazitakoaren arabera, ez zuela hori egiteko ahalmenik.

94. Azkenik, aipatu behar dugu Sodenan izan zela Akordioa idazteko eta gainerako alderdiei bidaltzeko erakunde arduraduna. Erakunde horrek iraganean beste erosketak kontratu bat egin zuen, Albynekin batera. Sodenak Akordioaren testua idatzi eta proposatu zuen, sinatzeko. Beraz, O-NOZen irteera bultzatu zuten akordioaren balizko hutsuneak edo gabeziak alderdi proposatzaileari baino ezin zaizkio leporatu. Are gehiago, aipatutako txostenaren bidez jakin dugu Osasun Departamentuak jada jakinarazia ziola ez zuela akordioan parte hartuko, soberako izakinak bere gain hartu behar bazituen.

#### BOSGARRENA.- AKORDIOA SINATU AURRETIKO BILEREI BURUZKO INFORMAZIO ZEHAZTUGABEA ETA DOITUGABEA.

95. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 15. orrialdeko paragrafo hau ez da zuzena eta aldatu behar da. Agerian utzi behar da, gainerako alderdiek ez bezala, CENek ez zuela parte hartu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak deitu zituen hiru bileretatik batean baino. Geroago eskatu zioten CENi Sodenak diseinatutako mekanismoan laguntzeko.

*“Kezka hori zela eta, Nafarroako sektore ekonomiko batzuetako ordezkarien bitartez, departamentuari premien berri eman ondoren, aktari erantsitako dokumentazioan aipatzen da apirilaren 14an hiru bilera telematikoko egin zirela, departamentu horrek deialdia egin eta gero. Departamentuak berak, Sodenak eta aipatutako ordezkariak (besteak beste, CENek) parte hartu zuten bilera horietan, maskara horniketaren egoerari buruzko informazioa jasotzeko eta NBEen banaketa bermatzeko aukerak aztertzeko”.*

96. Era berean, 15. orrialdeko hurrengo paragrafoan aipatzen den ondorioa ez da zehatza (Sodenako Administrazio Kontseiluak 2020ko apirilaren 22an egindako bileraren aktari erantsitako dokumentaziotik atera dugu):

“c) CENen, Sodenaren eta Albynen arteko koordinazioa antolatu behar da, horniketa bidea martxan jartzeko. Horretarako, parte hartzen duten eragileen artean finantzaketa akordioa egituratu behar da, O-NOZekin sinatu denaren antzekoa...”

97. Izan ere, Garapen Ekonomikoko Departamentuko kontseilariak deitu zituen bileretan maskaren gaineko arazoak jorratu ziren, baina haietako batean ere ez zen aipatu CENen balizko lankidetzak, Sodenarekin eta Albynekin batera. Bilera telematikoko horietan 20 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, eta informazio hori berrets dezakete. Izan ere, behin bilerak amaituta, CENekin jarri ziren harremanetan haren laguntza jasotzeko, eta une hartan, ez lehenago, alderdien arteko balizko “Akordioa” jorratzen hasi zen.

#### SEIGARRENA. CEN-EK ETA ALBYNEK AKORDIOAREN ESPARRUAN BETE DITUZTEN EGINKIZUNAK

98. Akordioa 2020ko maiatzaren 8an sinatu zen, eta Kontuen Ganberaren txostenaren 6. orrialdean jaso da hau dela, laburbilduta, Akordioan ezarritako mekanismoa:

*“Akordio hori osatzeko ezarritako mekanismoa, labor azalduta, hau zen: CENek biltzen zituen enpresen NBE premiak, eta horren berri eman behar zion Albyni. Albynek hiru hilabeteko unitateak erosten zituen, akordioan ezarritakoaren arabera, eta Sodenak finantzaketa ematen zion egoera horretan eskatutako alde aurretiko ordainketak egin zitzen. CENek eskaera irmoak egiten zizkion Albyni, enpresen eskaeren arabera, eta, gero, produktu horiek enpresei bidaltzen zizkien. Albynek faktura bidaltzen zion CENi, eta CENek zenbatekoa ordaintzen zuen, enpresen ordainketa aurrez jasota. Albynek, zenbateko egokia jaso eta gero, finantzaketaren zati egokia itzultzen zion Sodenari. Sodenak zati hori aurreratzen zuen bien arteko kontu-zenbakian”.*

99. Paragrafo horretako lehen esaldia (letra beltzez nabarmendu dugu) are gehiago zehaztu behar da, errealitatearen arabera izan dadin. CENek zenbatespen ez lotesle bakarria egin zuen, Sodenak eskatuta. Eta 2020ko apirilaren 22an bidali zuen, O-NOZek soberako izakinak bere gain hartuko zituelakoan.

100. Bigarren faseari dagokionez, nabarmentzekoa da mekanismo horretan ezarrita zegoela CENek eskaera irmoak egin behar zituela, baina aurrez: Albynek “posta elektronikoz jakinarazi behar zituen erosketen gaineko xehetasunak, besteak beste, hornitzailearen datuak, erosi behar ziren NBEen berezitasunak, berezitasun teknikoak, prezioa eta ordaintzeko modua” (Akordioaren 3.1.3. klausula).

Albynek ez zuen inoiz horren berri eman.

**ZAZPIGARRENA. BEHIN-BEHINEKO TXOSTENEAN EZ DIRA XEHETASUNEZ AZALDU ALBYNEK EROSI ZITUEN MASKARA MOTAK; ETA HORREK ONDORIO AKASTUNAK ERAGIN DITU**

101. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 6. orrialdean hau jaso dute: “Albynek guztira 2.136.700 maskara erosi zituen, hainbat maskara mota barne. Zenbatespena, ordea, 2.149.752 unitatekoa izan zen, txosten honen V.4 epigrafean zehaztutakoaren arabera”.

102. Izan ere, NBEen guztizko kopurua ez da lagungarria arazoa ulertzeko. Akordioaren babespean, Albynek material horiek erosi zituen, eta materialek ezaugarri eta prezio ezberdinak zituzten. Zehazki, maskaren erosketak osatu zuen kopururik handiena, baina ezaugarri teknikoak oso bestelakoak ziren, baita prezioa ere (FFP2 maskarak, 2,33 euroan; II-R maskarak, 0,45 euroan; beraz, FFP2 maskarak bost aldiz garestiagoak ziren).

103. Horregatik, garrantzitsua da argitzea Albynek zer erosi zuen:

- 936.200 FFP2 maskara erosi zizkien hiru hornitzailei (haietako 50.000 ez zeuden Akordioan hitzarturik, eta Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean adierazi bezala, jatorrizko hartzailea O-NOZ zen).

- 1.200.500 II-R maskara kirurgiko erosi zizkion hornitzaile bati, eta hornitzaile horri FFP2 maskara ere erosi zitzaizkion. AEMPSek 2021eko apirilaren 15ean igorri zuen osasun alertak maskara horiei guztiei eragin zien, behin-behineko txosten horretan azaldu den bezala.

104. Horren harira, azaldu egin nahi dugu Albynek egin zituen erosketak guztira azaltzea ez dela lagungarria arazoa ulertzeko. FFP2 maskara batek ez du zer ikusirik II-R maskara kirurgiko batekin, beraz, prezioa ere bestelakoa da (5 aldiz handiagoa).<sup>44</sup>

105. Horregatik, Albynen erosketen gaineko ondorioak horrela azaltzen baldin badira, ez da ikusten egingadako lana, eta izen berean biltzen ditu guztiz bestelakoak diren maskarak.

106. Berez, hasierako zenbatespenetan ezarritako kopuruarekin erkatuta, Albynek 263.944 II-R maskara kirurgiko gutxiago erosi zituen, eta, aldiz, 312.353 FFP2 maskara gehiago erosi zituen, eta maskara mota hori garestiagoa zen. Bestalde, enpresek FFP3 maskarak eskatu arren, ez ziren inoiz erosi.

107. Zentzuzkoa denez, dena batera, azkenean euroen batuketa eta kenketa orokorra egiteak ez du argitzen soberako izakinen gaineko arazoa.

**ZORTZIGARRENA. ALBYNEN ALDE BAKARREKO MASKAREN SALMENTA ETA % 3,5ETIK GORAKO MARJINA APLIKATZEA. JARDUKETA HORI EZ ZEGOEN AKORDIOAN JASORIK, EZTA HITZARTURIK ERE**

108. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 7. orrialdean jaso da Albynek bere kabuz saldu zituela maskarak:

<sup>44</sup> Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 21. orrialdean ez da zehaztu edo xehakatu maskara mota: “Ikus daitekeen bezala, Albynek eskatutakoa baino 13.052 maskara gutxiago erosi zituen guztira, enpresen zenbatespenekin erkatuta, baina emaitzak maskara moten arabera aldatzen dira. Horiek horrela, 263.944 maskara kirurgiko gutxiago erosi ziren, eta ez zen FFP3 maskararik erosi. Bestalde, 312.353 FFP2 maskara gehiago erosi ziren Gelari dagokionez, aurreikusi baino litro gutxiago erosi ziren. Eskarretan osatutako alde horiek guztira 63.065 euroko gastu handiagoa eragin zuten”.

“Akordioan ezarritako prozedurari jarraituta, Albynek 25.670 maskara zuzenean saldu zizkien beste erakunde batzuei. Albynek salmenta horietan lortu zuen marjina garbia<sup>1</sup> 496 eurokoa izan zen, saldutako NBEak kudeatzeko eta biltegitratzeko gastuak<sup>2</sup> alde batera utzita (akordioan ezarri zen marjina ehuneko 3,5koa izan zela)”.

Eta antzeko moduan azaldu da 18. orrialdean:

“Gainerako 50.000 maskara kopurua honela banatu zen: 26.920 akordioari laga zitzaizkion, 14.560 maskara Sodenak hartu zituen; eta 8.520 maskara Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroak (CEINek), Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartu zituzten; laga gabeko 23.080 maskara kopurua fiskalizazio akordioan ezarritako prozeduraren arabera kudeatu ziren (hau da, Albynek erosi eta fakturatu zituen, eta enpresa horrek salmentaren zenbatekoa sartu zuen kontu partekatuan)”.

109. Izan ere, adierazi nahi dugu txosten honen xedea den Akordioan ez zela jaso “Albynek maskarak saltzea eta zuzenean fakturatzeko erakunde horiei”. CENek geroago jaso du horren berri, zehatzago, 2022ko uztailaren 27an sinatutako Nafarroako Gobernuak Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren “txostenari gehitutako eranskina” eta Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean irakurri dituen.

110. Albynen jarduketa horrek erakusten du CENen parte-hartzea ez dela eta ez zela beharrezkoa 2020an erositako materiala saltzeko edo erabiltzeko. Horrenbestez, ziurtatu egiten da Albynek maskaren jabetasuna duela, ezerk edo inork ez baitzuen eragotzi Albynek maskara horiek saltzea.

111. Paragrafo bi horietan adierazten da Albynek Akordioaren prozedurari jarraitu ziola, baina ez da jaso zer klausularen arabera baimentzen den jarduketa hori. Izan ere, jarduketa hori “ez da jaso Akordioan”, eta Albynek alde bakarrez erabaki zuen hori egitea hainbat unetan.

112. Horren harira, eskatu egiten dugu Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 23. orrialdeko taularen izenburua zuzentzea. Izan ere, taulan bertan ikus daitekeen bezala, CEN ez zen erosle bakarra izan, horrez gain, CEINi, FANAMOELi, Sodenari eta beste entitate batzuei ere saldu egin zizkien. Hortaz, honek izan beharko zuen taularen izenburua: “Albynek zenbait entitate eta enpresari egin zizkion salmentak” (eta ez, ordea, “Albynek CENi egin zizkon salmentak, enpresen, langile autonomoen eta beste entitate batzuen eskaera irmoen oinarrituta”).

### *Ventas de Albyn a la CEN ante pedidos en firme de empresas y autónomos y a otros entes*

El resumen de las ventas realizadas por Albyn a la CEN<sup>11</sup> ante pedidos en firme de las empresas y autónomos y a otros entes es el siguiente:

	Mascarilla FFP2	Mascarilla quirúrgica	Gel	Termómetro	Importe factura*
CEN	229.680	134.600	599	131	742.164
CEIN	6.520	-	-	-	18.382
FANAMOEL	-	500	-	-	272
Inspección Trabajo y Seguridad Social	1.000	-	-	-	2.819
Instituto Salud Pública Laboral de Navarra	1.000	-	-	-	2.819
MONKEY BUSINESS	40	50	-	-	135
Servicio Consumo y Arbitraje	-	2.000	-	-	1.089
Sodena	14.560	-	-	-	41.049
<b>Total unidades en pedidos en firme (a)</b>	<b>252.800</b>	<b>137.150</b>	<b>599</b>	<b>131</b>	<b>808.729</b>
Nº unidades adquiridas por Albyn (b)	936.200	1.200.500	600	300	-
<b>Diferencia (a) – (b)</b>	<b>-683.400</b>	<b>-1.063.350</b>	<b>-1</b>	<b>-169</b>	<b>-</b>

\*Se estableció un importe fijo unitario para cada tipo de EPI para agilizar el procedimiento, considerando que el margen global obtenido por Albyn no podía superar el 3,5 por ciento establecido en el acuerdo.

113. Berriz ere, Albynek alde bakarrez erabaki zuen maskarak erabiltzea, eta CENen baimenik gabe saldu zituen, beraz, horrek erakusten du CEN ez zela maskaren jabea.

114. Azkenik, Albynek salmenta bakoitzeko hitzartutako marjina % 3,5koa zen, Akordioaren 1. klausulan ezarritakoaren arabera.<sup>45</sup>

115. Hala eta guztiz ere, FFP2 maskarek eta termometroak dagokienez, Albynek ez zuen % 3,5eko marjina bete, eta marjina handiagoa aplikatu zien salmentei. CENek geroago jaso du egitate horien berri, zehazki, 2022ko uztailearen 27an sinatu den Nafarroako Gobernuak Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren “txostenari gehitutako eranskina”ri esker<sup>46</sup>, baita Kontuen Ganberaren behin-behineko txosteneko informazioari esker ere<sup>47</sup>. Albynek CENi jakinarazi zion FFP2 maskaren prezioa 2,33 eurokoa zela, ale bakoitzeko, eskaera guztietan. Aipatu berri dugun informazioaren arabera, agerikoa da lehen FFP2 maskaren prezioa 2,25 eurokoa izan zela, garraio kosturik gabe; beraz, azkenean, 2,33 euroko salmenta prezioa eskaini zen. Hala eta guztiz ere, hurrengo eskaeretan, zehazki, 2020ko maiatzaren 5eko 29.000 FFP2 maskara eskatu zirenean, maskara horiek 1,98 euroan erosi ziren ale bakoitzeko, gehi 2.133 euroko garraio gastu osagarriarekin (faktura berean ordainduta). Akordioaren 1.1.1 klausularen arabera, maskara horien “Salmenta Prezioa”k 2,125 eurokoa izan beharko zukeen, eta ez, ordea, CENi jakinarazi zioten 2,33 eurokoa. FFP2 maskara horietatik 29.000 ale saldu ziren, eta Albynek aplikatutako marjina % 13,49 izan zen, hitzartutako % 3,5ekoaren ordez. Egitate horrek onura osagarria eragin zuen, zehazki, 5.932,65 eurokoa, eta hori ez zen hitzartu Akordioan.

116. Gauza bera eta ez-betetze bera gertatu zen termometroen salmentarekin. Albynek termometroak erosi zituen 26,995 euroan, ale bakoitzeko, eta garraio kostu osagarriak 510 eurokoak izan ziren. Akordioaren 1.1.1 klausularen arabera, “Salmenta Prezioa”k 29,7 eurokoa izan beharko zuen. Hala eta guztiz ere, CENi adierazitako “Salmenta Prezioa”, beraz, enpresei ere jakinarazitakoa, 40 eurokoa izan zen. Bestela esanda, Albynek marjina aldatu zuen salmenta horietan: % 3,5ekoaren ordez, % 28,3koa ezartzeko. Egitate horrek onura osagarria eragin zuen, zehazki, 1.349,39 eurokoa, eta hori ez zen hitzartu Akordioan.

117. Horrenbestez, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean aipatzen den “marjina garbia” ez da bat etortzen Akordioan jasotako klausulekin. Albynek erosi zituen 600.000 FFP2 maskararen salmentaren akatsak (CE etiketarik ez izatea, eta paketatzea okerra izatea) “marjina garbia”ren kalkuluan sartzea ez da adostu zenaren arabera.

118. Azkenean, 2020ko apirilaren 9an egin zen erosketa osoa (307.200 FFP2 maskara erosi zituen) Albynen eskaeretan kontabilizatu da, Akordioaren babespean, eta gaur egungo izakinetan ere bai. Horren harira, CENek eskatzen du hau argitzea: zer mekanismo baliatu zuen Sodenak 14.560 FFP2 maskara “bere esku” hartzeko. Txostenean idatzi denaren arabera, badirudi maskara horiek hartzeko mekanismoa ez zela izan gainerako entitateek erabili zutena bezalakoa. Gainerako entitateek “akordioan ezarritako prozedurari jarraitu zioten (hau da, Albynek erosi eta fakturatu zituen, eta enpresa horrek salmentaren zenbatekoa sartu zuen kontu partekatuan)”. Era berean, jakin nahi dugu entitate horiek noiz eskatu zuten materiala eta zer salmenta prezio aplikatu zitzaizen ale horiei.

<sup>45</sup> *Ikus* Akordioaren 1.1.1 klausula: “*Honela kalkulatu da ALBYN MEDICALek CENi salduko dizkion NBEen salmenta prezioa: ALBYN MEDICALek NBEak erosteko ordaindu duen prezioa gehi % 3,5*”. Ondore horietarako, NBEak erosteko kostua honako hauen batuketan izanen da: (i) hornitzaileari ordaindutako prezioa; (ii) garraiatzeko kostuak; eta (iii) ALBYN MEDICALek NBEak inportatzeko egin behar izan dituen gainerako zenbatekoak. Hori guztia eurotan ordainduko da. (Aurrerantzean, hori ALBYN MEDICALen Salmenta Prezioa izanen da). Horren ondoriozko prezioari une bakoitzeko zerga aplikagarriak gehitu beharko zaizkio. Eta 1.1.2 Klausulan: *ALBYN MEDICALek Enpresei edo Elkartei maskarak saltzeko salmenta prezioa ALBYN MEDICALen Salmenta Prezioaren baliokidea izanen da. Horren ondoriozko prezioari une bakoitzeko zerga aplikagarriak gehitu beharko zaizkio*”.

<sup>46</sup> *Ikus* Kontu-hartzailearen txosteneko eranskineko 5. orrialdea.

<sup>47</sup> *Ikus* Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 23. orrialdea.

**BEDERATZIGARRENA. 600.000 FFP2 MASKARAREN ESKAERAREN IRREGULARTASUNAK ETA AKORDIOA EZ BETETZEA. ALBYNEK NBE-AK EROSI ZITUEN SODENAREN ALDEZ AURRETIKO FINANTZAKETA EDUKI GABE**

119. CENi ez zioten inoiz komunikatu 600.000 maskararen eskaera. Horren froga da Albynek Sodenari (ez CENi) bidali zion mezu elektronikoa, non aipatzen baitzuen egiaztapen teknikoei buruzko arazoa.<sup>48</sup>

120. Era berean, CENi ez zitzaion inoiz jakinarazi ziurtapenari buruzko arazoa zegoenik, eta horrek maskaren entrega atzeratu zuela, baina arazo hori Albynek eta Sodenak ezagutzen zuten<sup>49</sup>. Nabarmenezkoa da maskara horiek 2021eko maiatzaren 12tik ekainaren 11ra bitartean jaso zirela Nafarroan, Akordioaren indarraldia amaitutakoan. Harrigarri samarra izan arren, 2022ko apirilaren 21ean, Sodenak eta Albynek batera erreklamazio bat bidali zioten CENi, eta haien asmoa zen CEN behartzea 600.000 NBEz hanpatutako izakinak erostera, nahiz eta NBE horiek akordioa azkendu ondoren heldu izan, eta mahai gainean eskaera irmorik ez egon.

121. Aurrekoaren arabera, ez dirudi egokia denik zoritxarreko eskaera horren gastu gehigarriak kontuan hartzea Albynek Akordioaren esparruan lortu duen marjina murrizteko. Behin-behineko txostenean ez da alde hori justifikatzen. Akordioaren arabera, ziurtapen edo egiaztapen arazoak Albynen ardurapekoak ziren, ez gainerakoak<sup>50</sup>.

122. Bestalde, CENi harrigarria iruditzen zaio maskara batzuk ordaintzea, maskara horiek fabrikatu aurretik. Izan ere, 20. orrialdearen arabera, zehazki, V4 taulari erreparatuta, honako baldintza hauek ezarri ziren ordainketa hori egiteko: % 50, eskaera egitean; eta % 50, eskaera jasotzean (Frantzian). Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 20. orrialdean ezarritakoaren arabera, ordainketa horiek 2020-05-22tik 2020-06-22ra bitartean egin ziren, beraz, azken egun horretan maskarak ez zeuden ezta fabrikaturik ere, beraz, ezinezkoa zen jada Frantzian egotea.

Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 22. orrialdean hau jaso da: “Horren harira, maskara horien zenbaketa fisikoa aztertuta, Ganbera honek honako fabrikazio datak ondorioztatu ditu:”

Fecha fabricación	Nº unidades
03/06/2020	413.000
01/08/2020	56.000
01/09/2020	127.000
02/02/2021	3.000
No consta	1.000

<sup>48</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 21. orrialdea: “2020ko ekainaren 19an, Albynek mezu elektronikoa batean Sodenari jakinarazi zizkion hurrengo astean Frantziara helduko ziren maskarek bete behar zituzten egiaztapen teknikoak, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuko Enpresen eta Industria Segurtasunaren Erregistroan alde aurretiko kontsulta eginda”.

<sup>49</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 22. orrialdea: *Maskarak jaso ziren CE10 etiketarik gabe, eta, hartara, Frantzian geratu ziren, ziurtapenaren zain, beraz, ezinezkoa izan zen maskara horiek erabiltzea. Izan ere, ziurtatzeko prozesuan itxaronaldi handiak zeuden, eskaera handiaren ondorioz. Horren harira, Albynek eta Frantziako enpresak 2020ko urriaren 14an mezu elektronikoa bidali zizkieten elkarri, eta Albynek frantses enpresari unitatearen prezioa berrikusteko eskatu zion, Frantzian ziurtatu zain osatu zen itxaronaldiaren ondorioz. Frantziako enpresak ezetz erantzun zion.*

*2020ko abenduaren 4an, Frantziako enpresak Albyni jakinarazi zion maskarak ziurtatua zeudela. Maskarak Nafarroara heldu ziren 2020ko abenduaren 16an, eta une hartan Albynek ikusi zuen kutxaren etiketak ez zirela egokiak, beraz, maskarak Frantziako enpresara itzuli ziren.*

*Albynen eta Frantziako enpresaren artean garrario kostuak nork ordaindu adosteko negoziazioak egin ondoren, maskarak Nafarroatik Frantziara atera ziren 2021eko apirilaren 6an.*

*Azkenean, Nafarroara 600.000 maskara heldu ziren 2021eko maiatzaren 12tik ekainaren 11ra bitartean. Albynek kostu gehigarriak hartu zuen bere gain, eta guztira 24.155 eurokoak izan ziren”.*

<sup>50</sup> Ikus Akordioaren 3.3 klausula eta II. azalpena.

123. Gainera, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 24. orrialdean jaso da Albynek ez zuela bete Akordioaren beste klausula bat: “Albynek eskaerak egin aurretik, Sodenak kontu korrontean egin behar zion diru ekarpena, akordioa egikaritzeko”.

124. Kontuen Ganberaren informazioaren arabera, ezinezkoa da 600.000 FFP2 maskararen ordainketa Akordioaren finantzaketaren bidez egin izana, bi diru-sarrera baino ez baitziren egin: bata, 2020ko maiatzaren 13an; eta bestea, 2020ko ekainaren 22an, 18. orrialdeko eta 24. orrialdeko tauletan jaso bezala. Informazio horrek kontraesanak sortzen ditu eskaera horren egunari eta ordaintzeko moduari buruz. Horrenbestez, zer diru erabili zen 600.000 FFP2 maskara erosteko, kontuan hartuta maskara horiek urtebete geroago etorri zirela Nafarroara, zehazki, Akordioa iraungi eta sei hilabetera?

125. Bestalde, Kontuen Ganberaren arabera eskaera horren eguna (2020ko maiatzaren 19koa) ez dator bat Kontu-hartzailetzaren txosteneko 2. eranskineko informazio gehigarrian jasotakoarekin, bertan adierazten baita “2020ko maiatzaren 1ekoa” izan zela, beraz, Akordioa sinatu aurretiko erosketa izan zen.

126. Azkenik, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 24. orrialdean jasotako informazioaren arabera, ez da egia “Albynen eskaerak egin aurretik, Sodenak diru ekarpena egin behar zuela akordioa gauzatzeko sortu zen kontu korrontean”. Izan ere, Kontuen Ganberaren arabera, 600.000 FFP2 maskarako eskaera 2020ko maiatzaren 19an egin zen, eta Kontu-hartzailetzaren arabera, 2020ko maiatzaren 1ean; kontuan 2020ko maiatzeko 22an sartu zen dirua, baina kargu hori ez da agertzen Sodenak Sodenaren eta Albynen arteko kontu korrante partekatuan egin dituen karguen artean (ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 18. eta 24. orrialdetako taulak).

127. Inkongruentzia handi hori, hau da, eskaerak egin aurretik diru ekarpen hori egin ez izana, aplikatu ahal zaie GEEDek eskatutako 307.200 FFP2 maskarako eskaerei: alde bakarrez egin ziren, horretarako eskumenik izan gabe, Akordioa sinatu aurretik eta Sodenak alde aurretiko finantzaketa eman gabe.

128. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean irakur daitekeen bezala, eskaeren eta ordainketen egunak kontraesankorrak dira askotan.

**HAMARGARRENA. 307.200 MASKARAREN ESKAERARI BURUZKO AZALPENEA ESKATZEA. ALBYNEK EGIN ZUEN ESKAERA HORI, 836.352 EUROKO ZENBATEKOAN**

129. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. orrialdean honako datu hauek jaso dira Albynek egin zuen 307.200 maskarako eskaerari buruz:

*“Egun berean, Sodenak eskaera egin zion Albyni, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta. Eskaeran 307.200 FFP2 maskara aipatu ziren, eta zenbatekoa 836.352 eurokoa zen guztira (BEZ barne). Maskara horietatik 100.000 O-NOZi ematekoak ziren, eta 207.200 bidali nahi ziren aipatutako departamentura.*

130. Lehenik eta behin, CENek eskatzen du paragrafo horretan aipatutako 307.200 FFP2 maskarako eskaeraren egun zehatza jakinaraztea. Urteko Kontuen eta Adostutako Prozeduren Auditorien Txostenaren 2. eranskinean (txosten hori Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde publikoetako sozietate eta fundazio publikoen legezketasuna betetzeari buruzkoa da, eta Nafarroako Gobernuako Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Atalak egin du) jasotakoaren arabera, badirudi eskaera hori 2020ko apirilaren 14a baino lehenago egin zela<sup>51</sup>, eta egun horretan CENek oraindik ez zuen Akordioa sinatu, eta ez zuen parte hartu bilera batean ere ez. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren arabera, zehazki, 20. orrialdean zehazten da proformako faktura (eskaera baieztatzeko) 2020ko apirilaren 1ekoa dela; eta 14. orrialdean ezartzen da 2020ko apirilaren 9an egin zela eskaera, beraz, data horiek ez datoz bat. Gaur egun ere, ez dakigu zergatik egin ziren alde bakarreko eskaerak, horretarako eskumenik eduki gabe; halaber, ez dakigu benetan noiz egin ziren (ia hiru egun aipatu direlako), ezta nola ordaindu ziren ere.

131. Bestalde, eskaera horiek nola finantzatu eta ordaindu ziren argitzea eskatzen dugu. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean kontraesan argia jaso da 21. orrialdeko V.4 taulan, bertan azaltzen baita kontuan zorduntzeko data 2020-05-13a, 2020-05-26a eta 2020-06-19a dela. Proformako ordainketaren baldintzetan,

<sup>51</sup> *Ikus* Nafarroako Gobernuako Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Atalak egin zuen Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde publikoetako sozietate eta fundazio publikoen legezketasuna betetzeari buruzko txosteneko 2. eranskineko 5. orria.



ordea, ezarri zen % 20 ordaindu behar zela eskaera baieztatzen zenean. Beraz, eskaera 2020-04-14an egin baldin bazen, hasierako % 20 hori nola ordaindu zen argitzea eskatzen dugu.

132. Izan ere, CENi ez zioten eman eskaera horren berri, ezta are gutxiago ere; Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. eta 15. orrialdetan adierazi da GEEDek eskatuta egin zela, nahiz eta maskarak erosteko ahalmenik edo baimenik ez izan, baina, hori guztia horrelakoa izan arren, izakin horiek alderdiek sinatutako behin betiko Akordioan sartu zituzten.<sup>52</sup>

133. Azkenik, honako akats hau zuzentzea eskatzen dugu: idatzi da GEEDi 207.200 maskarako eskaera baino ez zitzaiola esleitu, baina Akordioan jaso den datua 257.200 maskarakoa da; edo bestela guztizkoan sartu ez diren 50.000 maskarako alde hori argitzea eskatzen dugu. Bestalde, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 23. orrialdean 257.200 maskara jaso da, beraz, informazio hori ez da argi adierazi.

134. Edonola ere, agerikoak dira honako hauek: (i) Akordioa GEEDek baliatu zuen bere kabuz erosiak zituen eta inon esleiturik ez zituen NBE kopuru oso handia bertan sartzeko —CENek horretan esku hartzerik izan gabe, ezta jakin ere, gaur egun jakin dugulako—, eta legez ezarritako prozeduretatik at; (ii) Albynek ez zion CENi jakinarazi inoiz zer erabaki hartzen zuen eskaerei buruz, ezta ezaugarriei buruz ere, beraz, Akordioaren 3.1.3 klausula urratu zuen<sup>53</sup>; eta (iii) gaur egun ere, kontraesan eta inkognita ugari daude eskaeren egunei buruz, eta argitu gabe dago erosteko erabakiak nork hartu zituen eta zer diruren bidez finantzatu ziren. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena irakurrita, informazio horrek argitu gabe jarraitzen du.

<sup>52</sup> Ikus Akordioaren 6. orrialdeko 3.1.2. Klausula: “*Hiru (3) hilabeteko premiei aurre egiteko eskaerak eginen dira. Aurrekoa gorabehera, gaur egungo presaren ondorioz, Akordioa sinatu aurretik, ALBYN MEDICALek 257.200 FFP2 maskara erosi ditu, eta eskaera horren izapideak, haren datatik, entregatik eta fakturaziotik aurrera, Akordio honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira*”.

Ildo horretatik, eskatu egiten dugu Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. eta 18. orrialdetako paragrafo hau ere aldatzea. Izan ere, gaur egun idatzita dagoen moduan pentsa liteke CENek horren guztiaren berri zuela, eta ikus daitekeen bezala, Akordioan ez zen idatzi maskara horiek Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren erosketaren ondoriozkoak zirela: “*Akordioaren lehen zirriborroan bertan klausula bat jaso zen Albynek, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak apirilean eskatuta, erositako maskareei buruz, 257.200 maskara sartu ziren, hau da, 307.200 maskara guztien ehuneko 84; eta adierazi zen haien izapideak akordioan ezarritakoaren arabera eginen zirela, maskaren dataren, entregaren eta fakturazioaren ostean*”.

<sup>53</sup> Ikus Akordioaren 3.1.3 klausula: “*Albyn Medicaiek mezu elektronikoa bidaliko die CENi eta Sodenari, eta mezu horretan erosketen gaineko erabakiak, hornitzailearen datuak, erosi behar diren NBEen xehetasunak, ezaugarri teknikoak, prezioa eta ordaintzeko modua jaso beharko dira*”.

**HAMAİKAGARRENA. MASKARA UNITATE BAKOITZAREN PREZIOAREN GAINEKO FUNSGABETASUNAK, ETA ALBYNEK EGINDAKO SALMENTETAN % 3,5EKO MARJINA BAINO MARJINA HANDIAGO APLIKATZEA**

135. CENek zenbait funsgabetasun detektatu ditu Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 20. orrialdeko taulan, CENi jakinarazitako unitate bakoitzaren salmenta prezioari buruz. Edonola ere, Albynek beti adierazi du enpresei, ETEei eta autonomoei 2,33 euroko prezioa ezartzen ziela FFP2 maskaren truke; eta 0,45 eurokoa, II-R maskara kirurgikoen truke. CENek, ordea, ez zuen inoiz ezagutu Albynek hornitzaileei ordaindu zien erosketa prezioa, eta Akordioaren 3.1.3 klausularen arabera, CENek datu hori jaso beharko zuen.

20. orrialdea. V4 taula:

Descripción	Fecha factura proforma	Fecha factura	Condiciones pago proforma	Fecha recepción	Unidades	Precio unitario	Fecha cargo en cuenta	Importe cargo <sup>6</sup>	Pago anticipado	Gastos transporte
Mascarilla FFP2	01/04/2020	06/05/2020	20% al confirmar pedido, 20% antes del envío desde China, 40% tras validación, 20% 30 días desde la factura de la fecha de entrega en destino	06/05/2020	69.760	2,25	13/05/2020	167.270	Si	0
		14/05/2020		11/05/2020	85.680	2,25	26/05/2020	255.915		0
		04/06/2020		05/06/2020	151.760	2,25	19/06/2020	413.167		0
		05/05/2020	05/05/2020	Dos días desde la factura proforma	07/05/2020	29.000	1,98	13/05/2020	72.059	No
	19/05/2020	01/10/2020	50% momento pedido 50% recepción (en Francia)	16/12/2020 <sup>7</sup>	600.000	1,68	22/05/2020 22/06/2020	504.000 504.000	Si, 50%	24.155
Mascarilla quirúrgica	19/05/2020	03/06/2020	Contado	04/06/2020	336.000	0,43	19/06/2020	174.821	No	0
		15/06/2020		15/06/2020	560.000	0,43	23/06/2020	291.368		0
		24/06/2020		25/06/2020	304.500	0,43	14/07/2020	158.431		0
Gel (5 litros)	18/05/2020	19/05/2020	Pago adelantado proforma	19/05/2020	600	20,97	18/05/2020	15.224	Si, un día	0
Termómetro	12/05/2020	19/06/2020	100% adelantado	20/06/2020	300	26,995	18/05/2020	8.098	Si	510

136. Ikus daitekeen bezala, 2,25 euroko zenbatekoan erositako maskaren prezioari % 3,5 gehitu zaio (hori baita Albynen marjina). Aldiz, Albynek 1,98 euroan erosi zituenean, guri 2,33 euroko prezioa jakinarazi zigun, nahiz eta Albynek, garraio kostuak ere zenbatuta, 2,05 euro ordaindu ale bakoitzeko. Laburbilduz, maskaren prezioari % 3,5etik gorako marjina aplikatu zioten, eta hori bidegabea da, eta Akordioan ezarritakotik kanpo dago. Eta berdin jokatu zuten termometroen salmentan (% 28,3ko marjina, % 3,5ekoaren ordezt); eta 29.000 FFP2 maskara erosi zituztenean (% 11,86ko marjina, adostutako % 3,5ekoaren ordezt).

137. Akordioaren esparruan Albynek lortu duen marjina sakonago aztertuta, eta Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 31. orrialdean jasotakoari jarraituta: “Albynek akordio hori betearazteko hartu duen marjina garbia 496 eurokoa izan da, txosten hau idatzi den egunean. Marjina honela kalkulatu da: CENi egindako salmenten bidezko diru-sarrerei Sodenarekin partekatutako kontu korrontean egindako itzulketak eta finantzaketarik gabe ordaindu dituen gastuak kendu ondoren lortzen den aldea. Hona hemen xehetasuna:”.

138. Berrito ere, CEN ez dago ados “marjina garbia”ri buruzko definizioarekin, ezta lortzeko egin duten kalkuluarekin ere. Ez dirudi egokia denik Akordioan txertatu zen zoritarreko 600.000 FFP2 maskarako eskaera horren gastu gehigarriak kontuan hartzea Albynek Akordioaren ondorioz lortu duen marjina zehazteko. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean ez da justifikatu gastu horiek, Akordioaren arabera, Albynek ordaindu behar zituenik, arazo guztiak (ziurtapenik eza eta etiketa egokirik eza) hornitzailearenak zirelako. Hortaz, % 3,5etik gorako marjina beste zoritarreko eskaera baten (CE etiketarik ez eta paketatzen hutsuneak zituen) ondoriozko gastuen bidez maskaratu nahi izateak ez du indartzen txostenaren gardentasuna, eta ez dator bat Akordioan hitzartutakoarekin.

139. Azkenik, CENek desorekak topatu ditu “karguen zenbatekoa”ri buruzko taulan ere bai. Zehatzago esanda, 69.760 x 2,25 ez da 167.270 euro; eta 85.680 x 2,25 ez da 255.915 euro. Beraz, zenbateko guztiak batuta lortu den emaitza zuzena izan arren, banakapen xehatua ez da zuzena. Hori zuzentzea edo argitzea eskatzen dugu.

**HAMABIGARRENA. SODENAREN ETA ALBYNEN GARDENTASUNIK EZA, ETA CEN-EK EZ JAKITEA AKORDIOA SINATZEAN ETA GARATZEAN GERTATUTAKOIA**

140. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena eta behin-behineko txostenaren zirriborroa irakurrita, CEN ez dago ados txostenaren 8. orrialdeko esaldi honekin: “c) Akordio hori gardentasunez eta publikotasuna emanda egin zen”.

141. Ildo horretatik, erakutsi eta frogatu da Akordioa publikotasun osoz sinatu dela (ikus prentsa oharrak eta Parlamentuan egindako agerraldiak), baina ez da egia akordio hori gardentasun osoz kudeatu eta gauzatu denik.

142. Horri buruz, CENek nabarmendu nahi du ez zuela ezagutzen Akordioaren formalizazioan gertatu zena, eta CENek xehetasun horietako asko ezagutu dituela Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena eta Kontuhartzaitzaren txostena irakurri eta gero.

143. Zehazki, CENek ez zekien Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. orrialdean azaltzen dena, hau da, O-NOZek hasieratik (2020ko apirilaren 24tik) argi ikusten zuela ezin zuela Akordia sinatu. Sodenari egitate horren berri eman zioten, baina CENek ez zuen egitate garrantzitsu horren berri akordia sinatu aurreko eguna arte (2020ko maiatzaren 7a arte). Izan ere, egun horretan Sodenak amaierako zirriborroa bidali zuen, eta O-NOZ ez zen agertzen alderdi sinatzaile gisa.

144. Era berean, CENi ez zaio inoiz jakinarazi Akordioan txertatu ziren 257.200 FFP2 maskara horiek benetan nondik etorri ziren. Txosten hau irakurri ondoren, ondorioztatu daiteke GEEDeko buruak erosi zituela maskara horiek, eta bera Sodenako presidentea ere zela; horrez gain, pertsona horrek ez zuen maskarak erosteko eskumenik, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak adierazi zion bezala.<sup>54</sup>

145. Halaber, txostenean ez da inon aipatu Sodenak 2020ko uztailaren 23a arte partizipazioak izan zituela Albyn enpresan, eta garai hartan Akordia jada sinatua zegoela (2022ko maiatzaren 8an sinatu zuten), eta Albyn NBEz hornitzeko enpresa izenduna zen.

146. Hori dela eta, gardentasunik eza eta Sodenaren eta Albynen arteko independentziarik eza antzematen zaio eragiketari; izan ere, salmenta prozesu horretan Sodenak onurak lortuko zituen.

147. Are gehiago, Sodenak Albynen zeuzkan partizipazioak (% 22,98) 2020ko uztailaren 23an saldu zituen, Albynen 2019ko Merkataritzako Erregistroan argitaratu diren kontuen arabera, baina harrigarria da eragiketa hori 2020ko abenduaren 1a arte jendaurrean jarri ez izana. Sodenak jakinarazi zuen prentsa ohar baten bidez.

HAMAHIRUGARRENA. SODENAK BAZEKIEN O-NOZ AKORDIOTIK ATERAKO ZELA, BAINA HARRIGARRIA DA INFORMAZIO HORI CENI AKORDIOA SINATU AURRETIKO EGUNA ARTE EMAN EZ IZANA

148. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. orrialdean adierazi da 2020ko apirilaren 24an Sodenak bazekiela O-NOZek ez zuela NBEei buruzko laguntzako Akordia sinatuko, beraz, ez zituela bere gain hartuko soberako izakinak. Informazio hori ez zen CENekin partekatu Akordia sinatu aurretiko eguna arte:

*“... 2020ko apirilaren 24an akordioaren testua jaso genuen eta, behin aztertuta, konturatu ginen enpresen premiak ez zezudela argi zehazturik, ez banaka, ezta modu agregatuan ere. Halaber, ez zegoen zehazturik zer prozedurari jarraitu behar zitzaien, enpresek gehiegizko eskaerak egiten bazituzten (adibidez, NBE horiek erosi eta gero, enpresek eskaerak egiteari uzten zioten).*

*Halaber, ez zegoen argi zer konpromiso hartzen zuen CENek bere gain, hitzarmenean zehaztutako enpresaren definizioak zenbat langileri eragiten zion, edo zenbat enpresak parte hartuko zuten hitzarmen horretan eta abar.*

*Pandemia garaian ETE, mikroETE eta autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako hitzarmenean izan dugun parte hartzea argitze aldera, nabarmendu nahi dugu hasieratik bertatik, proposamena apirilaren 24an jaso genuenetik, argi ikusi genuela ezin genuela hitzarmen hori sinatu, eta horren berri eman genion SODENari prozesuan”.*

149. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean azaldu da O-NOZek Akordioan parte ez hartzeko emandako justifikazioa, hasieran parte hartuko zuela aurreikusi arren; baina CENek agerian utzi nahi du justifikazio hori ez dela sendoa. CENen konpromisoak kezkatzen baldin bazituen: Zergatik ez zuen Sodenak kezka hori Akordioan plazaratu, kontuan hartuta Sodenak Akordia prestatua zuela? Halaber, garrantzitsua da aipatzea O-NOZek ez ziola inoiz CENi eman zalantza edo kezka horien berri.

150. Horri buruz, egitateen kronologia gogoratu behar dugu:

<sup>54</sup> *Ikus* Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 14. orrialdea.

- 2020ko apirilaren 24an, 14:43an, Sodenak mezu elektronikoa bidali zien Albyni, O-NOZi eta CENi, eta Akordioaren lehen bertsioa erantsi zion. Bertsio hori ARPA abokatuen bulegoaren laguntzaz egin zuen (mezu elektronikoa hori jaso baitute).

- 2020ko apirilaren 24an, 16:45ean, CENek posta elektronikoz erantzun zien Sodenari, Albyni eta O-NOZi, iruzkin eta zuzenketa txiki batzuk egiteko.

- 2020ko apirilaren 27an, 10:45ean, Sodenak CENen mezu elektronikoa erantzun zuen, eta Albyn kopian jarri zuen, baina O-NOZen helbidea mezutik ezabatu zuen, eta CENen iruzkinen gaineko azalpenak eman zituen. Zehazki, hau esan zuen: “CENek, Albynek eta Sodenak testua itxi ondoren, O-NOZi eskatuko diogu bere oniritzia”.

- 2020ko apirilaren 27an bertan, 13:55ean, CENek posta elektronikoz erantzun zien Sodenari eta Albyni, erantzuna eta ekarpenak kontuan hartzea eskertzeko.

- 2020ko apirilaren 28an, 16:40an, Sodenak beste mezu elektronikoa bat bidali zien Albyni eta CENi, eta adierazi zien, O-NOZekin telefonoz hitz egin ondoren, O-NOZek honako iruzkin hauek gehitzen zituela Akordioan:

- o *“Behar dute Garapen Ekonomikoko beste pertsona batek dokumentua sina dezan. Haien ustez, prozedura hori departamentuaren ekimenez hasi zen, eta haiei nolabait “backup” rola utzi zien. Printzipioz, Manu Ayerdi sinatuko zuen, eta haien aldetik Osasuneko kontseilariak sinatuko zuen.*

- o *Zehaztu egin behar da haiek soberako NBEak erosiko zituztela, baina osasun erabilerako NBEak baino ez.*

- o *Eskaera egiteko erabakian sartu behar dira, eta Albynek CENi eta Sodenari bidaliko zien mezuan haiek ere hartzaile gisa egon behar dute, eskaeraren ezaugarriak zehaztuta”.*

- 2020ko apirilaren 28an bertan, 17:01ean, Albynek bitarteko bera erabiliz Sodenari eta CENi erantzun zien, hau esateko: “Sartutako produktu guztiak osasun erabilerakoak direla”, eta ez zuela inolako arazorik O-NOZ ere eskaera egiteko erabakian sartzeko, eta eskaeraren xehetasunak jakinarazteko mezu elektronikoa hartzaile gisa ere O-NOZ sartuko zuela.

- 2020ko apirilaren 28an bertan, 17:04an, CENek parte hartzaile guztiei erantzun zien uste zuela Albynek esandako guztia zuzena zela.

- 2020ko apirilaren 28an bertan, 17:15ean, Sodenak Albyni eta CENi adierazi zien Manuel Ayerdi jaunak Akordia sinatuko zuela, O-NOZek egindako lehen eskaerari erantzuteko.

- 2020ko apirilaren 29an, 18:52an, Sodenak beste mezu elektronikoa bat bidali zien Albyni eta CENi, eta adierazi zien O-NOZekin hitz egin zuela, eta gogorarazi ziela Akordia sinatzeko zutela, eskatutako zuzenketa jada txertatuta zeudelako. Mezu horretan Sodenak esan zuen O-NOZ “zerbitzu juridikoen erantzunaren zain” zegoela.

- Maiatzaren 7ko 12:23an, Sodenak beste mezu elektronikoa bat bidali zien Albyni eta CENi, eta hau adierazi zuen: “O-NOZek azkenean akordioaren eranskin gehigarria sinatuko duela, eta O-NOZeko zuzendari kudeatzaileak sinatuko duela”.

151. Deigarria da, beraz, gaur egun O-NOZek hau adieraztea: “Lehen egunetik bertatik, apirilaren 24tik, proposamena jaso genuen egunetatik, argi ikusi genuen ezin genuela sinatu, eta halaxe adierazi genion Sodenari prozesu osoan”. Adierazpen hori ez dator bat arestian azaldu dugun egitateen kontakizunarekin. Aipatutako mezu elektronikoa horietako batean ere O-NOZek ez zuen oztopo horien berri eman. Are gehiago, Sodenak 2020ko apirilaren 28an bidali zuen mezutik ondoriozta daiteke O-NOZen kezka bestelakoak zirela, eta guztiak konpondu eta argitu zirela. Era berean, ez zen inoiz CENekin harremanetan jarri, nahiz eta mezu elektronikoa kopian egon.

152. Era berean, deigarria da 2020ko apirilaren 28tik maiatzaren 7ra arte Akordioari buruzko berririk eman ez izana, eta, azkenean, azalpen gehiago eman gabe jakinaraztea O-NOZek ez zuela sinatuko, aurreko egunetan harremanetan egon ondoren (2020ko apirilaren 24tik 28ra).

153. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren bigarren paragrafoan adierazi bezala, eta jada aipatu dugun bezala, Sodenak bazekien O-NOZek zergatik ez zuen Akordioa sinatu nahi. Harrigarria izan arren, CENi 2020ko maiatzaren 7a arte, hots, Akordioa sinatu aurreko eguna arte, ez zioten eman egitate esanguratsu horren berri, nahiz eta, ziurtatu dugun moduan, mezu elektronikoak elkarri bidali, eta mezu horietan Akordioari buruzko informazioa eman eta O-NOZen iruzkinen berri eman.

**HAMALAU GARRENA. KONTUEN GANBERAREN TXOSTENEAN OKER JOKATU DA: EZ BAITIRA BEREIZI ZENBATESPENAK (EZ-LOTESLEAK) ETA ESKAERAK (LOTESLEAK)**

154. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 25. orrialdean<sup>55</sup> horren adibide bat dago, hau da, Kontuen Ganberak berdin tratatzen ditu eskaerak eta zenbatespenak. Nahasmendu hori oso garrantzitsua da alderdi guztiek bazekitelako zenbatespen horiek (CENek enpresei galdetzen zien, eta aurreikuspenak edo zenbatespenak bidaltzen zizkien Albyni) ez zirela lotesleak enpresentzat, beraz, litekeena zen izakinak metatzea, enpresak ez baitzeuden behartuta izakin horiek erostera, zenbatespenak alde batera utzita. Bestalde, eskaerak irmoak ziren, eta enpresek eta CENek une bakoitzean bete zituzten.

155. Izan ere, ez da zehatza “aurreikuspenak” aipatzea, “zenbatespenak” erabili beharrean. CENek pentsatzen du zorrotz jokatu behar dela terminoekin. Akordioaren 3.1.1 paragrafoaren arabera: “CENek bilduko du Enpresek edo Elkarrekin jakinarazten dituzten premien gaineko informazioa, baldin eta Enpresa edo Elkarrekin horiek Akordio honen xede diren NBEak erosteko prozesua baliatzeko interesa adierazi badute (...)”. Eta Akordioaren 3.1.2 paragrafoaren arabera: “Eskaerak hiru (3) hilabeteko premiei aurre egiteko eginen dira”. Horren arabera, justifikatu dezakegu CENek une oro zenbatespenak egin zituela. Ildo horretatik, azaldu dugun bezala eta Kontuen Ganberari ere azaldu diogun bezala, gure zenbatespenak modu arduratsuan eta arrazoituan egin ziren; horretarako, mezu bat bidali genuen, eta enpresek eta elkarrekin erantzun zuten. “Aurreikuspen” terminoak bestelako konnotazioak ditu, hau da, “zenbatespen” terminoarenak ez bezalakoak. CENek informazioa metatu zuen enpresen eta elkarrekin zenbatespenei jarraituta, baina beti jokatu zuen objektibotasunez, irmotasunez eta gardentasunez.

**HAMABOS GARRENA. ALBYNEN CEN-EN ZENBATESPENETAN OINARRITUTA EGIN ZITUEN ESKAERAK GEHIENEZ ERE HIRU IZAN ZIREN, ETA EZ SEI, KONTUEN GANBERAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENEAN JASO DUTEN BEZALA. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUAK HIRU ESKAERA EGIN ZITUEN AKORDIOA SINATU AURRETIK ETA BERE KABUZ**

156. Akordioa 2020an egikaritzeari dagokionez, hau jaso da Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 20. orrialdean: “Akordioan ezarritako prozedura kontuan hartu eta gero, segidan jaso dugu Albynek egin zituen sei eskaeren laburpena. Albynek eskaera horiek egin zituen, batetik, CENen zenbatespenak kontuan hartuta eta, bestetik, Sodenak (Nafarroako Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskatuta) egin zuen eskaera kontuan hartuta”.

157. Beraz, ez da egia eskaera guztiak CENek 2020ko apirilaren 22an bidali zituen zenbatespenen arabera egin zirela. Izan ere, 307.200 FFP2 maskarako hiru eskaera alde aurretik eginak ziren. Eskaera horiek, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren arabera, 2020ko apirilaren 9an egin ziren (proformako faktura 2020ko apirilaren 1ekoa izan arren). Bestela esanda, lehen hiru eskaera horiek ez ziren inoiz egin CENen zenbatespenen arabera, zenbatespenak egin baino askoz ere lehenagoak zirelako; izan ere, CENekin gai hori joratu aurretik egin ziren.

158. CENi ez zioten inoiz eman 307.200 FFP2 maskara erosteko eskaeraren berri, eta zati bat Akordioan jaso bazen ere, ez zen zehaztu eskaera horiek 2020ko apirilaren hasieran eta GEEDek eskatuta egin zirela (GEED ez zen Akordioaren alderdietako bat).

<sup>55</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 25. orrialdea: “2020ko uztailaren 1ean, Albynek mezu elektroniko batean Sodenari eta CENi adierazi zien kezkatuta zegoela eskaera gutxi jasotzen ari baitzen, aurreikusitako zenbatespenen eta benetako izakinaren aldean...”.

HAMASEIGARRENA. IZAKINEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA OROKORTZE SINPLISTA BATEN ARABERA ESLEITZEA. ALDERDI BAKOITZAREN BETEBEHARRAK EZ DIRA AZTERTU. CEN EZ DA INOIZ EZINBESTEKOA IZAN AKORDIO HORI BIDERAGARRIA IZATEKO. AKORDIOA EZ DA ZATIEZINA

159. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak baliabide guztiak erabiltzen ditu CENi leporatzeko CENi ez dagokion erantzukizuna. Horretarako, zenbait argudio erabiltzen ditu, baina zentzugabeak eta funsgabeak dira.

160. Salbuespenezko egoera da, beraz, CENek izakinen aurrean erantzun behar du. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 8. orrialdean honako paragrafo hau bildu da, baina, doitu behar da, ez baitator errealitatearekin bat:

“2020an, Zuzenbidea, printzipio eta arau juridikoen multzo gisa, COVID-19aren ondoriozko pandemiak eragindako ezohiko egoerara egokitu behar izan zen, une hartako egoerari erantzuteko balio ez zuten arauen aplikazioa salbuetsita. Fiskalizatutako akordioaren jatorria eta zentzua salbuespenezko egoera horretan osatu ziren, baina horrek ez ditu alderdi sinatzaileak erantzukizunetik salbuesten, baldin eta, beharrezkoa izan arren, zenbait alderdi aurreikusi ez bazituzten”.

161. Aipatzekoa da salbuespenezko egoera ez dela erantzukizunetik salbuesten, baina, era berean, ez du erantzukizuna sortzen aurretik erantzukizun hori ez bazegoen, edo gain hartu ezin bazen, alderdi bakoitzak Akordioan zeukan eginkizunaren arabera. Salbuespenezko egoerak ez du erantzukizunik aldatzen, ezta partekarazi ere. Erosten dutenek erosketen aurrean erantzun behar dute (Albynek); finantzatzen dutenek finantzaketaren aurrean erantzun behar dute (Sodenak) eta zenbatespenak jakinarazten dituztenek eta beste batzuek erositakoa banatzen dutenek jarduketa horien aurrean erantzun behar dute (CENek). Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren jasotako tesiaren arabera: pandemiaren ondorioz, errentari batek eraikinaren erakuntza-akatsen erantzulea izan beharko zuen; edo erosleak erantzun beharko zuen erositakoaren akatsen aurrean.

162. Erantzukizuna modulatu behar da Akordioan alderdi bakoitzak zeukan interesaren arabera. Aitzitik, ez da inolako azterketarik egin alderdi bakoitzaren betebeharrei buruz, izakinen gaineko erantzukizuna esleitu ahal izateko. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak ez du beren eginkizuna bete, izan ere, ez du erantzukizuna alderdi bakoitzaren interesaren arabera banatu.<sup>56</sup> Errua kolektibizatu baino ez du egin, eta modu lausoan banatu du alderdi sinatzaileen artean.

163. Parte hartzaile bakoitzak Akordioan zeukan interesari erreparatzen bazaio, ezin da inoiz ondorioztatu CENek izakinen erantzulea izan behar duenik. CENek ez zituen erosi, finantzatu edo ordezkatu zenbatespen ez-lotesleak egin edo eskatu zituztenak; hortaz, ezin du inolako erantzukizunik eduki material baten gainean, baldin eta material hori erosteko agindua inoiz eman ez badu, eta material hori berarena ez bazen.

164. Akordioa bideraezina da, eta, hartara, izakinen aurrean erantzun behar da. Argudio hori ilogikoa izateaz gain, premisa faltsua hartzen du abiapuntutzat. CENek esku-hartzerik ez izanda ere, Akordioa guztiz bideragarria eta egingarria zen, nahiz eta agian konplexuagoa eta efizientzia txikiagokoa izan. NBEak CENen parte-hartzerik gabe ere eros zitezkeen, CENen parte-hartzerik gabe finantzatu zitezkeen, eta CENen parte-hartzerik gabe bana zitezkeen enpresaburuen eta langile autonomoen artean, Albynek interesdunei materiala bidalita.

165. Antzematen diogu esfortzu adorea egiten dela CENen parte-hartzea nabarmentzeko, eta CENi ez dagokion erantzukizun banaketan sartzeko. Akordioa hiru alderdiek sinatu zuten, eta haietako bakoitzak betebeharrak eta erantzukizuna zituen. Zehatz-mehatz, Albyn arduratzen zen materiala erosteaz; beraren eginkizunik gabe, Akordioa ez zen bideragarria. Gainera, NBEen salmentan marjina atera zuen alderdi bakarra da.

<sup>56</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 36. orrialdea: “*Hori guztia dela eta, Ganbera honek pentsatzen du arrazoizkoa dela pentsatzea sinatzaile guztiak akordioaren hutsuneen erantzunkideak direla, haietako bakoitzak helburuan zuen interesaren proportzioan. Hori dela eta, alderdi bakoitzak, akordioaren xedean zuen interesaren arabera, erantzunkidea izan beharko du egoera hori konpontzeko; beraz, alderdiek, ahal heinean, jaso beharko dituzte egoera horrek eragindako kalteak*”.

166. Azkenik, Sodenaren finantzaketarik gabe, Akordioa ez zatekeen bideragarria izanen, ezta Sodenaren presidentearen ekimenik gabe ere, berak sortu eta bultzatu zuelako.

167. CENen parte-hartzerik gabe, ordea, Akordioa guztiz bideragarria zen, alderdi horrek ez baitzuen NBERik finantzatu, negoziatu edo erosi. Premien zenbatespenak biltzeko, eskaerak egiteko eta materialak entregatzeko kanal bateratua baino ez zen CEN<sup>57</sup>.

168. Era berean, nabarmentzekoa da Albyn, alde bakarrez eta CENi horri buruzko kontsultarik egin gabe, antolakundeei eta enpresei zuzenean maskarak saldu izana (Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 23. orrialdeko 1. taula). Horrek berriro erakusten du CEN ez zela ezinbestekoa, eta, alderdiek egokitzat jotuzenean, maskarak saldu zituztela, CENi horren berri eman gabe.

169. Ildo horretatik, eta idazki honen aurreko lerroetan jada adierazi dugun bezala<sup>58</sup>, uste dugu txosten honetan, Akordioaren espiritua argitze aldera, sartu behar dela Manuel Ayerdi departamentu ohiak Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordearen aurrean 2020ko maiatzaren 6an egin zuen adierazpena. Agerraldi horretan hitzez hitz adierazi zuen CEN “aterki” edo “zubia” baino ez zela, eta ez zela inola ere akordioaren bultzatzailea.

170. Izan ere, departamentu hori ekimenaren bultzatzailea izan zen, eta departamentu horrek laguntza eskatu zion CENi. Argi dago muturreko egoera batean lagundu nahi zuela Nafarroako enpresen ehunak funtzionatzen jarrai zezan eta langileak laneko segurtasuna bermatuta lanpostuetara itzul zitezten. Interes hori ezin da ukatu, ezta alde aurretik erositako 307.200 FFP2 maskara esleitzeko interesa ere. Maskara horiek helmuga argia izan arren, inoiz ez ziren hara heldu.

171. Agerikoa da Akordioan parte hartzen zuten alderdi guztiek jarduera ekonomikoa azkar eta segurtasunez berreskuratzeko interesa zutela, baina ezin zaie enpresei “erantzukizuna” eskualdatu, Kontuen Ganberaren txostenean horretan tematu arren<sup>59</sup>. Hala eginen balitz, Nafarroako Gobernuak eta GEEDek arduragabekeriaz jokatu lukete Nafarroako ehuna eta langileak defendatzeko helburua lortzeko<sup>60</sup>.

172. Beraz, CENek une oro pentsatu du ekimena egokia zela Nafarroako jarduera ekonomikoa berpizteko; baina, halaber, egia da, O-NOZek Akordioa bertan behera utzi eta gero, Sodenak Akordioa berriz formulatu behar izanen zuela, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 10. orrialdean adierazten duten bezala, hau bermatzeko: “Sodenaren etorkizuneko ekintzetan behar bezalako bermeak txertatzea, funts publikoen babes handiagoa ziurtatzeko”.

<sup>57</sup> Horrenbestez, honako paragrafo hauek erabat faltsuak dira, eta ez dute Akordioaren errealitatea islatzen: Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 8. orrialdea: “Akordio konplexu eta ezohikoa da. Hiru alderdik parte hartu zuten enpresei pandemia garaian NBEak emateko, hornidura gabeziei aurre egin ahal izateko. Alderdien arteko harremanak ez dira independenteak, baizik eta estu lotuta daude; izan ere, haietako batzuk egon ezean, akordioan ezarritako mekanismoak ez luke zentzurik edukiko”. Ikus 33. orrialdea: “Horiek horrela, CENen esku hartzea beharrezkoa zen, NBEak erosteko prozedurari ekiteko eta Albany premien zenbatespenen berri emateko”.

<sup>58</sup> Ikus Hirugarren alegazioa. Manuel Ayerdi departamentu buru ohiaren adierazpen zatia. Adierazpen hori Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordearen aurrean egin zuen, 2020ko maiatzaren 6an.

<sup>59</sup> Horren harira, ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 9. orrialdea: “Ganbera honek pentsatzen du arrazoizkoa dela pentsatzea sinatzaile guztiak akordioaren hutsuneen erantzunkideak direla, haietako bakoitzak helburuan zuen interesaren proportzioan. Gainera, guk uste dugu, akordioan jasotako betebeharren erantzuleak izateaz gain, aurreikusi behar zituzten baina ezarri ez zituzten egoeren erantzuleak ere izan behar dutela, fede onaren eta alderdi guztien arreta egokiaren printzipioaren arabera. Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen, beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen. Akordioaren alderdi sinatzaileak beharrezko eragileak ziren, lortu nahi zen xedea betetzeko”.

Eta antzeko terminoetan, ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 33. orrialdean: “Horregatik guztiagatik, Ganbera honek ulertu du akordioa ezin dela zatitu, eta eragiketa hori osotasun bat izanen balitz bezala hartu behar dela. Izan ere, xede bakarra enpresei NBEak ematea zen COVID-19aren ondoriozko pandemiaren ezohiko egoeran”.

<sup>60</sup> Gobernuaren interesa eta kezka hainbat dokumentutan azaldu zen, hala nola 2020ko apirilaren 23ko bilera deian, 2020ko maiatzaren 6ko agerraldian, 2020ko maiatzaren 18ko prentsa oharrean eta Akordioan bertan.

173. Azkenik, segidan azalduko dugun bezala, Akordioaren hutsuneengatik leporatu daitekeen erantzukizunaren harira, Sodenari inputatu behar zaio, bera izan baitzen Akordio osoa idatzi zuen alderdia, abokatu enpresa baten laguntzaz.

174. Akordioa zatiezina eta banaezina da, beraz, CENek erantzun egin behar du izakinen aurrean. Argudio hori ez da kontsistentetik. Erantzukizuna alderdi bakoitzaren betebeharretatik eratortzen da, eta alderdi bakoitzak horren arabera erantzun behar du, eta ezin du erantzun beste alderdi batzuen erantzukizun kuoten aurrean. Ez dago elkartasun itunik. Banakako erantzukizun dago egitate propioen aurrean, Akordioan ezarritako betebeharre dagokienez.

HAMAZAZPIGARRENA. AKORDIOAREN HUTSUNEEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA OKER ESLEITZEA. O-NOZ-EK ALBYN ALDERDI EROSLEAREN ARRISKUA BABESTEN ZUEN. SODENAK PROPOSATU ETA IDATZI ZUEN AKORDIOA. SODENAK BETI JAKIN ZUEN O-NOZ-EK EZ ZUELA IZAKINEN EROSKETA BABESTUKO BAINA AZKEN UNEA ARTE EZ ZUEN JAKINARAZI

175. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 9. orrialdean labur azaldu dute Akordioaren hutsune nagusiak. Kontuen Ganberaren ustez, Akordioak honako hutsune hauek zituen:

a) *Akordioa gauzatzeko ezarritako diseinuek eta funtzionamenduak hutsune larria dute, enpresek ez baitzuten Albynek erositako NBEak hartzeko konpromiso formalik, nahiz eta enpresen premien araberako erosketa egin izana.*

b) *Akordioaren formulazioan dagoen beste hutsune handi bat arautu edo ezarri ez zutena da: ez zuten zehaztu zer prozedurari jarraitu behar zitzaien, mekanika alda zezaketen ezustekoak egonez gero, eta ezustekoak gertatu ziren.*

c) *Akordioan ez zegoen behar bezalako bermerik, horretarako baliatutako funts publikoak behar bezala babesteko.*

176. Zehazki, a) paragrafoari buruz nabarmendu nahi dugu puntu hori ulertzeko ezinbestekoa dela aipatzea Akordioa sinatu aurretiko eguna arte Osasun Departamentuak, hots, O-NOZek, soberako izakinak bere gain hartuko zituela, eta egun hori arte zenbatespenak irmoak ez izatea ez zela inolako arazorik. Hori dela eta, ez zen itunik edo konpromiso formalik aurreikusi, enpresek NBEak eros zituzten. Akordioa sinatu aurreko unean Sodenak jakinarazi zien gainerako alderdiei O-NOZek atzera egingen zuela (Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean adierazi bezala, O-NOZek lehen zirriborroetatik bertatik Sodenari ohartarazi zion atzera egin zezakeela, baina CENi ez zioten eman horren berri, eta Akordioa sinatu aurreko eguna arte, O-NOZek bere parte-hartzeari eutsi zion)<sup>61</sup>.

177. Kontuen Ganberaren txostenean adierazi dute denboraren presioaz erabaki zutela Akordioa ez berri-kustea. Edonola ere, hau zuzendu behar da. GEEDek beti pentsatu zuen O-NOZen parte-hartzea ezinbestekoa zela Albynek, soberako izakinik osatzeko arriskurik gabe, erosketak egin ahal izateko<sup>62</sup>.

178. Halaber, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean azaltzen den prezioen aldakortasunak azaltzen du enpresek zenbatespen irmorik egin ez izana, eta NBEak erosteko betebeharririk hartu ez izana, are gutxiago, Albynek erosi zituen NBEak Nafarroara heltzeko atzerapena kontuan hartuta.

179. Azkenik, kontuan hartu behar da CENen zenbatespenak ez zela lotesleak, ez berarentzat, ezta gainerako interesdunentzat ere. Eta are garrantzitsuagoa da nabarmentzea erosleak —horretaz erabat jakitun izanda— zenbatespen ez lotesleak araberako erosketak egiten zituela, eta bazekiela zenbatespenak bete ezean, ezin izanen ziela ezer leporatu enpresei, eta are gutxiago, CENi.

<sup>61</sup> Ikus Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. orrialdea.

<sup>62</sup> 2020ko apirilaren 19an, GEEDeko buruak mezu elektronikoa bidali zion Osasuneko zuzendariari hau esateko: “O-NOZen eginkizuna babestea zen; horrela, guk ETEei eta langile autonomoei NBEak emateko mekanismoa martxan jar genezake. Babesa aipatzen dudanean, zera esan nahi dut: eskaera egin eta hilabete batzuetara, ETEek eta langile autonomoek NBE guztiak erostea lortzen ez badugu, soberako izakinak O-NOZek erosiko dituela. Eskaerak Albynek erosiko ditu, beraz, Albyni ziurtatu behar diogu ez duela saldu gabeko NBERik metatuko. Babes hori eman ezean [...], arazoak izanen ditugu mekanismoa martxan jartzeko”.



180. Bestalde, c) apartatuari dagokionez, Sodenak aldez aurretiko eskarmentua zuen aurrez ere Albynekin batera erosketa kontratua sinatua baitzuen, O-NOZi NBEak emateko. Hori dela eta, Sodenak Akordioaren testua idatzi eta proposatu zuen, alderdiek sina zezaten, eta lege-talde batek behar bezalako aholkularitza eman zion. O-NOZen atzera egitetik eratorritako hutsuneek edo ezusteez Akordioa proposatu zuen alderdiari baino ezin zioten kalte egin. Gainera, txostenean bertan adierazi bezala, O-NOZek behar bezalako denboraz ohartarazi zion Sodenari ez zuela parte hartuko Akordioan, baina datu hori ez zen partekatu, lehenago adierazi bezala, Akordioa sinatu aurretiko eguna arte.

181. Era berean, Akordioan soberako izakinak aurreikusi ez izanak ez du eragozten izakinen jabea nor den jakitea, beraz, jabeak bere gain hartu behar du material hori. Hau besterik ez da aztertu behar: Albynek NBEak erosten zituen, berak marjina atera zuen eragiketen bidez eta berak bere gain hartu behar zuen homologatzeko edo garraiatzeko kostua. Eta hori guztia berarentzat egin ez bazuen, hauxe besterik ez da galdetu behar: NBEak erosteko dirua nork ematen zuen, eta nork erreklamatu ahal zuen NBEen itzulketa, eta kasu horretan, Sodena zen. Aktore horietako bat ere ez da CEN.

182. Azkenik, c) apartatuari dagokionez, nabarmentzekoa da Akordioa Sodenaren ekimenaz egin zela, eta Sodena izan zela gainerako alderdiei bidali ziena.

183. Horren harira, CENek berresten du Sodenak kontratua sinatu zuela funts publikoak ahalik eta gehien babesteko erabateko bermeak eduki gabe. Izan ere, Sodena Nafarroako Gobernuako enpresa publikoa da, eta berak arduratu behar du bere jardueretan erabiltzen dituen funts publikoak berriz integratzeaz. Horrenbestez, agerikoa da azken aipamen hori Sodenari lotzen zaiola, ez gainerako alderdiei.

184. CENek Akordioan hartu zituen betebeharrak ez dute zerikusirik funts publikoak ahalik eta gehien babesteko erabateko bermeak emateagatik. Urteko Kontuen eta Adostutako Prozeduren Auditoretzen Txosteneko II. eranskinean (txosten hori Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde publikoetako sozietate eta fundazio publikoen legezketasuna betetzeari buruzkoa da), zehazki, "Alegazioei emandako erantzun"en atalaren 2. orrialdean azaldu bezala, eragiketaren dimentsio finantzarioak Sodena eta Albyn lotzen ditu, eta Sodenak definitu zuen eragiketa finantzarioa.

185. Azkenik, zehaztu nahi dugu funtsen babesa hasiera batean O-NOZek bermatzen zuela, berak bere gain hartuko baitzituen soberako izakinak. Baldintza horrek iraun zuen Akordioa sinatu aurretiko eguna arte.

186. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 17. orrialdean jaso da O-NOZek 2020ko apirilaren 24an adierazi zuela ez zituela soberako izakinak bere gain hartuko. Sodenak bazeukan asmo horren berri, eta ez zuen ezer egin. Informazio hori ez zion CENi jakinarazi, eta ez zuen Akordioan beste klausula bat sartu, soberako izakinak osatuz gero, zer egin argitzeko.

#### HEMEZORTZIGARRENA. CEN-EK TXOSTEN JURIDIKOA ESKATU ZUEN ALBYNEK ETA SODENAK 2021EKO APIRILEAN EZUSTEAN ETA BIDE GABE ERREKLAMATU ZIOTENEAN SOBERAKO IZAKINEN GAINEKO ERANTZULEA IZATEA

187. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 7. orrialdean azaldu da soberako izakinek eragindako arazoa zela eta, "Sodenak, CENek eta CPENek txosten juridikoak eskatu zizkietela abokatu enpresa batzuei, eta abokatuen emaitzak funtsean oso bestelakoak direla".

188. Egiari erreparatzen badiogu, CENek ez zuen txosten juridikorik eskatu arazo horren ondorioz; askoz geroago eskatu zuen, zehazki, 2021eko apirilaren 21ean, ezusteko eta funtsik gabeko erreklamazioa jaso zenean, CEN soberako izakinen erantzule izendatzeko, baita artean heldu ez ziren izakinen erantzule ere izendatzeko (erreklamazio horretan sartu zituzten 600.000 FFP2 maskara, 1.008.000 eurokoan, printzipioz, saltzeko prest zeudenak, eta 2021eko maiatzaren 12tik ekainaren 11ra bitartean helduko zirenak, txosten horren 22. orrialdearen arabera).<sup>63</sup>

189. Izan ere, erreklamazio bidegabe hori jaso eta gero, CENek ondoko erreakzioa izan zuen, ahalik eta arreta handiagoz eta erabateko segurtasun juridikoz jokatzeko, benetan aukera berdinetan oinarritutako

<sup>63</sup> *Ikus* CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskineko 6. dokumentua.

\* CENi 2021eko apirilaren 21ean bidali zioten gutuna.

irtenbidea bilatu ahal izateko. Hortaz, 2020ko abenduaren 31n amaitu zen kontratuaren indarraldia eta gero, bidegabeko erreklamazio horrek baldintzatu du CENen laguntzeko jarrera.

HEMERETZIGARRENA. EZ DA EGIA 2022KO APIRILEAN SOBERAKO IZAKINEI BURUZKO ADOSTASUNA EZ LORTZEKO ARRAZOIA HAU IZAN ZENIK: CEN-EK SODENARI ETA ALBYNI ESKATUTZEA LEGE-EKINTZAK HARTZEARI UKO EGITEA

190. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 7. orrialdean adierazpen faltsua jaso da; tesi guztiz interesatua da, eta ez du justifikaziorik, ezta frogarik ere.

*“Era berean, saiatu egin da maskara horiei beste erabilera bat ematea, baina alderdiak ez dira ados jarri. Horri buruz, CENek Sodenari eta Albyni eskatu die konfederazioa erantzukizun guztietatik salbuesteko<sup>64</sup>”.*

191. Paragrafo horietan, inolako kontrasterik egin gabe, jaso da Sodenak eta Albynek modu interesatuan adierazi dutena. 2021eko apirilaren 21eko gutun hori CENi bidali (CENi funtsik gabe soberako izakinen gaineko erantzukizuna leporatzeko, eta halaxe jaso da Kontuen Ganberaren txostenean bertan)<sup>65</sup> eta urtebetara saiatu egin dira irteera negoziatua lortzen, eta CEN beti egon da horren alde. Izan ere, dokumentuak eta egitateak azaletik ere irakurrita, agerikoa da CENek adostasuna lortzeko testu bat proposatu zuela, eta Albynek eta Sodenak prestatu zuten akordioan oinarritu zuela, baina gaur egun ere ez du erantzunik jaso.

192. Negoziazio esparru horretan, CENek, erabat logikoa zenez, ezarri zuen Albynek eta Sodenak erreklamatzeko mehatxua erabat ezabatu behar zutela. Guztiz bateraezina da izakinei irtenbidea emateko akordio bat sinatzea eta aldi berean CENi 1,8 milioi euroko izakinak erostera behartzeko mehatxua bidaltzea. Horrenbestez, klausula bat idatzi zen, eta, horren arabera, akordioa sinatuz gero, Albynek eta Sodenak uko egin behar zioten CENi 2021eko apirilaren 21eko gutunean azaldutako erantzukizuna aldarrikatzeari.

193. Hala eta guztiz ere, negoziazioan aurrera egin beharrean, Albynek eta Sodenak ez zuten ezer eskatu edo eskaintza horren aurka egin, beraz, ez dago jasota negoziazioa eskaera horren ondorioz edo CENen negoziazio asmoaren ondorioz bertan behera utzi izana. Akordioan jasota ez zegoen erreklamazio bidegabe baten aurrean, CENek beharrezko bermeak eskatzen zituen konfiantzazko esparruan elkarlanean aritu ahal izateko. Edonola ere, Kontuen Ganberaren txostenean ezin dute adierazi ez zela akordiorik lortu CENek Albyni eta Sodenari eskatu baitziren beraren aurkako lege-ekintzarik ez hartzeko.

194. Bilera horretan, CENek berriro adierazi zuen behin betiko irtenbidean laguntzeko asmoa zuela. Horretarako, berriro galdetu zuen izakinen egoeraz (zenbat maskara, zein maskara mota, zenbat erabil zitezkeen, zenbat merkaturatu zitezkeen).

195. Gai horri dagokionez Albyn MEDICALeko ordezkariak CENi jakinarazi zion egun horretan, 2022ko abenduaren 12an, bermatuta zegoela biltegiratutako maskararik ezin zela merkaturatu, hainbat arrazoi zirela-eta.

196. Albyneko ordezkariak berak adierazi zuen akordio bat lortzeko prest zegoela, baldin eta Departamentuko kontseilariak irtenbide hori behin betikotzat jotzen bazuen, eta konpromisoa hartzen bazuen alderdien aurkako geroagoko lege-ekintzak hartzeari.

197. Edonola ere, aurreko guztia dela eta, ez da egia akordio hori ez zela lortu CENek Albyni eta Sodenari eskatu baitziren beraren aurkako lege-ekintzak ez hartzeko. Aitzitik, CENek beti interesa izan du egoera egokia sortzeko, eta, esparru judizialek at, soberako izakinen gaineko arazoari irtenbide emateko akordio bat lortzeko. Era berean, frogatutzat hartu da Albyn eta Sodena izan direla CENi 600.000 maskararen gaineko erantzukizuna leporatzen saiatu direnak, maskara horiek garai hartan Nafarroan egon ez arren. Beraz, lankidetzan

<sup>64</sup> Eta aitzeko terminoetan, Ganberaren behin-behineko txostenaren 28. orrialdean: *2021eko irailean, azaroan eta abenduan Sodenako lehendakaria CENekin bildu zen, irtenbide bat bilatzen saiatzeko. CENek eskatu zuen Sodenak alde zuzenetik uko egin diezaiola haien aurkako lege-egintzak hartzeari*”. Eta 29. orrialdean: *“2022ko martxoaren 10ean, CENek berriro eskatu zien Sodenari eta Albyni, eskubide eta aldarrikapen guztiei uko egitea, baita judizio edota judizioz kanpoko ekintzak hartzeari uko egitea ere.”*.

<sup>65</sup> Ikus CENek 2020ko abenduaren 2an aurkeztu zuen txostenaren zirriborroari egindako iruzkinen eranskineko 6. dokumentua. CENi 2021eko apirilaren 21ean bidali zioten gutuna.

aritu eta soberako izakinei irtenbideak emateko proposamenak egin beharrean, erantzukizuna CENi leporatzen aritu dira.

#### HOGEIGARRENA. CEN-EK PROZESU OSOAN, BAITA AKORDIOA AMAITUTAKOAN ERE, LANGUNTZEKO JARRERA ERAKUTSI DU SOBERAKO IZAKINEI IRTENBIDE EMATEKO

198. CENen borondate onaren lehenengo froga eta soberako izakinen gaineko akordioa lortzeko jarrera aktiboaren adibide bat 2021eko otsailaren 17koa da: zehazki, Sodenak CENi bilera deia bidali zionean, soberako izakinei buruzko gaia jorratzeko. Bilera horretan Sodenak ez zuen inoiz jakinarazi otsailaren 8an txosten juridikoa eskatua zuenik, hau da, bilera egin baino 9 egun gehiago eskatu zuen<sup>66</sup>. Bilera horretan CENek Sodenari eskaini zion erosketa kanala berriro irekitzea, izakinei irtenbidea emateko, betiere salmenta prezioa berrikusi ondoren. Sodenak CENi eskertu zion proposamena, baina ez zuen onartu. Hilabete luzetxo igaro ondoren, Albynek eta Sodenak CENi “eskertu” zioten haren prestasuna, eta soberako izakin guztiak erostea eskatu zioten. Kontuen Ganberaren txostenean ez da horri buruzko ezer jaso.

199. Era berean, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean ez da jaso 2021eko apirilaren 12an CENek, Sodenaren eskaerari erantzuteko, enpresen NBE premien gaineko zenbatespenak egiteko baliatu zuen prozeduraren xehetasuna bidali ziela. Izan ere, CENek hori bidali zien leialtasun handiena erakusten jarraitzeko eta Akordioaren gardentasunari mesede egiteko.

200. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 10. orrialdean jaso den irtenbide bat hau da: “Soberako NBEei ahalik eta lasterren irtenbidea ematea, iraungi aurretik eta, horren ondorioz, galera handiagoa osatu aurretik”.

201. Horri dagokionez, CENek adierazi nahi du, gomendio hori, hain zuzen ere, betetzeko, 2022ko azaroaren 7an gainerako alderdiekin egindako bileran Sodenari eta Albyni eskatu zizkiela izakinen egoerari buruzko informazioa eta behar bezalako bermeak izakinak merkaturatu ahal izateko (zenbat ale biltegitururik zeuden, egoera, tipologia, ezaugarri teknikoak eta iraungipen data). Logikoa denez, soberako izakinei irtenbidea eman ahal izateko, lehenik eta behin, egoera ezagutu behar da; eta, bigarrenik, ahalik eta bermerik handiena eduki behar da izakinak erabiltzeko eta merkaturatzeko.

202. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 28. orrialdean jaso den bezala: “2021eko abuztuaren AEMPS Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak maskara kirurgikoen grafenoari buruzko alerta kendu zuen, beraz, berriro egon ziren erabilgarri”<sup>67</sup>.

203. Ohartarazpen hori kontuan hartuta, CENek zalantzak izan zituen AEMPSek aipatzen zituen maskarak (FFP2 zein II-R maskarak) merkaturatu zitezkeen, etiketatuta eta paketatuta zeuden moduan. Hori dela eta, Sodenari eta Albyni horren berri eman zien azaroaren 7an, eta txosten hau jasotzeko egunean, erantzunen zain dago, eta horrek nabarmen zailtzen du NBEak esleitzea edo saltzea.

#### HOGEITA BATGARRENA. EZ DA EGIA CEN-EK HONAKO HAUEK ONARTU DITUENIK, PROTESTARIK EZ EGITEAGATIK: AKORDIOAREN HUTSEGITEAK EDO KONTUEN GANBERAK AINTZAT HARTU DITUEN ALBYNEN ZEIN SODENAREN URRAKETAK

204. Kontuen Ganberaren txostenaren bi une berezitan adierazi da ez dela jaso protestarik edo desadostasunik Akordioan behar bezala gauzatu ez zenagatik, eta jakitera ematen da, modu okerrean, jarduketa horiek CENek onartu zituela. Ezin da errealitatek urrunago egon<sup>68</sup>.

<sup>66</sup> *Ikus* Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 27. orrialdea: “Sodenarekin akordioa idatzia zuen abokatuen enpresak, Sodenak eskatuta, 2021eko otsailaren 8an txosten juridikoa egin zuen, parte hartzaileen eta onuradunen betebeharrei buruz eta soberako izakinen gaineko eranskinari buruz. Horren faktura 1.024 eurokoa izan zen (BEZ barne)”.

<sup>67</sup> AEMPS Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak hau adierazi zuen 2021eko abuztuaren 2ko oharrean: “Azkenik, maskara kirurgikoak soilik merkaturatzeari dagokionez, merkaturatu daitezke, baldin eta etiketatuta, erabilera jarraibideetan edo promoziozko beste material batean jasota ez badago grafenoa edo grafenoaren biomasa dutenik, material horren ezaugarriak haiei ez emateko”.

<sup>68</sup> *Ikus* Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 9. orrialdea: “Ezarrirako akordioa gauzatzeko prozedura bete ez izanari dagokionez, Ganbera honek uste du ez-betetze horiek noiz gertatu eta une hartan azertu

205. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean orokortzea baliatu dute berriro. Protestarik eza onarpen bihurtzeko, ezinbestekoa da protestaren egileak egitate kaltegarriak eta aurkatu behar dituenak ezagutzea. Ziurtatu egin dugu CENek ez zuela ezagutzen Akordioak biltzen zituen izakinen gaineko hutsuneak, GEEDek azken unea arte ezkutatu zituelako; CENek ez zekien Akordioa sinatu baino lehen GEEDek 237.200 maskara erosiak zituela, horretarako lege-baimenik izan gabe; CENek ez zituen ezagutzen Albynek negoziatzen zituen NBEen prezio, entrega edo kalitate baldintzak; CENek ez zituen ezagutzen Albynek baliatutako gehiegizko marjinak; CENek ez zituen ezagutu Albynek 600.000 maskara erosteko baliatu zituen baldintzak, Sodenaren finantzaketarik gabe, eta Akordioa sinatu aurretik; eta CENek ez zekien 2021ean, Akordioa jada amaituta zegoenean, eskatuko ziotela artean jasorik ez zeuden maskarak erosteko.

206. Bestalde, harrizkoa da Ganberak berak Akordioaren urraketa horiek aintzat hartzea, onarpenaren mendeko eragiketak egiten zituen alderdiaren aldetik (Sodena) edo erosketak egiten zituen alderdiaren aldetik (Albyn) baino ez. CENek ez zekien ezer urraketa horiei buruz, eta ez zeukan inolako kontrolik ere: Akordioan —Ikus Akordioaren 3.1.3 klausula— ezartzen zen CENek parte hartu behar zuela erosketetan, baina ez zioten inoiz eman erosketei buruzko informaziorik, eta ez zuen erosketak ezagutzeko modurik; CEN kanal hutsa besterik ez zen izan, zenbatespenak bateratzeko eta materiala entregatzeko. Era berean, Albynek NBEak erosteko eta entregatzeko baldintzak jakinarazi behar bazituen ere, ez zuen inoiz halakorik egin, beraz, Akordioaren funtsezko betebeharretako bat urratu zuen.

207. Bere aldetik, CENek Akordioaren literaltasunaren arabera hartutako betebeharrak bete zituen. Zenbatespenak 2020ko apirilaren 22an egin zituen, presa eta premia handieneko egoera batean, Akordioaren zirriborroak egiten ari ziren bitartean, eta O-NOZek soberako izakinak bere gain hartuko zituela jakinda.

208. Hori guztia dela-eta, honako ondorio hauek atera ditugu:

*behar izanen zirela, ez gertatu eta gero. Azterketa horrek agerian utzi du bete beharreko urratsak zorroztasunez bete ez badira ere, esku hartu duten alderdiek ez dutela protestarik edo desadostasunik adierazi”.*

*Antzeko moduan, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenaren 35. orrialdean hau jaso da: “Akordioa hitzez hitz bete ez izanari buruz, Ganbera honek uste du ez-betetze horiek noiz gertatu eta une hartan aztertu behar izanen zirela, ez gertatu eta gero. Behin egitateak aztertuta, agerian utzi da jarraitu beharreko urratsak ez zirela zorroztasunez bete, batez ere, Albynek alderdiei eman behar zien informazioari dagokionez; baina ez da jaso alderdiek eskaerei buruzko protesta edo desadostasunik adierazi zutenik, beraz, isilbidez onartu zituztela jotzen da”.*

## ONDORIOAK

**I.** Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak (GEEDek) hasi, sustatu eta iragarri zuen akordioa. Sodenak idatzi zuen, xede laudagarriekin, eta, aldi berean, 307.200 maskara esleitzeko interesarekin, maskara horiek aurrez eta lege-baimenik gabe erosiak zituelako. Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean azaldu diren hutsuneak akordioaren sustatzaileari eta egileari leporatu behar zaizkie, ez CENi.

**II.** Ez da egia CENek GEEDi eskatu edo jarraitu zionik nafar enpresei emateko NBEak lortzeko laguntza; beraz, premisa horretan oinarrituta ezin zaio CENi leporatu soberako izakinen gaineko erantzukizunik.

**III.** GEEDek CEN deitu zuen, Akordioan parte hartzeko, eta, Administrazioak berak esan duen moduan, CENek zubi laneko eginkizuna hartu zuen bere gain, NBEen gaineko zenbatespenak egiteko, eskaerak zentralizateko eta banatzeko. Inork ez zion CENi esleitu bestelako erantzukizunik, eta, are gutxiago, izakinen gaineko erantzukizunik. CENek ez du ordainsaririk lortu Akordioa sinatzeagatik.

**IV.** Akordioa sortu zenean pentsatzen zen O-NOZek hartuko zituela soberako NBE izakinak. O-NOZ bermea zen Albynentzat, O-NOZek soberako izakinak hartu behar zituelako. Albynek materiala erosi behar zuen, baina, berme hori baliatuta, ez zuen soberako izakinik bere gain hartu beharrik. Albyn izakinen eroslea eta jabea da, eta izakinak Sodenak emandako diruz erosi ditu.

**V.** GEEDek azken eguna arte ezkutatu zuen O-NOZek ez zuela bere gain hartu nahi izakinen erosketa. Datu hori ezagututa, Albynek eta Sodenak (O-NOZen parte-hartzeaz bermatutako entitatea izanda) Akordioarekin aurrera egitea erabaki zuten, eta ondorioak beren gain hartu behar dituzte. CENek ez zuen egitate horien berri izan, eta O-NOZen bermea egon zein ez, ez zuen inoiz bere gain hartu izakinen gaineko erantzukizunik.

**VI.** GEEDek, Akordiotik kanpo, bere kabuz eta Akordioa sinatu aurretik, 307.200 maskara erosi zituen, eta maskara horiek norbaiti esleitu behar zizkion, eta iragarri zuen Akordioaren bitartez esleitzea lortu zuen. CENek ez zituen ezagutzen inguruabar hori, baldintzak, erosketa prezioa, homologazioa, jatorria, ezta Akordioaren babespean izapidetu zen kontingente horren gainerako xehetasunak ere.

**VII.** Sodenak kontratu publikoen gaineko araudia urratu zuen Akordioa sinatu zuenean. Sodenak ez zuen bermatu Albyni funts publikoen bidez egindako mailegua berreskuratuko zuenik, eta halaxe egin zuen, O-NOZek soberako izakinak hartuko ez zituela jakin arren.

**VIII.** Albynek kontratuaren araberako betebeharrak urratu zituen Akordioaren mendeko NBEen erosketen ezaugarrien berri ez emateagatik, bereziki, CENi ez emateagatik.

**IX.** Albyn da onura ekonomikoa atera duen alderdi sinatzaileetako bakarra. Kontu-hartzailetzaren txostenean frogatu da Albynek gehiegizko marjinak aplikatu zituela, eta marjina horiek ez zetozeela bat erosketen gaineko Akordioan ezarritako % 3,5eko marjinarekin.

**X.** CENek bere betebeharrak bete zituen Akordioan. Enpresen zenbatespenak bildu zituen eta eskaerak modu zentralizatuan jakinarazi zituen; Albyni ordaindu zizkion, eta amaierako hartzaileei entregatu eta fakturatu zizkien. Zenbatespenak ez dira inoiz loteslerik edo irmorik izan, eta ez zuten behin betiko erosketa bermatzen.

**XI.** CENek ez du inoiz jardun enpresa zenbatzaile baten alderdi ahalordedun gisa, ezta eskaeren eskatzaile gisa ere; beraz, ez da horien erantzulea.

**XII.** CENek ez zuen onartu edo alde batera utzi Akordioaren gauzatzearen hutsuneren, urraketaren, irregulartasunen edo akatsen bat ere, haien berri izan ez zuelako. Horiek une oro ezkutatu zizkieten, eta, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena eta Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiko (Kontu-hartzailetza) Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Zerbitzuaren txostena ezagututa, haien berri izan du.

**XIII.** Akordioan ez da jaso CENek Akordioa gauzatzean eragindako soberako izakinak erosteko betebeharririk izatea. Itundu ez denak ez du betebeharririk sortzen. Ez dago inolako oinarrikerik ondorioztatzeko soberako izakinak ez direla erosi edo finantzatu zituztenenak.

**XIV.** Ez da egia akordioa zatiezina denik. Argudio hori ez dauka benetako edo legezko oinarrikerik, CEN erantzukizun bateratu eta kolektibora arrastatzeko, Akordioan edo Akordioaren araberako betebeharretan ez

baitzaio esleitzen erantzukizun hori. Alderdi sinatzaile bakoitzak bere gain hartzen ditu betebeharrak, eta hai-etatik eratorri behar da alderdi bakoitzaren erantzukizuna. CENek soberako izakinen erosketan ez dauka banakako zein partekatutako betebeharririk, ezta erantzukizunik ere.

**XV.** Ez da egia CENen parte-hartzea ezinbestekoa zenik, Akordioa osatzeko eta gauzatzeko beharrezkoa ere ez zen. Argudio hori ez dauka benetako edo legezko oinarririk, CENena ez den erantzukizun batera arras-tatzeko.

**XVI.** CENek ez du erosketara kontraturik finantzatu, negoziatu edo itxi; ez die fabrikatzaileei ordaindu, eta ez du NBEen entregarik, baldintzarik edo homologaziorik negoziatu.

Akordioaren arabeko zenbatespenak eta eskaerak zentralizatu baino ez du egin: zubia eta aterkia da en-presekin, GEEDeko buruak eta Sodenako presidentek esan zuen bezala.

**XVII.** Gai horri buruz zentralizatu den erreklamazio bakarra CENi Sodenak eta Albynek 2021eko apirilean bidalitakoa izan da, berari leporatzeko izakin guztiak erosteko erantzukizuna. Tartean zeuden 600.000 maskara, zeinak Akordioa sinatu aurretik erosi baitziren, Kontu-hartzailetzaren txostenaren arabera. Horiek Sodenaren finantzaketarik gabe erosi ziren, eta Albynek artean jaso ere ez zituen egin.

**XVIII.** CENek beti eman du Kontuen Ganberak eskatu dion informazioa, salbu eta arazo horretatik kanpo dauden hirugarren (enpresen) datuak eskatu dizkionean.

**XIX.** CENek beti erantzun ditu soberako izakinei irtenbidea emateko laguntza deiak: 2021eko otsailean, apirilean eta 2022ko azaroan.

**XX.** CENek ezin du onartu inolako erantzukizunik, Kontuen Ganberaren txostenetik eratorzen bada. CEN ez da fiskalizazioaren mendeko subjekturik, Akordioari dagokionez.

## NAFARROAKO KONTUEN GANBERA.

Karen Moreno Orduña andrearentzat

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Andre agurgarria:

Honen bitartez jakinarazten dugu 2022ko abenduaren 7an bidali diguzun mezua jaso dugula, baita mezu horri erantsitako “Pandemia garaian ETE, mikroETE eta autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariarako akordio”aren gainean egindako behin-behineko txostena ere; akordio hori 2020ko maiatzaren 7an sinatu zuten CEN Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Sociedad de Desarrollo de Navarra SLk eta Albyn Medical SLk (aurrerantzean, Txostena eta Akordioa esanen zaie dokumentu horiei).

Lehenik eta behin, esker ona adierazi nahi dizuegu behin-behineko txostena irakurtzeko aukera guri emategatik; horrez gain, egindako lana bihotzez zoriondu nahi dugu.

Termino orokorretan, uste dugu Txostenean modu egokian heldu zaiola aztergaiari, bereziki, ondorioetan hau aipatzen denean: “Kontuan hartu behar da [Akordioa] egin zeneko egoera salbuespenezkoa zela, zeinak, soziala edo zirkunstantziala izateaz gain, berekin ekarri baitzituen ondorio juridiko garrantzitsuak”.

Hala eta guztiz ere, honako ñabardura hauek egin behar ditugu:

**1.a.-)** Akordioa sinatu zeneko egoera salbuespenezkoa zenez, ALBYN MEDICAL SLk ez zuen bere gain hartu emaitzak lortzeko betebeharririk, bitartekoak jartzekoa baizik.

Hori dela eta, Txosteneko V2 atalean Sodenak eta Albynek lankidetzako eta finantza laguntza emateko sinatu zuten akordioaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen direnean, honako klausula hauek berariaz aipatzeko eskaera egiten dugu, bertan, ALBYN MEDICAL SLren erantzukizun erregimena zehazten delako:

a) Akordioaren 1.1 klausularen literaltasuna. Klausula horretan ALBYN MEDICAL SLk konpromisoa hartu zuen NBEak nazioko eta nazioarteko merkatuan lortzeko, baina argitu egin behar da, bitartekoaren gaineko erantzukizuna dela, eta ezin dela erosketaren arrakasta bermatu:

“Aurreko konpromiso horren arabera, ALBYN MEDICAL SLk ahalik eta esfortzurik hoberena egin behar du merkatuetan arazoizko prezioa eta entregatzeko epea betetzen dituzten NBEak aurkitzeko eta aukeratzeko, baina hori ez da inola ere hartzen emaitza hori lortzeko betebehartzat”.

b) Akordioaren 3.1.3. klausularen literaltasuna. Kontuan hartuta garai hartan ziurgabetasun handia zegoela norbera babesteko ekipamenduek enpresan edo lanbideetan erabiltzeko bete behar zituzten ezaugarri teknikoaren gainean, ALBYNek eta Akordioaren gainerako sinatzaileek ez zuten bermatzen norbera babesteko ekipamenduek une bakoitzean ezaugarri teknikoak betetzea. Halaxe ondorioztatzen da 3.1.3 klausulatik:

“Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren aholkularitza izanda, CEN-EK, SODENAK ETA ALBYN MEDICALEK ez dute erantzukizunik hartuko beren gain, eskaeren xedea diren NBE horiek desegokiak badira; eta enpresek edonola ere fakturak ordaindu beharko dituzte”.

**2.a.-)** Eskatu egiten dugu 9. orrialdeko azken-hirugarren paragrafoa osatzea. Paragrafo horretan aipatzen da alderdi bakoitzaren erantzukidetasuna, alderdi bakoitzaren interesa zein den.

Bai Sodenak, bai CENek, antolakunde bakoitza eratzeke xedeen arabera, ALBYN MEDICAL SLrenak ez bezalako interesak zituzten eta dauzkate. Horren harira, uste dugu Akordioaren zioen azalpenetan argi uzten dela:

Agerikoa eta nabarmentzekoa da, eta txostenean argi erakutsi da, zein izan den Albynek, kudeatzaile moduan egindako lan osoaren truke jaso duen kontraprestazioa (496 eurokoa). Horregatik, eskatu egiten dugu paragrafo hori idazketa honen arabera osatzea:

• Ganbera honek pentsatzen du arazoizkoa dela pentsatzea sinatzaile guztiak akordioaren hutsuneen erantzukideak direla, haietako bakoitzak helburuan zuen interesaren proportzioan, **horrek erantzukizunak modulatuko dituelako. ....**”.

**3.a.-)** Alegatzen dugu txostenaren 7. orrialdeko lehen paragrafoaren idazketa doitu behar dela, gorriz nabarmendu dugun esaldiaren arabera: “Maskaren prezioaren beherakadaren **eta maskara batzuen entregatzeko atzeraldiaren** ondorioz, enpresek ez zituzten zenbatutako NBE guztiak erosi...”. Maskarak ez erosteko arrazoia ez zen entregatzeko atzeraldia, baizik eta faktore horietako lehen faktorea, maskaren zenbatespenarekin batera, eta kontratuan eta txostenean bertan adierazi bezala, hori CENen erantzukizuna zen.

Horregatik, berariaz eskatzen dugu gorriz nabarmendutako esaldia ezabatzeko, eta paragrafo hori honako idazketa honen arabera jasotzeko:

*Maskaren prezioaren beherakadaren ondorioz, enpresek ez zituzten NBE guztiak erosi, eta CENek izapidetutako eskaerak, guztira, 364.280 unitatekoak baino ez ziren izan. Kopuru hori, beraz, Albynek erosi zituen maskara kopurua baino askoz ere txikiagoa da, Albynek 2020ko apirilaren 22ko premien aurreikuspenen arabera erosteketa egin zuelako. Akordio honetan ezarritako prozedurari jarraituta, Albynek 25.670 maskara ere zuzenean saldu zizkien beste erakunde batzuei. Albynek salmenta horietan lortu zuen marjina garbia 496 eurokoa izan zen, saldutako NBEak kudeatzeko eta biltegitratzeko gastuak alde batera utzita (akordioan ezarri zen marjina ehuneko 3,5ekoa zen).*

**4.a.-)** Alegatzen dugu txostenaren 9. orrialdeko azken-aurreko paragrafoaren idazketa doitu behar dela. Izan ere, bertan ez da aipatu egitate objektibo bat, hain zuzen ere CENek enpresen ehunean duen ordezkartza eta, hartara, erantzukizuna, bai eta horrek kontratuan duen efektua ere. Hau jaso da paragrafo horretan: “Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen; beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen. Akordioaren alderdi sinatzaileak beharrezko eragileak ziren, lortu nahi zen xedea betetzeko”.

Hortaz, gorriz nabarmendu dugun esaldia berariaz jasotzea eskatzen dugu: “Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen; beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen, **bai eta CENena ere, enpresak ordezkatzeko dituelako. Gainerako parte-hartzaileak** beharrezko eragileak ziren, lortu nahi zen xedea betetzeko”.

**5.a.-)** Alegatzen dugu txostenaren 33. orrialdeko azken-aurreko paragrafoaren idazketa doitu behar dela, zehazki, kontratuaren funtzionamenduari eta alderdi bakoitzaren eginkizunari buruzko zatia. Hau jaso da paragrafo horretan:

Horiek horrela, CENen esku hartzea beharrezkoa zen, NBEak erosteko prozedurari ekiteko eta Albyni premien zenbatespenen berri emateko. Bestalde, Albynek NBEak bilatzen eta erosten zituen merkatuan, baina NBE horiek ez ziren beraren kontsumorako, baizik eta CENi emateko, eta CENek enpresa eskatzaileei banatu behar zizkien. Sodenak finantzaketa ematen zion Albyni, Albynek enpresei emateko NBEak erosteko ordainketa aurreratua egin zitzaion; beraz, Sodenak ez zion Albyni finantzaketa ematen Albynek bere intereseko eragiketa batean berme gisa erabil zezan.

Berariaz eskatzen dugu idazketa hau jasotzea, alderdi bakoitzaren eginkizuna leialtasun handiagoz erakusten duelako:

“Horiek horrela, CENen esku hartzea funtsezkoa zen, NBEak erosteko prozedurari ekiteko eta Albyni premien zenbatespenen berri emateko. **Akordioan bertan CENi zenbait eginkizun esleitzen zitzaizkion, baita protagonismo garrantzitsua ere, protagonismo gabeko bitartekari hutsa izan beharrean. Horren frogara da, Akordioaren klausula batzuen arabera, CENek NBEak Albyni erosi behar zizkiola, eta gero CENek enpresei banatu eta entregatu behar zizkiela; beraz, CEN beharrezko bideratzailea, koordinatzailea eta kudeatzailea zen, norbera babesteko ekipamendu hartzaileren aurrean.** Bestalde, Albyn arduratzen zen NBEak merkatuan bilatzeaz eta erosteaz, baina ez ziren berarentzat, **jarduera hori ez baitzen Albynen ohiko jarduera.** Sodenak finantzaketa ematen zion Albyni, Albynek enpresei emateko NBEak erosteko ordainketa aurreratua egin zitzaion; beraz, Sodenak ez zion Albyni finantzaketa ematen Albynek bere intereseko eragiketa batean berme gisa erabil zezan».

**6.a.-)** Gure ustez, Akordioaren osteko egitateak eta, zehazki, erositako NBEen xedea aztertzean, aipatu beharko litzateke ALBYN MEDICAL SLk NBE horiek zaindu dituela iragan den irailetik, eta ez duela inolako kontraprestaziorik jaso, nahiz eta NBEak zaintzea edo gordailutzea bere erantzukizuna ez izan. Izan ere, Albynek entregatu behar zituen “CENek xede horietarako zehaztuko zituen Nafarroako Foru Komunitateko kokapen logistikoetan” (Akordioaren 1.3 klausula).

Espero dugu alegazio horiek zuen harrera ona izatea. Adeitasunez, jaso ezazue agur bero bat,

Luis Collantes Niño jauna, Albyn Medical SL



**ALEGAZIOAK, PANDEMIA GARAIAN ETE, MIKROETE ETA AUTONOMOENTZAT NBE-AK  
EROSTEKO LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA FINANTZARIORAKO AKORDIOARI BU-  
RUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA ETA.**

**1- Ondorioen gaineko 8. orrialdea:**

Sodenak Nafarroako Gobernuaren 2020ko otsailaren 26ko Akordioaren babespean jardun zuen; horregatik, ez zuen beste baimen bat eskatu akordio horretarako, ezta O-NOZekiko akordiorako ere. Sodenak Kontu-hartzailetzaren txostenari egin dizkion alegazioak gogora ekarri nahi ditut.

**2- Ondorioen gaineko 8. orrialdea, kontabilizazio okerrari buruz:**

Urteko kontuen gaineko txostenak, zeinak auditore independente batek igortzen baitu, oharpenik gabeko iritzia dauka, eragiketaren kontabilizazioari buruz; beraz, elementu hori paragrafoan txertatu behar da.

**3- Ondorioen gaineko 9. orrialdea, azken-aurreko paragrafoa:**

Paragrafo horretan alderdi sinatzailea den enpresen ordezkaria omititu da, eta ez da islatu esku hartzaile bakoitzaren eginkizun bereizia.

Hau da proposamena:

Akordioaren xedea enpresei NBEak ematea zen; beraz, zeharka izanik ere, interes handiena enpresena zen, bai eta CENena ere, enpresak ordezkatzan dituelako (Nafarroako aurrekontuetan aurrekontu-esleipena dauka, enpresen ordezkaria delako). Gainerako parte-hartzaileak beharrezko eragileak dira, lortu nahi zen xedea betetzeko.

Pilar Irigoien Ostiza

Altsasun, 2022ko abenduaren 14an

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiegu Sodenari, Albyni eta Sodenako zuzendari kudeatzaile ohiari gure txostenari aurkeztutako alegazioengatik.

Orokorrean, ganbera honek berretsi egiten ditu bere txostenean jasotako lanaren ondorioak, gomen-dioak eta zehaztasunak, eta, beraz, alegazioak behin-behineko txostenari gehitu zaizkio, haren edukia aldatu gabe, ondoren zehazten diren kasuetan salbu. Onetsitako alegazioekin batera, ganbera honek alegazio batzuei eman die erantzuna ere sartu dugu.

**Sodenak egindako alegazioei emandako erantzuna**

- Ganbera honek eutsi egiten dio, hitzarmena sinatu aurretik, Sodenak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar ziola dioen ondorioari. Alegazio horietako 17. orrialdean aipatutako 2020ko otsailaren 26ko erabakiak eskatzen zuen, besteak beste, eman beharreko bermeen analisi bat egiteko, beti ahalik eta berme gehien zeudela bermatuta, eta Nafarroako Foru Komunitateak formalizatutako eragiketa berrienean erabilitako tasaren 100eko 50etik behera ez zegoen interes tasa erabiltzeko. Horrez gainera, ezarri zuen Sodenak hiru hilean behin eman behar ziola emandako mailegu guztien berri Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiari. Ganbera honek ez daki ziur Sodenak jarduketa horiek eginen lituzkeenik erabaki horren babesean ari zela uste izanda.

- Txostenak hitzarmena Nafarroako Gobernuak baliozkotzeko aukerari buruzko aipamena jaso dezan alegazioen 23. orrialdean egindako eskaerari dagokionez, ganbera honek uste du ez dela egokia iradokitako testua gehitzea. Arrazoia da haren idazkerak gaizki-ulertuak eragin ditzakeela, ganbera honek ezin baitu erabaki baliozkotze prozedura hipotetiko bat egitearen emaitzei buruz.

- Laugarren alegazioaren 1. puntua onetsi da, eta kendu egin dira aipatutako hitzak ganbera honen txostenaren 6. orrialdean.

- Laugarren alegazioaren 4. puntuan dagoen gure txosteneko 28. orrialdeari buruzko zatia onetsi da, eta, beraz, aipatutako hitzak kendu dira ganbera honen txostenean.

### **CENen alegazioei emandako erantzuna**

- Kontuen Ganberaren eskumenari eta jarduteko eremuari dagokienez 65. eta 66. paragrafoetan jasotako alegazioei buruz, hau adierazten dugu:

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak oinarrizko printzipio hauek ezartzen ditu, besteak beste:

a) Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta izaera publikoa duten funts guztiak fiskalizatzen dituen organoa da.

b) Eginkizun horren barruan, sektore pribatuari ematen zaion edo onura dakarkion edozein laguntzarako baliatutako funts publikoak ere sartzen dira.

c) Egindako kontrolak funts publiko horien arlo finantzarioari eta funtsen kudeaketaren legezotasunari eragiten die.

Jasotako alegazioari helduta, hau esan behar dugu:

a) CENek legeak Kontuen Ganberari ematen dizkion eginkizunak aipatzen dituzenean, ahaztu egin zaio Sodena sozietate publikoaren bidez NBEen erosketaren finantzaketan inplikaturako funts publikoak fiskalizatzeko duen eskumena.

b) Gure fiskalizazioak hiru alderdiek sinatutako hitzarmena baino ez du aztertu, eta ez da sartu CEN erakunde pribatuaren jarduna.

c) Funts publiko horien alderdi finantzarioak aztertu dira, baita haien legezotasuna eta kudeaketaren egokitasuna ere.

Ondorioz, ezin dugu onetsi CENek nahi duena, hau da, ganbera honek gainditu egin dituela dagozkion legezko eskumenak, aztertutako eragiketan funts publikoak baitaude sartuta.

- Ganbera honek dokumentuen analisi juridikoak egiteko duen gaitasun teknikoa zalantzan jarzen duen CENen alegazioetako 67. paragrafoari dagokionez, hau adierazten dugu:

a) Aipaturako foru legearekin bat, Ganberaren fiskalizazio jardunaren barruan baliabide publikoen kudeaketari eragiten dioten legezotasunari buruzko alderdiak ere sartzen dira.

b) Horretarako, Ganberak legelariak osatutako aholkularitza juridikorako zerbitzu bat du.

c) Zerbitzu horrek esperientzia nahikoa du edozein fiskalizaziotan behar diren analisi juridikoak behar diren bermeekin egiteko.

- Ganbera honek egindako analisi juridikoari buruzko alegazioetako zenbait paragrafo direla eta –besteak beste, 67., 161. edo 162. paragrafoa–, esan nahi dugu gure eskumenak oinarriztat hartuta egin dugula hitzarmenaren fiskalizazioa, eta, horren barruan, haren idazkerari eta beteazpenari dagozkien alderdi juridikoak aztertu ditugu, dauden iritzi juridiko ezberdinak ahalik eta gehien errespetatuta, baina ez da gure eginkizuna alderdi bakoitzaren erantzukizunak ebaztea eta zehaztea, eskudantzia horiek organo jurisdikzional eskudunei baitagozkie.

- Jasotako alegazioetan –69., 160., 164., 165., 174 edo 193. paragrafoa–, zenbait baieztapen egiten dira, eta aditzera ematen da ganbera honek hala jaso dituela txostenean, baina ez da egia.

- Erakunde horren alegazioek ustezko zenbait kontraesan aipatzen dituzte, eskaeren datei, ordainketei eta halakoei buruzkoak batez ere (besteak beste, 70., 124., 125., 126., 127., 128 edo 130. paragrafoa), eta ez dira egiazkoak. Gure txostenean sartutako datu guztiek laneko paperak dituzte euskarri.

- Alegazioetako paragrafo batzuetan (7., 132., 144. edo 158. paragrafoa, besteak beste), esaten da CENek ez zekiela nondik zetozen 3.1.2 estipulazioan jasotako 257.200 maskarak. Baieztapen horiek harridura eragin diote ganbera honi, hitzarmenaren 2020ko apirilaren 24ko lehen zirriborroari dagokion dokumentuan CENeko idazkaritza nagusiak estipulazio horren inguruan egindako ohar bat agertzen baita. Hain zuzen, esan zuen aurreko egunean kopuru horiei buruz eta zer produktuez ari zen hitz egin zela.

- Alegazioetako paragrafo batzuetan etengabe esaten da ez zekitela, hasieran aurreikusitakoaren kontra, O-NOZek ez zituela bere gain hartuko soberakinak, halakorik izanez gero. Baina,

sinatzeko unean, CENek bazuen inguruabar horren berri, eta aukera izan zuen hitzarmena ez sinatzeko edo beste baldintza batzuetan sinatzeko. Sinatu zuen unetik, bai CENek bai hitzarmena sinatu zuten gainerako alderdiek bere gain hartu zituzten haren edukia, baldintzak eta arriskuak.

- Alegazioetako 73. paragrafotik 84.era, CENek azaltzen du zergatik ez zion eman ganbera honi eskatutako dokumentazioa. Halaber, 22. oin-oharrean, mezu elektronikoko bat sartu du –orain arte ganbera honek ez du haren berri izan–, zeinaren bidez maiatzeko NBEen premien zenbatespena eskatzen baitzien enpresei eta langile autonomoei. Ohar horren edukia oinarritzat hartuta, ganbera honek ezin du egiaztatu ea benetan mezu elektronikoko hori izan zen CENek bidali zuena, eta, beraz, mantendu egiten da dagoen bezala txosten honen II. epigrafean irismenari dagokionez jasotako muga.

- Alegazioetako paragrafo batzuetan (34., 35., 37., 38 edo 114. paragrafoa, besteak beste) Albynek lortutako marjina aipatzen da ere. Horri dagokionez, ganbera honek adierazi nahi du gure txostenean jasotako marjina garbia zenbateko orokor bat dela, hitzarmenaren betearazpen orokorrari dagozkion erosketei eta salmentei dagokiena.

- 145., 146. eta 147. paragrafoetan, Sodenak saldutako Albynen partaidetzak aipatzen dira. Gertaera horrek ez dauka loturarik fiskalizatutako hitzarmenarekin, ganbera honen laneko papere-tan jasotakoaren arabera, aipatutako salmenta 2016tik baitzegoen aurreikusita; 2019tik zeuden partaidetza hori eskuratzeko eskaintza irmoak. Data horiek ez datoz bat hitzarmena sinatu zen garaiarekin, 2020ko maiatzean sinatu baitzen.

- 42. paragrafoan, CENek adierazten du hitzarmena 2020ko abenduaren 31n azkendu zela, eta, beraz, data horretatik aurrera sinatzaileak ez zeudela lotuta. Hori hala izanda ere, data hori baino lehen egindako eragiketak lotesleak dira sinatzaileentzat, eta, hortaz, 2020an egindako aipatutako 600.000 maskaren eskaera, zeina Nafarroan urte horren amaieran jaso baitzen, sartuta egonen litzateke hitzarmenaren betearazpenean. Inguruabar horrek alegazioetan dauden eskaera horri buruzko beste paragrafo batzuei ere eragiten die (120., 121. edo 188. paragrafoa, besteak beste).

- Alegazioetako 190. paragrafoan esaten da ganbera honen txostenean baieztapen faltsu bat dagoela, justifikaziorik ez duen edo frogatu ez den tesi interesatu bat, zeinak esaten baitu alderdiek ez dutela akordiorik erdietsi eta CENek Sodenari eta Albyni exijitu diela erantzukizunak erreklamatzeari uko egiteko.

Baina, 192. paragrafoan, CENek adierazten du eskakizun hori sartu zuela akordio bat erdiesteko egin zuen zirriborroaren proposamenean. Baieztapen hori ez dator bat gorago adierazitako paragrafoaren edukiarekin.

- Alegazioetako 121., 138. eta 181. paragrafoetan, Albynek NBEen homologazioari, ziurtape-nari eta emateko epeari dagokienez duen erantzukizuna aipatzen da. Harrigarriak dira baieztapen horiek, hitzarmenaren 1.1 eta 3.1.3 estipulazioak erantzukizun horietatik salbuesten baitzuten. Izan ere, berariaz ezartzen zuten ez zekartela emaitzari lotutako betebeharririk enpresa horrentzat.

- Onetsi egin da 95. paragrafoaren edukia eta aldatu egin da 14. orrialdeko paragrafoa, esateko CEN aipatutako bileretako bakarrera joan zela.

- Onetsi egin da 139. paragrafoaren edukia, eta egindako kalkuluak azaltzeko ohar bat gehitu da 19. orrialdeko taulan.

**Albynek egindako alegazioei emandako erantzuna**

- Onetsi egin da lehen zehaztapena, eta hitzarmenaren ezaugarrien taulan –gure txosteneko 17. orrialdea– alegatutako estipulazioen laburpen bat gehitu da.
- Onetsi egin da hirugarren zehaztapena, eta adierazitako hitzak kendu dira gure txosteneko 6. orrialdeko paragrafo horretan.
- Zazpigarren zehaztapenari dagokionez, ganbera honek nabarmendu nahi du gure txosteneko 7. orrialdeko 3. oin-oharrak eta 24. orrialdeko 17. oin-oharrak bazutela gehitu nahi duten informazioa.

Iruñean, 2022ko abenduaren 16an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador





